



Iturria: *Euskal lan guztiak*, Agustin Kardaberaz (faksimilea).
La Gran Enciclopedia Vasca, 1974.

Klasikoen Gordailuan:
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/K/KardaberazAfeckoak.htm>

AITA SAN IGNAZIOREN EJERZIZIOEN GAÑEAN AFEKTOAK

Agustin Kardaberaz

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabetze Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

**AITA SAN IGNAZIOREN EJERZIZIOEN
GAÑEAN AFEKTOAK,**

beren Ejenplo, ta Dotrinakin: edo Ejerzizioen IIen Partea:

JAINKOAREN MINISTRO ZELOSOAI
JESUSEN KONPAÑAKO AITA

Agustin Kardaberazek eskeñtzen, ta dedikatzen diena

1761 Urtean.

BEAR DAN BEZALA.

Iruñean: Librugille Antonio Kastillaren Etxean.



SAZERDOTE JAUNAI JESU Kristoren pakea

Irugarren aldian, Jaungoikoaren Ministro andiak: irugarren aldian, San Pablok Apostoloarekin esan dezaket, Zuetara nere zentrorra bezala, orañgoan natorrela: *Ecce tertio hoc venio ad vos*. 2. Corin, 15.

Zuen diñako presente, edo Obra berrizko doairik ez dakart: ta ez nator ez orien, edo beste gauzen billa. Era onetan Obra berriak ateratzea, edo asmatzea, da amets oro bat egitea, edo utsa billatzea. Salomonek esan zuena, munduan gauza berririk ezda: *Nihil sub sole novum*. Eccles. I. Mundu guzia Obra zarrez, edo Dotore Santu, ta Maisu jakinsuen Libru ederrez bete dago. Ala Latinez, nola Gaztelaniaz gauza andiak ditugu, ta txit aberatsak gaude; gure Euskera añ pobre orañdaño izan du badere. Orietatik onena artzea, ta bearrena ateratzea da guretzat lanik, egokiena, ta konsejurik seguruen.

Eznator, ez zuen ondasunen, ezpada zuen anima estimatuen billa: *Non quaero, quae, vestra sunt, fed vos*. I 2. Ondasunen zale ez naiz, ta orien bearrik ezdet: nere gela pobre utsa onen testigu ona da. Leñ Jainkoaren pobre, edo Santuenzat, ongilleak eman, ta ezer izan badet, orañ gogo ori ere kendu zat. Ez egieki, nere Jaunak, ez orrelakorik uste. Janean, ta janzian, Jainkoak ematen didanarekin, kontentu naz, Apostoloak berak esaten digun bezala: *habentes alimenta, quibus tegantur, his contenti timus*. I. Tim. 6. Bakoitzak zuen joia bakar preziatuena indazute niri: ta zuenarekin batean, zuen probetxoen anima estimatuak indazkidatzute niri; eta beste gauza guziak zuenzat: *Da mihi animas; caetera tolle tibi*. Gen. 14.

Zuen, Jaun beneragarriak, Apostolo, edo Obispoen urrengo Presonak, ta Jainkoaren Eleizan aurreneko Ministro paregabeak zerate. Zuek Eleizako Gorputz mistikoaren animak, animen espirituak: Izarren artean Eguzkia, Jainkoaren arteko Ispillua, ta anima fielen bizitza, Jaunak berak dion bezala, zuek zerate: *Quonian estis Presbyteri in Populo Dei, ex quibus pendet anima eorum*. Judit 8.

Zuek zeruan, ta lurrean munduak duen estadu, ta lekuri altuena dezute. Zuek Jaunaren Suerte ditxoso, ta zorioneko beraren ordekoak zerate. Zuen diñadadea lurreko Errege guzien, ta zeruko Aingeru guzien gañekoa, ta goragokoa da:

bada Aingeruak Jainkoak eman ezdien esku, autoridade, ta potestadea zuei eman dizute, dio San Agustin batek: *Quod datum non est Angelis, concessum*

est hominibus. In Psal. Zuek Jainkoaren beraren Persona, beste gizon, edo Aingeruk ez bezala, egiten dezute: ala Meza esan, ta konsagratzean, nola konfesoak enzun, ta pekatuak barkatzean.

Baldin Jesu Kristo bera, edo *en Persona*, zuen errira etorri, ta len beza-la agertuko baliz, Jainkoa izanik ere, ezin gauza andiagorik egingo luke, Meza bat, berak esango lukean bezala, esatea, edo pekatari bat absolbitzea baño. Zuek zuen esku konsagratuetan Jesu Kristo darabiltzute: orregatik guzien artean aldatekean erreberenziarik andiena zor zatzute. Jainkoari berari ematen zaion onra bezala, edo aren antzekoa zuei eman bear zatzute: *Vide Sacerdotum dignitatem, quod divina fit: Dei enim est remittere peccata: sic igitur illi honorandi sunt, ut Deus*. Theophila, in c. 20. Ioan.

Ta ala da, Jaunari alabanzak, gure artean: Sazerdoteak munduan onra, ta errespeto andiagorik bear bada, gure alde oietan baño ez tute: ta emen adiuña non? Alakoa da gure probetxoen fede, ta lege ona. Oien anima zuen kontura daudenetan, Jesu Kristoren odola zuen eskuetan, ta zuen kargura dago: eta Abel justu, ta Josef santuarenak baño deadar andiago emango du: eta orren kontu estua zuen biziera, ejemplo, dotrina, ta miserikordiazko obren gañean eman bear dezute: *Ecce vox sanguinis fratris tui clamat ad me de terra*. Gen. 4. *En sanguis eius exquiritur*. Gen. 42.

Egia da, Jaunak, zuen lan, neke, ta izerdi ditxosoen pagurik munduan izango ezdezutela. Lurreko ondasun guziak, zuen merito, ta irabazien aldean, oñ peko auts puska bat dira. Eztago emen lurrean zer uste, ta zer itxiden, ezpada goien zeruan zuen sari justua. Zuen seniparte edo herentzia ezta besteakin batean, ta ez lurrekoa, baizik Jainko guztia bera, berak dionez. *Non habebunt Sacerdotes partem, haereditatem cum reliquo Israel... Dominus ipse est haereditas eorum*. Deut. 18.

O zeñ altura andia dan au! Baña begira ondo, burua zorabiatu ta erorteko zer peligran zauten. Altura andian zegoen deabrua beste Aingeruakin; baña Jainkoak eman ziozkan fabore ta erregalo geiegiaz gaizki bere naiez usatu, ta bea jo zuen, ta galdu zan.

Ar ezkerro janari erregalatuen zale da, dio Jainkoak: *Cibus eius electus*. Habac. I. Eta Sazerdote bat galtzea naiago du beste asko baño. Badaki zuetatik bat on, edo gaistoa izatea, askoren salbazio, edo kondenzazio dala. Sazerdote bat geienean, ez beretzat bakarrik, ezpada askorenzat da ona.

Orregatik, nere Jaunak, zuetatik bat Ejerzizio santuetan irabaztea, ta zuen altura miragarrian Jainkoarenzat seguratzea, ta ona bada, egunoro obe egitea, da nereko erri oso bat irabaztea. Ala deritzat, eta esan oi det, Jaunaren onelako Ministro fiel batek, bere ejemplo, dotrina, ta miserikor-



diazko obrakin, satu ez izanik ere, edo santu izan baño len, gure esaeran milagroak bere errian egiten dituela.

Bai Jaunak, bai, ta deabruaren damu garri gaistoan, Santuak bear dezute izan, zeren Jainkoak ala dion, ta zuen estaduak ala eskatzen duen. *Sint ergo Sancti, quia ego Sanctus sum.* Exod. 21. Zuen estimazio, ta benerezioak, guziok Jaungoikoaren deseonezaz batean, Santu izateko gogo andi irazaki batek ematen dit. Oñen gañean ozta nago: auts egiña, edo orren aldean nago: ortzetan anima, esan oi dana, askotan itsusia nago: beste kulpari agudoak esaten zidana: nere bizia, edo osasuna udan kar-toiezkua, ta neguan paperezkoa dedala nago.

Baña, orregatik ere Jaun beneragarriak, nere azkeneko asnaseak zuen ondoren, zuekin, zuen artean, zuen billa, zuen onerako, ta zuen fabore eman nai ditut. Zuen gañean, San Pablok zeukan bildurra daukat, zuek beste askori predikatu, zeruko bidea erakutsi, ta salbatzen lagundu, ta zerok galdu etzaitzeten: *Ne cum aliis praedicaverim, ipse reprobus efficiar.* I. Cor. 9.

Zuen alibio, ta probetxurako, bada, ta zuen zelo beroaz anima asko salbatzeko, Ejerzizioen bigarren Parte au atera det, ta ez nere buruz, baizik gizon andien konsejuz. Gauza jakinak dira guztiak. Lenengo Liburtxoan animen Bizitza berria asitzeko Pausoak eman ziran. Ejerzizioetan berriz, Bizitza ondo asentatu, ta Jainkoaren bidean ondo ibiltzen erakusten da. Orañ Konsiderazio, ta Afekto oietan obeto aurreratu, ta irauteko anima berotzen da: ondo iltzeko, ta zuek Jaunaren zeruko Ministroak bezala, ondo iltzen laguntzeko, Ejerzizio santua, agintzen, eskeñtzen, ta dedikatzen dizutet.

IRAKURLEARI JESU KRISTOREN GRAZIA

Dabid penitenteak dio: bere barrenean biotza berotu zitzaioa, ta bere Meditazioan sua iratzakiko zitzaioa. Jainkoaren graziak bere miseri-kordiaz gure barrena argitzen, ta berotzen du. Argizko arrazoi fuerte, ta Konsiderazio indarsuak beti ere obeto anima onean, edo birtutean seguratzten dute.

Alere askotan, edo beti Konsiderazio luzeak egiteko Kristaba ezdago: eta Jainkoak batzuetan biotza argitzen, ta berotzen du borondateko afekto, edo gogo bero bizi batzuekin, bestelako arrazoi andiak bezala, Bata ta bestea Jaunaren ontasunak, berak dakien bezala, gure onerako egiten du: eta au berau Santuen bizitzak era askotara erakusten digute.

Fede, ta biotz oneko gure jende pobretxoentzat afektoz beterikako Konsiderazio argi ta labur oiek asko serbituko dutela deritzat. Orañ baño len Kura batek Pulpitoan gaztelaniazko Librutik, alzu bezala, bere ardiai irakurtzen zien, ta beti probetxu andiaz. Maisu, ta gizonik andienak beren Zartzean, onetara biurtzen dira: ta orrelakoen konsejuz, animen onagatik, neke puska au nik ere pozik artu det.

Meditazioa luzaro ezin egin dutenak, egia eder asko, ta laburtxo emen idoroko dituzte. Guziok nolerebait, ta nola ezdakizutela badere, Meditazio, Konsiderazio, edo Orazio mentala egin oi dezute askotan. Konsiderazioaren faltak, dio Jainkoak, mundu guzia dauka galdurik: *Desolatione desolata est omni terra, quia nullus est, qui recogitet corde.* Ier. 12. Meditazio au, Eskritura sagraduak leku askotan dionez, onerako, ta gaitzerako izan diteke. Gaistoak ere beren gaitzerako pensatzen dute, ta sobra, edo geiegi.

Baña emen diogun Meditazio ona da beñ, ta berriz, edo berriro biur-tuaz, zure salbaziorako gauzak pensatzea, ta oretatik biotzeko afekto santuak ateratzeko pensatzen egotea: eta afekto oriek Libru oetan dituzu. Ezta asko oriek beñ, edo nola nai irakurtea. Munduko gauzetan sarturik dagoen biotz bat argitu, berotu, ta beraatzeko, askotan, ta soseguz onelako Konsideraziok igaro bear dirade.

Gure Jaungoiko emalle ona beti on egiten, ta bere graziak ematen dagokigu: orregatik ere esaten digu, bear, edo nai deguna, Jesu Kristoren izenean eska diozagula, ta emango digula: eta Meditazioaren fiña au da. Baña zenbat bider orazio, edo petizio egin, edo eskatu bear degun, ezdio.



Ta ala beti bear degunak bezala, beti eskatu bear degu, ta orazioa egin: au da Jesu Kristoren konsejua: *Oportet semper orare*. Luc. 18.

Beñ, ta berriz, ta askotan afekto oiek, edo onelakoak bakoitzak bere biotzetik egin, edo atera bear ditu: ta beñ ezpada bestean, gaur ezpada biar argitu, ta berotuko da: egunoro argi geiago, ta Jaunaren fabore andia-goak izango ditu. Beñere Ejerzizio santu au utzi bear ezta: leor, ta otza zaudenean irakurri puska bat: munduko gauzak burura etorri arren, ezta ants; ekin orregatik: ta ez kontentatu aoz irakurriaz beñ, baizik afektoak biotzetik egin, ta soseguz, ase ase artean aldezun moduan pensatu: eta ikusiko dezu, zer probetxu andia zeregan arkituko dezun.

Orañ Konsiderazio oriek zeren gañean diran, ta oriezaz nola baliatu bear zeran laburtxo esango dizut.

Zure erretiro, edo bakarrean, Jainkoaren aurrean jarri, ta eska zaiozu bere argia, ta grazia, berak nai duen frutua Konsiderazio artatik ateratzeko. Ejerzizio bakoitzean zere burua, edo zuri ondo dagokizun gauzaren bat, Ispillu argi batean bezala, bereala arkitu, ta Konsiderazio bakoitzean ikusiko dezu.

Lenengo Ejerzizioan, zure ditzarik andiena, ta azkeneko fiñ, edo zori ona, edo nola zerurako egiña zeran.

Bigarrean, fin altu orren kontrako etsairik dezun andiena: au da pekatua, alde guzietatik arrigarri itsusia: eta Pekatuaren kalteak.

Irugarrean, Erioaren arpegi illuna, ta eriozako tranze ikaragarria: ta Gorputz illaren ispillua.

Laugarrean, bakoitzaren Juizioko kontu estua, eriotzan, ta Juizioan naiko dezuna bera orañ egiteko.

Bostgarrean, Pekatuaren saria, infernuko pena, ta tormentu betikoetan.

Seigarrean, guzien Juizioa, kontua, ta betiko sententzia: edo guziok geren Gorputz, ta Animakin nola Jaunaren Tribunalean agertu bear degun.

Aita San Ignaziok bere Ejerzizio guzietan nai duen frutua nola dan, bakoitzak biziera santu batekin bere burua gauza guzietan moldatu, ta Jainkoaren pakean bizi, ta eriotza on batekin beraren amorio santuan akabatzea: ala Konsiderazio oien ondoren, ondo, ta berariaz bezala Eriotza onaren gañeko ematen ditudan Ejerzizio biak, guzien koroa bezala, azkenean datoz. Nik desatzen dizudan probetxu guzia zuk ateratzea, Jaungoikoari nai dakiola. Amen.

JAINKOAK GIZONA ZERTAKO EGIN ZUEN: EDO ZURE FIÑ AZKENEKOAREN GAÑEAN, KONSIDERAZIO, TA AFEKTOAK

LENENGO KONSIDERAZIOA

Nere Jaungoikoaren Ontasuna! O Misericordia paregabea! O nere Jaun maitea! Zuk bakarrik ezerezetik egin ninduzun, ta Zuk bakarrik alde-tekean ditzarik andienerako egin ninduzun. Onelako benefizio, edo onegin soberanoagatik, zenbat Jauna, zor dizut? Onen fabore andia Zuk niri egiteko, zer merezimentu nigan arkitu zenduen?

Zuk nere bearrik ezertako etzendueta, ni añ andi egitea! O nere Egillea, ta nere Ongillea! O Jauna! Nik beste On, beste fiñ, beste ditzarik, Zu zero-ri baizik ez idukitzea, nai izan dezu! Zu nere Jaungoiko bakarra, Zu ontasun kabu gabea: Zu Jakintasan neurri gabea. Zu, nere Jaun andia, zera nere atsedena, atsegiña, ta betiko gloria. Zugana, ni zori onekoa izateko, nere gogo, intenzio, itz, obra, ta alegin guziak zuzendu bear ditut.

Ai Jauna! Munduko beste fiñ guziak, onen aldean beude isillik. Ken ortik, bada, lurreko beste fiñ, edo deseo eroak: ken nere begietatik, gizonak lurrean ditxa ta zori ona esan oi duten guzia: bada munduko ditzarik eragiñena, ta gogora alditekean andiena, nere fiñ onen aldean, farra puska bat, edo egiaz ezerez da. O Jauna! Lurreko gauzak Zurekin zer dute zer ikusi? Guzien Egillea Zu zera. Akabatzen diran gauzak, kaburik eztuena-ekin zer dute, Jauna, zer ikusi. Geroenean, nere fiñ azkenekoa nere Jaungoiko guztia bera da.

Ta Jaun andi au beti ikusi, ta beti alabatzeko, berak egiña nago ni? Bai. Ai ene bada! Ta onelako bere ditzaz konturik egin ezduenak zer mereziko du? Lurreko ona, ona esan albadedi, ta ez desbentura, ber Jainko egiazko On guzia, ta on guzien gañekoa baño naiago duenak, zer mereziko du? Zer kriatura, ezer ez utsa, ta denbora gutxian Zu guzien Kriadorea betiko baño, gozatu naiko lukeanak? Ta orren lotsagaberik, ta lurreko gauzak Jainkoa baño geiago estimatzen dituenik iñor ote da?



Balanza batean Jaungoikoa, ta gauza billau bat paratu, eta ori artu, ta Zu, nere Jaun, ta Ondasun guzia utziko zaituenik? Ai, ta zenbat, Jauna! Zuk dakizu ondo. Ai ta nik ere ori egin det?

Ai nere ditzagabea! Non zan nere fedea, ta legea? Abereak baño abereago egin naiz. Zeruak, eta lurra enzun ezazute: añ lotsagabe, añ itsua izan naiz, non da nere Jainko, ta nere Aita onari onelako grabioa egin diodan? Au egin duenak zer merezi du? Nere kastigurako milla infernu asko ezdira. Ai nere Jauna, ta zure begietan zer lotsa daukadan. Ai, ta nola begiratuko dizut? Ametsa, ala egia da au? Ai! Egia, ta ziertogegia! Bada nere bizi guzian, Zu ofenditza baizik egin ezdet.

Erraz, Jauna, ta arrazoiak keja zaitzke nizaz, ta niri esan: Ni onela tratatzeko, zer gaitz egin dizut Nik? Ezerezetik atera, ta zerana egin zindudan, eta aldatekean azken fiñ altuenerako, edo zerurako: len, orañ, ta beti, nere eternidade guztitik amatu zaitut: eta zuk orrela eranzun didazu? Esker, ta pagu ori ematen didazu? Zure ditzarik andienaren igesi orrela zabiltza? Ai nere itsua! Ai nere zoroa! Ai ta gaitz onen gañean odolezko negarrak emateko, iturri bi, nere begiak nork egin litzakean!

Ai! zurekin det, nere biotza: zurekin nere anima! Zeren onela utzi, ta desanparatu nazun, zure keja naiz. Zer zorakeria egin dezu? Zer atrebimentu da au onen arrigarria? Jauna, miseriakordia nizaz. Miseriakordia arren, Jauna. Nere erremedioa zugan dago: zugan nere esperanza. Zure miseriakordia andiaz usaeza, niri nere pekatu, ta zure ofensak barkatzeko. O nork biotz guztitik, ta zeruetarañoko deadarrak esan, ta barkazioa eska lezakean! Barkazioa, bada, Jauna, piedadea nizaz, barkazioa.

Ea zeruko Aingeruak, ea Santuak, lagun zadazute, ta deadar egizute: lastima, Jauna, miseriakordia: Jaun piadosoa, barkazioa pekatari itsu galdu onenzat, zeren zer egin duen, jakin ezduen. Zeruetako Erregiña, Jainkoaren Ama, Birjiña Ama, ta pekatarien Ama gozoa: bitarteko jarri zaite, eskua arr-ezazu, eta ondoen dakizunak bezala, zure Seme maiteari barkazioa neretzat eska zaiozu. Ea Santu, ta Aingeru guziak, zuen Erregiñaz batean: barkazioa, Jauna, anima galdu onenzat.

Ea nik ere zuekin batean animatu, ta deadar egin dezadan. Miseriakordia, Jauna, nizaz, zeren nere kulpak ezagutu, ta Zu ainbeste ofendituaz damu dedan. Ea, Jauna, ez nik merezi dedan bezala, baizen zure Ontasunak eskatzen duen bezala, nerekin egizu, ta indazu argia, Zu billatu, ta arkitzeko. Zeruko guziak esa bezate: *fiat, fiat*: izan bedi, ta egin bedi. Zure aotik, enzun dezan, Jauna: izan bedi: ta zuk nai zuna egin bedi. amen.

BIGARREN KONSIDERAZIOA

Zeruko glorian Jaungoikoaren edertasuna beti ikusi, ta gozatzeko ni izanik: ditzori izango dedan, edo ez, dudan nago. Ai! Ta ori baño geiago! Zierto nago, ikusi, ta jakiñaren gañean, ori galdu nai izan dedala! Erreal gutxiren promes bat, orren erraz galduko eznuen, Jauna, nola zure gloria gozatzeko Zuk niri egindako promes andia galdu nai izan dedan! Baña zer diot errealka? Txanpon gaisto bat orren erraz emango eznuen. Ta txanpon bat, Jauna, Zu baño geiago estimatu det? Ta kuarto bat galtzea, geiago nik senti dezadala, Zu, nere Zorion guzia, galdu izana baño.

Ai au lana! Ta zer dakit beñ galdua berriz kobratuko dedan! Edo nere zorakeriaz fin ditzoso ori betiko galduko dedan! Ta nere onra galdua kobratzeagatik nik zer egiten det? Baña, zer egiten ezdet? Ta nere animako kalte onen andia ikusi, ta jakin nere Jaungoikoa galdu dedala: ta zer egitea konbeniko da? O nere Jaun ona: Zu arkitzeagatik guzia galduko det pozik. O zorineko guzien Ondasuna! Prest nago, Jauna, munduko ondasun, interes, atseginak, ta nere onra, ta bizia galtzeko, Zu bakarrik irabazteagatik.

Ah! Beste gauzak billatu, ta erioza arkitzen det: Zu billatu ta nere bizia arkizen det. Zu bakarrik, Jauna, Zu, ta ez besterik, nere egiazko onra, ta gloria bizia zera. Zu bakarrik nere guztia, ta guztizkoa zera. O Jauna: zurekin dagoena, zeñ aberatsa dan: eta Zu gabe, munduko aberatsena ere zeñ apoita galdua dan! Ez, Jauna, lurreko gauzakagatik, orañdaño bezala, Zu galdu nai etzaitut. Itz au kunplitzeko, ta biziera berri santu bat egiteko, arren indazu grazia. Amen.

IRUGARREN KONSIDERAZIOA

O Zeñ ditzosoa dan Justu, ta Santuen suertea, bada Jainkoa beti ikusten, ta gozaten daude aren glorian! Au nolabait arrasteatzeko, kontu dagidan, Zeruko Korteak, eta an Espiritu, edo Anima zorionekoak gloriaz, ta kontentuz beterik ikusten nagoela: gero fediaz begiratuko det, ni aien lagun izateko, ta aien artean egoteko Jainkoak egin ninduela. O zorionekoak! Mundu galdu oetako ondasun guziak baño zenbat geiago zuen ditzazko suerte orrek balio du? Lurreko Errege guzien aizezko anditasunak egiazko zuen orren aldean, zer du ikusi? Ta orañ zuek zer deritzatzu-



te, zuekin batean or egoteagatik batek egin lezakeala? Emengo neke, ta alegin guziak, egiaz ezerez dirala, arrazoiak esango didazute.

Zuek bada ondo badakizute, Jainkoak niri egin didan mesedea: eta nik nai badet, betiko zuen lagun izateko egiñik naukala. Ta ditxa au zenbat nik estimatu bear nuen, ta estimatu bear det? Esazute. Baña ai nere ditxa gabea! Estimatu bearrean, ori añ erraz galdu det! Ta ez Erregeen, ezpada Satanasen esklaboen suertea, zuena baño naiago izan det! Suerte batetik bestera orrenbeste dijoala, nere pekatuakin ditxa ori galdu, ta desditxa guzia artu det! Zenbat aldiz au enzun det, ta alerik sentitzen ezdet!

Ta nik erakeria ori egin, ta penaz iltzen eznaz? O itsutasun arrigarria! O arriak baño sortuago zeran nere anima! Zer egin dezu? Esazu, albadezu. Zer egin dezu? Baña nere zorigaistoa, ezin adierazi! Ai zer utzi, ta zer artu det? Zer galdu, ta zer irabazi det? Arri zaitezte: zeruak, eta izutuak bezala, zorakeria oni begira zaiozute. Zeruko bidean zoazten guziak ondo ikusi, ta esadazute, nere damugai onen antzekorik, edo dolore onen parerik ote dan?

LAUGARREN KONSIDERAZIOA

Ea bada, nere Egille, ta Jaungoiko ona! Kontuetan sar gaitean. Nigandik zer naizu? Nik Zu alabatzea, serbitzea, ta amatzea? Nerea da ditxa. Ori Aingeruen ofizioa da. Ta ni lurreko ar, edo arrastakako abere au onra orretaraño igo nai nazu? Egiteko andia, ta zor justua da ori. Baña, Jauna, dakuskun, orañdaño nik zer lan egin dedan. Aingeruena, ala aberatsena? Ai ene! Abereena baño ere gaistoago: bada, demonioen ofizioa zurekin egin det! O zure pazienza neurrigabea, ta nere zorakeria eragabea! Nola sufritu nazu? Zuk, zeran bezala, Jauna nerekin egin dezu.

Nere tratu, ta bizierak Aingeru, Ta santuakin izan bear zuen, ta debruakin izan da. Nere bizi guztia zu ofenditzen igaro da. Ai! nere desditxa guzien ondaretik nere Jainkoari deadar egingo diot: Ea miseriordien Jauna, nere deia enzun ezazu. Ez arren nere kulpai begiratu. Oriei begiratzin badiez, galdua naiz. Nor zuri itzegitera atrebituko da? Zure Ontasun, ta piedade ondo gabe orri begira zaiozu: ta nere kulpaz sartu, ta ondaturik nagoen leizondo onetatik atera nazazu. Emendik aurrera, ematen dizut itza, nere biziera berri guzia, Zu alabatzea, Zu biotz guztiaz serbitzea izango dala.

BOSTGARREN KONSIDERAZIOA

Nere anima, zer kontu da au? Nere azken fin, edo zeruko gloria alkanzatzin ezpadet, zertan geratuko naiz? Jakinña da: betiko infernuan. O zer fin bi, edo kabuak! O zeñ elkarren urrutiak! Ta bietatik bat bear dala! Fin zorionekoa nere pekatuaz galdu det, ta barkatu zadan jakin ez. Bandera destolatuaz, ajolakabe, korrika, ta egaka bezala, nere desditxarako ibilli naiz. O zer egin det! O Jesus nere! ta nere burua galtzeko zeñ gogotik ibilli nazan! Fin oien artean orrenbeste dijoa: ta bata, edo bestea izan bear da: ta ni añ erreparogabe, besoak zabaldu ta nere kalte, ta betiko eriotzara joan izanaz! Ai, Jauna, ta zenbat bider, ori ondo dakidala!

Ta orañ nizaz zer izango da! Nere kulpak barkatuak diran badakit? Ez. Bada nola nagoke soseguz? Nola zeruraño deadar egiten ezdet? Zerua seguru baneuka bezala bizi naz? Ai! Zerua, edo infernua izan bear, ta zer izango dedan jakin ez! Zerua galdu, ta infernuratzen banaz, zer izango da nizaz? Urte, edo denbora gutxiren buruan, zer suerte dedan, jakingo det. Nola soseguz lo egin dezaket? Nola lurreko gauzarik nai, edo billa dezaket?

Zer? Peligro onetan nagoela, munduan zerbait baliatu, paper egin, zerbait jakin, atsegin artu, jan, ta edan, gizonai ondo iriztea, onra, ta estimazioa gogoan artuko det? Ai! Zer peligrotan nago, ondo begiratzin ezdet! Ah nere Jaungoiko! Nere desgrazia guziaren berri Zuk ondo daki-zu. Misericordia, Jauna nizaz: ta arren zure argi bizi bat indazu, zeruko ta infernuko eternidadeaz ikaratu, ta bizi berri bat ar dezadan.

SEIGARREN KONSIDERAZIOA

O Nere Jaungoiko maitea! Zure gloria betiko nik izan dezadan, Zuk zer egin ezdezu? Zeruak, Eguzkia, ta ainbeste gauza onetarako egin ziñituen: lurrean janaria, janzia, ta beste bear diran gauzak eman dizkidatuz: Aingeruak Mandatari, ta lagun, Santuak bitarteko, eta oriekin batean inspirazio, edo barrengo argi, ta deseo onak, ta kanpotik ejemplo, koneju, ta mirari andiak. O Jaun amoroso! Ta nor, edo zer naiz ni, zerura ni eramateagatik Zuk orrenbesteko egiteko? O ta ni ara joateko Zure Ontasunak zenbat egiten duen! Ta ai nik zeñ gutxi egiten dedan!



Kriatura guziak deadarrez dagozkit: nere animaz begira dezadala, nere fin zorionekoa billa dezadala: eta ni lotsarik gabe guziari añ gorra! Gauza guziak, Zu nik amatzea, nai dute, otsegiten, ta laguntzen didate: baña ori egin bearrean, ni oriezaz gaizki baliatu, ta orietan nere fin, ta zoriona balego bezala, Zu ofenditu zaitut. Ai zer esker gaisto itsusial Barka zadazu arren, Jauna, zeren itsu jakiñez bat izandu naizan: nere begiak ondo argi itzatzu, Zu obeto ezagutu, ta lurrean ikusten ditudan kriatura guzietatik zugana zuzen igo nadin.

ZAZPIGARREN KONSIDERAZIOA

Jainkoak nere salbazioa ainbesteraño deseatu du, non da bera Gizon egin, ta Gurutze batean, ta lapur biren artean bere odola, ta bizia desonra, ta pena andiakin eman zuen. O nere Jesus guzizko maitagarria! Ta amorio onegatik nik zer zor dizut? Ta zugan ori ikusi, ta nere burua salbatzeagatik zer egin det nik? O! Zer egin? Alegin guzia, nere anima galtzeagatik. Dakuskun, bada, orañ, egiteko au norena dan, edo nori, ta zer dijoakio? Ta niri zer dijoakit? Ai Jauna, ta zenbat niri dijoakidan? Guztia, ta izanal guzia. Buru, ta fede gabe ibilli naz. O Jauna, ta nere begiak argitzen bazindu, nik ori ondo ikusteko, ta orañdañoko kalteak ezagutu, ta aurrera, zuk nai-zun bezala, nere salbazioa, bizimodu santu batekin biotz guztitik billatzeko.

Ea bada, lurreko gauzetatik bereala, ta betiko despeditu nai det, nere azken fiñ au alkanzatzeko laguntzen ezpadidate. Lo egiteko denbora ezta au, baizik neregana biurtu, ta kontuz ibiltzeko. Zuri, nere Jesus ona, jarraitu bear dizut. Zure Bioz guziaz nere salbazioa nai dezu: bada nik ere nai det: ta mundu guzia galduko badet ere, orrekin irten bear det.

Zu, Jauna, ni salbatzeagatik, desonratua izan ziñan, bada ona niri ere edozeñ desonra eramateko prest, ta pozik, kondenatu eznadin. Zuk pena, ta dolore andiak igaro ziñituen: ona bada ni ere Zuk nai-zun guzirako. Beste gaistorik nai ezdet, zuri gusto ematea baizen: lurreko gauzetan konsuelorik nai ezdet, baizik bakarrik zugan. Zu zera, ta beti izan bear dezu nere Aita, nere Jaun, ta Jabea, ta nere ondasun guzia.

ZORTZIGARREN KONSIDERAZIOA

O Nere Jaungoikoa! Zure gloriako fin au seguratzegatik Santuak zer egin zuten? Ta nik zer egin det? S. Agustin batek, zerurako Jainkoak egin zuelako mesede au zenbat estimatzen zuen? Lurreko gauza, ta kriatura guziak ezertan etzeuzkaten. Ta S. Pablo batek? Diranak basa edo zimaurrea bezala: argatik lurrean bizi zala, bere tratu, edo konbersazioa zeruan zeukan. Ta bitartean ni ditzagabe au bizi, edo pekatuen loian sartua, ta zeruko ondasunaz añ aztua! Beste batek au egiten balu, nik zer esango luke? Buru gabe, ta zoro anditzat idukiko nuke.

Bada ai nere itsua! Bestek gaizki egingo lukeala juzgatzeko diña buru badet, ta nere gaitza ikusteko diña ezdet! Zer nai det, bada, edo zer estimatzen det? Nola, edo zer da au? Jainkoak bere Seme egin nai nuela, ta ditzarik andien onetara konbidatzen nauela: ta nik Satanasen esklabo izan naiago dedala! Alafede Erregeren Seme izatera deituko banindute: zer kontentu, ta poza! Ta ala izatearren, ta Jesu Kristoren glorian eternidade guzian parte idukitzearren, zer nik egitea ondo izango da?

Baña orañdaño zer egin det? Ai ta gloriak, ta onraz beterikako nere fiñ ori zeñ gutxi estimatu dedan! Badirudi, fedeko egia andi au sinisten ezdedala: ta amets, edo ipui bat bezala ori guzia artzen dedala. Ah! Nere obretan beñzat ala erakusten det! Ez, ez, nere Jauna, Zuk erakutsitako egia au ondo pisatu, ta berriz, ta berrito onetan firmetu nai det. Ea bada, kontu, ta begira ondo: Jainkoak bere Seme egin, ta beti izateko, nauka ni? Bai. Denbora etorriko da, ta laster zeñean, orañ ni bear bezalakoa banaiz, Aingeru, ta Santuakin batean, atsegin, kontentu, ta gloriak beterik Jainkoa gozatzen egongo nagan.

O egun ditzoso ta zorionekoa? Ta orren ditzax andiaren begira nago? Bai, ta ona banaiz, agindurik seguru daukat. Ta nik ori billatzea, ta gozatzeta nai du? Bai. Ta ori alkanzatzeko ezbadet, kondenatu, ta infernuko tormentuetan egon beariko det? Bai. Ta orregatik ere ajola gabe lo egiten det? Ah! Nere etsaiak ori egiten ezdu, ta nik bai? Nondik infernura ni eramango nauen errebertatzen, edo desegiten dabill: eta ni, ez nola nai, lo pisuan, orrez azturik; ez bada auno egiten, ta iltzen ainbeste urtean, infernura zier-to bota, ta ondatzen nauten deseo, ta gusto txarrak kunplitzearren!

O arrigarrizko desditzax paregabea! O Jaunaren piedade oetan, ta onela gorde nauena! Bada kalte, ta peligro andi ori kendu, ta zerua irabazteko zer egin bear det? Santuak zer egin zuten? Munduarenzat, eta beenzat ill: nekeak, penak, desonrak, tormentu, ta eriotzak pozik zerua-



gatik artu. Denbora gutxi batean, bada, orobat zergatik nik ere egingo ezdet? Ai Jesus guziz ona! Argi andi bat nere biotzean indazu: zure indarrezko grazia betor, Jauna, zugatik mundu guzia utzi, ta nere burua uka dezadan, onra, ta gustoenzat illa bezala, zuretzat bakarrik ta zurekin, zure grazian beti bizi nadin. Amen.

PEKATUEN GAÑEAN: EDO PEKATUA BEREZ, TA BREGAN ZER DAN, EZAGUTZEKO KONSIDERAZIOAK

LENENGO KONSIDERAZIOA, TA AFEKTOAK

Zertako Jainkoak egin ninduen ezagutu, ta igaro bear det, nere azkeneko fin, edo ditxa onen kontra nik zer egin dedan ikustera. O nere Jaungoikoa! Zenbat pekatu, Jauna, zure kontra egin izan ditut! Ta baldin kulpa bakar bat ikara eragiteko sobra bada: zer izango dira aibeste, ta añ pisuak, nola nereak diran? O nola karga eragin baten gisan, guziak ondutzen nauten! Milla errota arri nere lepoan lotu, ta itxasoaren erdian botako banindute, zer pena, zer naigabea artuko nuke!

Nere burua dakust, Jauna, zure aurrean, ezin kotatu ala pekatuekin, ta arri andi guziak baño geiago pisatzen dute, ta ya infernuko itxaso kabu gabeen ondatzen naute! Ai nere Jainkoa! Kargadi pisu onetatik nola libratu, ta gora igo naiteke? Ken arren, Jauna, zure amoregatik, ta nere pekatuen soka, ta amarra nastu oiek askatu, ta autsi itzatzu. Ai ta nere animako katea oiek puskatu, ta desegiñik noiz ikusiko ditut? Nere boitzeko atsegiñaz noiz esango dizut? Nere loturak urratu dituzu, Jauna, ta nik alabanza, ta esker onen Sakrifizio emango dizut.

Ea, Jauna: izan bedi laster: bereala, bertatik libra nazazu, zure izen santuagatik. Baldin Zuk laguntzen ezbadidazu, ezin libratu, ta Zugana igoko naiz. Miserikordiazko Ontasuna bera zera: zure esku indarsu ori laster indazu: bestela galdua naz ni. O zeñ estu, ta zer itotzeko zorian nagoen! Ai Jauna! Tranze onetatik libratzen banazu, desditxa onetara geiago munduko gauzakgatik ez ni biurtu. Zure miserikordiak etxeden dit, ta ez alperrik, ezpada ni libratzeko. Ea bada, penitenziako bidera beñ edo beñ gaitz onetatik atera nadin, zure grazia indazu, Zu gogotik billatzeko, ta biziera Santu batez arkitzeko.



BIGARREN KONSIDERAZIOA

Eri, edo gaso triste batek zer naigabea izango luke, ber burua legezenez, edo leparaz, ta gaitzaldi guziaz beterik, ta biotzerañoko puñaladaz josirik ikusiko balu? Eri au nor da? Ni: bada burutik oñetara guziak lepraz, ta gaitzez betea nago. Ai nere anima triste! Ezdautsu, nola zauden? Zure pekatuak nolakoa, eta zer peligro andian paratu zaituzten ikusten ezdezu? Nere buruaz ni erruki ezbanaz, nor izango da? Kaleko edozeñ zakur ogei edo berrogei estokadaz josirik ikusiko banu, lastima eman-go lidake: ta nere anima orrela josi ta galduaz lastimarik ezdet? O gaitz guzien eragiñena! O modorra guzien pisuena!

Nere Jaungoikoa, au zer da? Nere Erredentorea, Zugana biurtzen naiz. Eri bat, zenbat eta etsiago dagoen, anbat obeto Medikuaen jakintasuna erakusten da. Beste asko baño, onelako eri bat kuratzea, onra andiago da. Nere Mediku bakarra, Zuk ni kuratzea, zure gloria andiena da. Nere gaitza baño andiagoenzat ere zure Biotzeko botikan, ta zure llagae-tan erremedio seguruak dituzu. Zure odol preziosoaren Jainkozko balsamo orren tanta bat nere gañera betor, Jauna, ta egiña dago guztia: nere anima bereala sendatu, ta garbi garbia geldituko da. Onetarako añ liberal, ta lurrerañ ugarri isurizen duen. Tanta bat arren niri indazu. O zer gogoa, zer ansiak ori artzeko dauzkadan!

Ai Jauna! Ta baldin zuk zerorrek badiozu, pekatu barkatuen ere bildur izan bear gerala, edo orien bildur gabe ez gaudela, nereak barkatuak diran jakin gabe, nola bildur izango eznaz? Ta are geiago dakidala, itxasoko ondarrak baño, nere pekatuak geiago dirala? Ai bildur naiz, ta are bildur geiago iduki nai nuke! Ai nere pekatuen, ta infernuaren bildur naiz! Ea bada, Jauna: Zu eskas, ta urri etzera: ta ondo eskatzen zazun guzia eman nai dezun, ta ematen dezu. Nik zure izen santuan erremedioa eskatu ezker, seguru nago: ezin ukatuko didazula. Senda nazazu, Jauna, ta salba nazazu.

IRUGARREN KONSIDERAZIOA

Baldin Persona ofenditua zenbat andiago dan, ofensa ere andiago bada: Ai nere, Jaun andiena, ta egiaz Jaun bakarra! Nere pekatu, edo zuri nik egindako ofensak zeñ andi arrigarriak izango dira? Au obeto edo nolabait zuk aditzeko, aldezun Ondasunik aundiena zure erara pens-

ezazu: doblaz areago, ta andiago Ontasun ori berriz ta askotan egizu. Lauso, edo pits airean, ta ur tanta itxasoan diran baño geiagotan, eta askoz andiago Ontasun andi ori dala. Jakizu bada, orañ, Ontasun zuk pensatu al ori guzia, gure Jaungoikoaren Ontasun, ta Aunditasunaren aldean, ezer ezdala, zeren Jainkotasuna fiñ, edo kabugabea dan. Santu ta Aingeru guziak jakin, ta alkanzatzan duten guzia, Jaunaren aldean beti txit gutxi da, ta izango da.

Ta nere Jaun orren guztizko Ona nik ofenditu det, ta añ aisa, ta ainbeste bidet? Bai. O nere itsua! O zer gaitz eragabea egin dedan! O sekulan orrelako lanik egin ezbanu! O nere Jaun guztiz Ona, ta Ondasuna bera! Damuaren damuz zer esan, ta zer egin ez dakit. Zu ofendituz, Jauna, damu det biotz guztik: ta ez infernuaren bildurragatik, ta ez zerua galduagatik, ezpada zure Ontasun fingabeagatik, det damu. O amorezko damu garbi edo nasgabe, zure Ontasunak ainbeste nai, ta estimatzen duena! O amorez ill arteraño nere biotzaren erdian, ta beti nik ori banu! Ah Jauna, zure Ontasunagatik niri ori indazu. Bada nigandik ori nai-zu: nik zugabe ezin det, ta zugandik bear det. Zure Izen santu, ta amorezko Ontasunagatik, amorezko damu ori indazu. Pekatua ill bedi, ta ni ere bai pekatuarenzat: munduko gaitzik andiena bezala nere biotzetik sekulako ken bedi, ta zure grazia nigan beti bizi bedi. Amen.

LAUGARREN KONSIDERAZIOA

Lurreko txingurri, edo ar txiki batek, buruaz zerurañ allegatzen dan Jigante batekin zer du zer ikusi? Jesus, ta zer bidastia, edo distanzia! Orañ bada nigandik Jainkoagana zenbat dijoa? Ni zer naiz? Autz puska bat: lenago ezer ez: ta laster arren janari, ta lur biurtuko naiz. Ta autz puska bat Jaungoikoaren Aunditasuna ofenditzera, ta gaizki tratatzera atrebi dedilla! O! o! Nik zer egin det? Ta ni onela sufriztean, Zuk, Jaun andia, zer egin dezu?

Baña ai! Lurreko autsari bezala, nere buruari begiratzean, mesede geiegi egiten diot! Pekatuagatik ni zer naiz? Ezerez baño ere gutxiago: infernuko penak eramatera obligatu, ta Satanasen katibu egiña. Ta Santu, ta Aingeruak adoratzan duten Jaunaren Majestadearen kontra ni atrebitu naz? O! Ainbeste milloi Aingeru, ta Santuen erdian, edo gañen, Jaun aundia, Zuri begiratzen dizut: Zure Majestadea ikusi, ta guziak ikara daude.



Zure Ontasun, Justizia, ta Poderea ikusi, ta beren alegin guziaz alabatzen zaituzte.

Oriek diranak ondo jakiñik, Zuk merezi dezunerako, millagatik bat ezin dutela deadarrez beti diote: SANTU, SANTU, SANTUA da EJERZITUEN JAUNGOIKOA: Bendizioa, argitasuna, esker-onak, onra, ta birtutea izan, ta eman dakiola Jaungoiko guziz Santu, justuari, fin gabe andiari, sekula guzieren sekuletan. Amen. Au esan, ta Jaunaren aurren auspez jartzen dira, ondo ikusirik aien guzieren egiñala baño geiago beti merezi duela.

Orañ aien aldean niri begiratu, ta nere ezerrz, edo autsa ikusten det: ta ah! Aiek Jauna, ala onratzen zaituzte: eta nik Zu ofenditu, ta munduko gauzarik billau-ena baziña bezala, oñ azpian erabilli zaitut! Jauna, arriturik nago, ta zertzaz geiago arritu, nik ez dakit: edo ta zure Ontasun, ta pazienziatz, edo ta nere lotsagabeko atrebimentuaz. O nola lurpetu ezazu, edo infernuan ondatu? Nola sufritu, ta etxeden didazu? Baña ez ori bakarrik: ni sufritea baño are geiago egin dezu: bada zure amorioaz otsegin, palakatu, ta erregalatu nazu: Zugana biur nadilla, ta artuko nazula erregutuaz niri deitu, ta esan didazu.

O nere Jaun amoroso! Ta zure amarez nola ni desegiten ezaz? Sekulan infernuri ezbalez ere, Zu ofendituaz damu det, ta damuko det, ta beti damu bear det: Eta Zu zeranagatik, ta zeren añ Ona zeran damu det Jauna: ta munduko gauza guziakgatik ez det nai zure ofensarik egin. O Jainko, Ontasun guziz miragarria! Ta nola sufritu nazu ni? Ainbeste desonra, ta alako desakato itsusiak nola ni bezalako ar billau bategandik eraman dituzu?

Aingeruak, onen gañean zer diozute? Jaunaren Ontasunaz, ta nere lotsagabetasunaz zer deritzazute? Zuek bada, zuek beti alab-ezazute: onra, ta gloria sekulako nigatik emaiozute, eta Jaun oni neretzat kulpa guzieren damu, ta biotzeko sentimentua didala eska zaiozute. Orañdaño egin dedan zorakeriaz, ta nik egin ditudan pekatuaz, nerau nago arriturik. O! Nola nik ori eginezakean! Ta Aingeruak beti ainbeste estimatzen, adoratzen, ta amatzen duten nere Jaungoiko guziz ona, ainbeste bider nik ofenditu det? Ta Jainkoak bera serbitzeko eman dizkidan alegin, ta sentiduaz, bera ofenditzeko baliatu naz? O miñgañ ditxagabe Jaunaren kontra itzegin dezuna! O esku madarikatu gaizegilleak! O zorigaiztoko oñ oker, ta pauso gaiztoetan ibilli zeratenak! Nere anima, nere biotza, zer egin dezu?

Ai nere Jainkoa, ai! Norgana biur naiteke, ez bada zure Ontasun, ta pazienza andiagana? Ea Aingeru, ta Santuak, barkazioa neretzat eska

zaiozute: Ontasun onen berri zuek ondo dakizute. Barkazioa, Jauna, barkazioa, ta pakeak betiko. Zu serbitzeko, ta amatzeko ematen dizut itza: nere gorputz, ta animaz nere kaltea orañ artean billatu dedan baño, askoz geiago, ta obeto Zu billatu, ta amatu nai zaitut. Emendik aurrera zugan beti, ta ez bestetan nere memoria: zugan, ta zure egia andi santuetan nere entendimentua: Zugan, ta Zu beti amatzen nere borondate guzia: zu alabatzen nere mingaña: zuri jarraitzen nere oñak: Zuk nai dezuna, edo obra onak egiten nere eskuak. alabiz, Jauna, ta ala beti egiteko zure grazia indazu.

BOSTGARREN KONSIDERAZIOA

Zuk, Jauna, ezerezetik, egin, ta naizan, ta dedan guzia Zu billatzeko eman didazu, ta beti ematen zaude, Zure esku poderosotik esekirik nago beti, ta Zu gabe, ez izan, ta ez puntu batean bizi naiteke. Au onela izanik, nola ni Zu ofenditzera atrebitu naz: eta are geiago pekatuari, gaitzik andienari bezala, Zuk diozun gorrotoa jakiñik? Arrazoi bakar au sobra zan, pekatu egin baño len, ni iltzeko. Ta arrazoi oni, bear bezela begiratzten ezbanion, nere probetxuari edolarik begiratu bear nion, ta zure eskutik ari batetik bezala zinzillik, edo esekirik nengoela.

Torre altu batetik, ta ari batetik esekirik gizon batek banenduka, bera ofenditzera atrebituko nintzake? Ez: ez egieki, ikusirik, zeñ erraz ari ori ark utzi, ta milla puska egingo nintzakean. Ta añ zierito dakidala, Zugandik zinzillika nagoela: Zu gabe, ez izan, ta ez ezer egin dezakedala, ta infernura erorten añ erraz Zuk utzi nazakezula: ta ez erorteko Zuk bakarrik naukazula: orregatik ere, Zuri ainbeste ofensa egitera, lotsa, ta bildur gabe, ni atrebitu izan naiz?

Ori baño geiago: nik ondo dakidala, ainbeste Zu sufritu, askotan, ta txit asko barkatu didazula: ta au guzia nik ikusi, ta orregatik ere, berriro Zu ofenditzera atrebitu naz? Ta Zuk ori guztia ere sufritu didazu? O nere Jaun guziz ona! O zeñ oa, ta gozoa Zu, ta zeñ gaizto itsua ni! Zure ontasun onek artzen, ta mobitzen nau, Jauna, ta orregatik nere kkulpa guziaz damu det. Ez arren Jauna, geiago Zu ofenditzen ni utzi: ez Jauna, ez: ill lenago milla bider. Zure argiaz, ezagu dezadan ondo, nola zure grazia, ta eskutik beti nagoen esekia, edo zinzillik: betor emendik, Jauna, nere biotzera zure bildur santua, penitentzia egiazkoa, ta bizi berri santu bat egiteko. Amen.



PEKATUAREN GAÑEAN BESTE KONSIDERAZIOAK, ETA JESUS GURUTZEFIKATUAREKIN KOLOKIO, EDO AFEKTOAK

O Nere Jesus maitea ta nere Salbadorea! Ai! Penaz, ta damuzko itxaso illun bat egiñik, nere kulpa, ta zure ofensakgatik egon bear nuke nik! Ai! ta orrela banengo! Oriek ikaraz bete, ta kasi deskonfiatzeraño ondartzen, ta itotzen naute! Itxaso onen jasa desegin, ta eraso andi onetan, nora biurtuko naiz, ezpada zure Gurutzeko portu segurura? Nere pekatuen esturak bildurtzen nau; baña Zuk ondo artuko nazula jakiñak animatzen nau. Zure penak bildur santuaz batera, esperanza ematen didate: bada guziak, ta pozik zure amorio esanal baño andiagoak, ni salbateagatik, artu, ta eraman zituen. O Jauna! Gurutze orretan zerk josierazo zinduen? Pekatarien amorio, ta erremedioak.

Beraz pekatarien erremedioa nai dezu? Bai. Ea bada, Jauna: ona pekatari andi galdu bat: erremedia nazazu: bada fin onetarako Gurutzan ikusi ziñaden. Ta ai zeñ erraz obra andi au Zuk egingo dezun! Ea, nere anima tristeari esaiozu: Zure pekatuak barkatzen zaizkitzu. Ta itz onekin, Jauna guzia egin dezu. Nere eskuan balego, bereala egiña legoke. Ta bada Zuk diozu, pekatariak edozeñ orduz, bere pekatuen damua duenean, oriezaz geiago akordatuko etzerala. Zuk, Jauna, ori ta guzia nerekin egin bear dezu, ta damu ori ere zuk eman bear didazu. Ah! Zeñ erraz ur garbia ardo gozo biurtu zenduen! Añ erraz da, zure Jainkozko su beroa nere biotzean irazakitzea!

Betor, Jesus nerea, zure Biotzeko suspirio: aize suabe, ta inspirazio argi bero bat: nigan sua irazaki bedi: ta ni zugana allegatu, ta burnia sutegian baño irazakiago irtengo naz. Eskua indazu, ta lagun zadazu zure Biotzeko amorearen sutegi biziaren konsiderazioan ondo sartzeko, ta burnia baño otzago ta gogorrigo banago ere, or berotu, ta berautuko naz. O Sugar amorezko onek nere biotza nola biguntzen duen! O nere gela nola erazakitzen duen! Ni pekatutik libratzeagatik Zuk ainbeste egin, ta nik pekatua naiko det? Ez erren, Jauna, ez: lenago ill nai det. Gorrotorik aldedan andiena pekatuari, zure amorioagatik, betiko artzen diot. Ori, Zuk nai dezun bezala, egiteko, ta Zu nere biotz guztitik amatzeko grazia indazu.

Ez arren, Jauna, geiago aserratu: orañdañokoa zure Pasio, ta Eriotzagatik barkatu, ta zure amorean gorde nazazu.

BIGARREN KONSIDERAZIOA

O Nere Jaungoiko, ta Jabe bakarra! Zu añ Jaun andi, justu, ta santua izanik, Gurutzean orrela josirik zergatik, nor, edo zerk ifiñi zaitu? Esango didazu, Jauna, nere pekatuakgatik. Ai! Nere kulpak Gurutzean josi zaituzte? Bai. Oriek orrenbeste tormentu gogor eman dizute? Bai. Oriek kabuan bizia kendu dizute? Bai. Ai nere Jesus ona! Ai nere Aita, ta Aitarik onena! Milla bizi, albanitu, nik zugatit, ta Zu amorezko, eman bearean, Zu Gurutzean josi, ta ill zaitut? O borrero gogorak! o pekatu madarikatuak! O milla bider lenago ill baninz, zuek ez egiteagatik, ta nere Jainko maitea ez ofenditzeagatik! O pekatu nere biziaren eralleak, ta zeñ erio, ta arerio garratzak zeraten, ta nere gorrotorako beti izango zeraten!

O nere kulpak! O zorigaiztoko nere lanak! Zuek nere Jesus ona onela tratatu, zuek nere Jauna gurutzean josi, ta ill, ta ni bizi naz? Au ikusi, ta negarrez urtutzen, desegiten, ta iltzen ez naz? O Jesus nere kulpakgatik, ta nere amorez illa! O miserikordia guzien iturri ugaria! Zu zeranagatik, arren barka zadazu: ta nik, Jauna, nik zure graziarekin, nere kulpa guzien penitentzia, ta oriei dagokien kastigua artuko det. Ah gorputz traidore orrenbeste Jaunaren ofensa, ta nere kalte ekarri, ta eragin didana! Onek egin duena, onek paga dezala. Nik oni zure bildur santua sartuko diot, ta merezi duen bezala, nik dana guzia, bere griña, ta gogo gaiztoakin kruzifikatuko det. Ea esklabo billau, ta pekatuaren mendeko orañdaño izan zera? Bada orañ zure damu gorrian, kastiguaren mendeko izango zera.

Zure naiak egin dituzu orañdaño; bada orañ nai, ta nai ezdezula nik estutu, ta arraian sartuko zaitut. Nik janaria tasan, ta Jainkoa serbitzeko bear bear dana emango dizut, ta ez geiago: ta ori ere ez zuri gusto emateagatik, ezpada Jainkoak agintzen, ta nai duena egiteagatik: nik loa ere neurrian, ta ezin geiagoan emango dizut, ta ez orañ artean bezeñ lasai, zeren merezi ezdezun.

Ea nere mingaña: nik Jaungoikoaren bildut santuaren freno eman-gotiko dizut, lotu, ta ixillago egoteko: kontuz, ta ikusiagorik, ta ondo begiraturik itzegin bear dezu: nere eskuak, zuek ere, obra onak, ta Jaunaren borondatea egiteko ezpada, lotuak, ta illak egon bear dezute. Ea nere



begiak, ta orietatik datozen, ta biotzean jaiotzen diran pensamentu loiak: zuenak egin du: zuek, ta beste sentidu guziaz illak bezala moldatu, ta modestiaz moderatu bear dezute. Ea gorputz lasaiegi, ta aisa aisa zure gurari gaiztoetan orañdaño lege gabe oitua: ya abereen gisako libertade eragabeak joan, edo akabatu ziran. Etzera ez geiago zureaz irtengo. Jainkoaren borondatea bakarrik guzian egin bear degu. Ai, Jauna, nere igaroko bizi galduaz lotsa naiz: propositu berri oiek ondo gordetzeko zure grazia indazu.

IRUGARREN KONSIDERAZIOA

Nere Salbadore guzia amoriozkoa! Zure Majestadeak iñoren ere bearrrik etzuen. Zu zeregan guziz aberats, ta zukan guzian dezuna zera. Zu Jaungoiko, ta Espiritu aundi, guzia betetzen dezuna zera: ta ala Aingeru guziak adorutzen, onratzen, ta alabatzen zaituzte. Eta Zu ezin illko zera-na, ta penarik ezin eramango dezuna izanik; nere animagatik, gorputza artu, ta illkor, edo mortal egin ziñan: gizon egin, ta tormentuak, Pasio, ta eriotza nigatik eraman zenduen. O zure amorio miragarri, eragiñ, geiegial Onegatik bakarrik, milla biotz, ta milla bizi banitu, guzia zor dizut.

O nere Jaun amoroso! Ta Zuk niri didazun amorioa onenbeste-rañokoa izan dedilla! O anima nerea! Jaungoiko fingabe, edo infinitoak onenbeste zu amatzea baño, zer gauza andiagorik? Ala fede erraz emandik aterako dezu, zu gauza andia, ta zuk uste baño estimagarriago zerala. Jauna, ta zuk, eta niri onenbeste amorio? Ta au guzia, Zu zerana izanik, ni onela amatu, ta ni zure etsai nintzala. O! o! o mirari paregabe! Onelakorik deseatzera, edo gogoan igarotzera nor atrebi? O konsuelo parerik eztuena! Besteak nai dutenean konsola, ta gloria bitez; baña nik zukan, nere konsuelo, ta gloria bizia.

Zure Gurutze orretan erakusten didazun amorioan nere egiazko konsuelo guzia. Or, zure odol guzia emanaz, esaten didazu: orra, anima galdua, arr-ezazu nere odola: ona ni guztia zuretzat: geiago bear baliz, guzia emango nizuke. O liberaltasun guziz eragiña, ta geiegial O nere gloria, ta konsuelo! O ontasun, o amorio! O nere Jesus gozo! Nik nere burua baño. Zuk ni geiago amaten nazu. Zuk ni gatik adiña, noiz nigatik nik egin det? Zugandik bada, zer usteko ezdet? Zukan seguru daukat guzia.

Nere Aita, edo Amagan balego, fiatuko eznukean gauzarik ote da? Ez egieki. Ta ori, ta nai dedan guzia nere eskuan balego? Gure esacran, ezin geiago eskatu, edo desea liteke. Bada, o ditxa! Egiaz ori, ta are gei-ago, ta askoz obeto, nere zeruko Aita, ta graziaren Jabea, nizaz baño ere, zuzaz obeto fia naiteke. Ala fiatzenaz, zeren geiago, zer du zer ikusi? Zuk niri, nik nere buruari baño, nai didazun. O! Emendik aurrera nola konfianza guziaz zugana biurtuko nazan! O nere gauza guziak nola zure kon-tura utziko ditudan! Ta nerera Zu serbitzea, ta biotz guztitik amatzea nola artuko dedan! O Jesus nerea, ta guztia nerea, ta nere nereago, ni nerau neretzat baño! Munduko gauzetan partetik nai ezdet, ezpada zukan guztia. Zu zera nere parte, ta nere guztia: Zu betiko nere biotzeko Jaun, ta Jabea.

LAUGARREN KONSIDERAZIOA

O Nere Salbadore, ta amoriozko ispillu ederra! Zenbat eta zuri Gurutzean begiratuago, anbat amorio andiago. O nere osasuna: Zuri begiratzea ezdezadan beñere utzi. Bearrean banago: zuri begira. Lotara banoa: an ere zuri begira: nere ametsak ere zure amorian beti: ta zikoitz, edo abarientoak ondasunetan nola ametsak egiten dituzten: nik ere ala nereak zukan; zeren munduko urre, ta ondasun guziak baño Zu geiago, ta obeago zeran.

Gurutzean zure dolore ta penai begiratu, ta orietan, Jauna, zure amorioa dakust. Zure buru, esku, ta oñetatik, ta gorputz guztitik ixurtzen dan odola ikusi, ta zure amorioa or dakust. Zu eranzia, edo soñeko gabe, lotsa andian ikusi, ta zure amorioa or ikusten det. Baña ai! Ori guztia amorio añ andia izanik, ur tanta bat itxasoan aldean bezala da, kanpotik ikusten dan zure amorioa, barrengoaren aldean! O nolakoa izango ote da zure amorezko, ta ondo gabeko itxaso ori!

Zure barren, zure Biotzeko sekreto onetan gu sartzea nai dezu: au da zeruko, ta Jainkozko ardoaren bodega: ondo guzizko gozo, santuen gisa orditzen, edo enbriagatzen duena. Arren, Jauna, ardantegi onetan sar nazazu; bada, ni sartzeko, Lonjinosen lanzadaz, zure Kostadu, ta Biotzeko atea idikitzea nai izan zenduen. Egia da, Jauna, eznaiz diña or sartzeko; baña edolarik ateronz allegatzen uztazu, likore txitez prezioso orren usaiaz nere biotza anima dedin. O zer usai erregalatu! O nolako espiritu, ta indarra ematen duen!



Zure Biotzeko amorio au, Jauna su gar bizi bat da, ta nere oztasuna berotzen du, nere biotza erretzen, ta ariñ gora, zeruko gauzetara igotzen du. Zure amoreaz arritzen nintzan len, zeren zure odola, ta bizitza emateraño enpeñatu zinduen. Baña orañ geiago arritzen nau zure barrengo amorio, nere biotza airean zugana daraman orrek. Ta gogotikago ni erakartzeko, esaten zagozkidala deritzat: O! Ni zugatik beñ ill nintzan, baña zure erremediorako bear baliz, eun bider Ni iltzea, nere Biotzak amorioa du guztirako.

O nere Jaungoikoa! Ta amorio onegatik zer zor dizut? Zer egin bear eznuke zugatik. Zeñ obligatua nagoen Zu bakarrik amatzera! Ta al-banu, amore infinito, edo neurri gabeaz Zu amatzera! Baña ai! Amatu bearrean; alde guzietatik, ta al-egin guziaz ofenditu zaituenegatik, nik zer esan dezaket? Eskergabe itsusiagorik sekulan aditu da? Ori egin duenak, zer merezi du? O Jauna, zer egin dezu Zuk, ta zer egin det nik? Nola amatu nazu, ta nola amatu zaitut? Ah merezi nuen Jauna, kriatura gguziak nere kontra biurtzea, ta bengantza artzea. Egia da, ta aitortzen det.

Nerea da kulpa, ta kulpa guziz andia, ta itsusia. Orañ ezagutzen det, ta guztiaz, Zu ofendituaz, damu det. Milla bizitza banitu, diranak emango nituke, ori desegiteagatik. Zu añ ona izanik, Jauna, nik ofenditu zaitut? Biotz guztik damu det, ta geiago damutzea nai nuke. Ea, Jauna, igaroko guzia desegin bedi; ta kontu berriak, bizi berria, ta ez geiago pekaturako biderik. Lenago mundua, ta nere burua galdu, zu ofenditu baño.

BOSTGARREN KONSIDERAZIOA

O Nere Salbadorea! Ta nola Gurutze orretan ixillik zaudela ere, itz egiten didazun! Ai, ene seme, diozu: Nik zuri onenbeste nai, ta Ni enmigoa bezala tratatzen nazu! etsai izan banintz, ezin gaizkiago tratatuko ninduzun, ta ezin geiago egingo zenduen! Zer egin dizut Nik, ene seme: zer? Nere lotsa, ta penak, nere odol zugatik ixuria, ikusten ezdezu? Nere semeari bezala, biotza partitzen ezdizu. Ni onela dolorez, urratu, ta odol usturik ikusteak? Zer egin dizut? Emen nago, ta ez besteren fuerzaz, ezpada nere borondatez, ta zure amorioz: dolore oiek pozik daramazkit, zure biotza irabazteagatik: ta orregatik ere lastimatzen etzera, amaten ezazu; baizik aborrezitzen, ta ofenditzen? Zer egin nezakeanik zugatik egin ezdet?

O Jesus amoroso! Zure itz gozoak saietak dira, ta erdiratzen didate biotza! Nik ezdakit, nola eskerrak eman, ta zure amore oni nola eranzun. Zer esango dizut, Jauna? Dakust, tasa gabeko amore zure amore infinitoari zor diodala. O! amorio au indazu! Nere al-egin guzia, utsa, edo gutxi da. Baña gutxi au edolarik dagidan, ta fin gabe ama zaitzadan: ta gutxi nik egin arren, beñzat amorio, ta deseo guzizko bat iduki dezadan. Badakust, Jauna, nere amoria laburra dala, ta orregatik lureko gauzetan errepartitu nai ezdet, zergatik kriaturai ematen zaiena, zuri kentzen zatzun. Batere kendu nai ezdizut, ezpada, dan guzia betiko zuri eman.

Bertatik, Jauna, utzi nai diot Aitari, Amari, ta aide, ta besteai, ta zugan, ta zugatik ezpada, ezdietet nai bear: oriek, zure amorioa niri eragotzea, nai ezdet. Utzi nai diet adiskide, ta ondasunai, ta zugatik baizen nai ez ditut. Bertatik nere buruari utzi nai diot, ta saldu eresia banintz bezala, nerea izan nai ezdet, ta ez nere burua amatu, zugan ezpada. Ea begiak ezzerate nereak, baizik Jainkoarenak, ark nai duena, ta ez zuek nai zutena, ikusteko. Ea mingaña, nerea ezpera, ezpada Jainkoarena, onek nai duena, ta ez zuk nai zuna, esateko. Ta orobat, eskuak, oñak, gorputza, ta anima zure memoria, entendimentu, ta borondateaz. Nigan bizi bear ezdet, ezpada Jainkoagan: ta Jainkoak nigan beti bizi, ta agindu bear du.

Orañdaño, Jauna, nerea bezala, nere erara bizi izan naiz: orañ besterik da. Ez naiz ya nerea, ezpada zurea. Ea nai zuna nizaz, zure gauzaz bezala, egizu. Ta nola buztin puska bat erosi duenak, nai duena orrezaz egin dezakean, edo ontziak, edo zoiak, edo bazterrera bota nai badu: ala Zuk, Jauna, nizaz nai-zun guzia egin dezakezu: bada, batetik erosi nazu, ta zure odolaren kostuan: ta bestetik, nik nere burua agindu, ta borondate osoaz eman dizut. Zure gustoa bada, onrari nik ez idukitzea, zure borondatea egin bedi: zure gustoa bada, nere bizi dolorez, ta afrentaz beterik izatea, ta guziak ni aztu, ta utzi, ta ezertan ez idukitzea, kontentu naiz, ta zure borondatea egin bedi. Zu bakarrik nai zaitut: Zu zera betiko nere guztia.



ZER DAN PEKATUA, BERE AFEKTO, EDO ONDORENGO KALTEETAN EZAGUTZEKO KONSIDERAZIOAK

AINGERUEN PEKATUA, TA KASTIGUA

O Zeñ ederrak ziran Aingeruak, Jainkoak egin zituenean: ta zeñ itsusiak geratu ziran pekatua egin zutenean! Zeñ ditxosoak len, ta zeñ desditxaduak gero! Nola paratuko du anima pekatu batek? Añ itsusi, añ desditxadu! O! nere anima nolakoa egongo da; bada ainbest, ta añ andiak egin ditu! Ai zeñ ditxagabea dan zure suertea, anima nerea, bada Satanesen esklabara, ta betiko penetera sujetatu egintzera! O nolakoa ziñan grazian zeudenean, ta pekatuaz nolakoa geratu zeran! Zergatik zerua galdu dezuz? Zergatik infernuko penetara obligatu zera? Aingeru gaiztoai jarraitu diezuz? Bada bildur zaite orien kalteaz.

Jakizu, oriek tormentu betikoetan daudela, ta atsedean, edo erremedio gabe egon bear dutela. Zure zai daude, diotela, nola kulpan lagun izan zeran, ala penan izan bear dezula. Su andi aietan zure tokia prestatua daukate: eta ori zeren zuk nai dezun, pekatua egitean, edo leku debekatuan oña sartzean. Deadar egin nai dizut, nere anima tristea: begira, kontu oña non infintzen dezun. Falsoan zoaz, begira: kontu, infernuko leiza ondoan eman ezdezazun. Aditzen ezdezu? Añ gorra zaude? Zeruko Aingeru, ta Santuak: deadar nere animari, egiozute deadar. Ai! ondatzen naiz: itotzen naiz! Ai, Zeruetako Erregiña, lagun zadazu. Nere Jesus maitea, betor zure esku amoroso, ta poderoso ori: betor nere Aita, nere Jauna betor.

Ea, zure deadar indarsu bat egidazu, bildurta nadin. Arren nere pekatuen denboral gaizto onek murgildu, ta onda ezazala, Jauna: infernuko putzuaren atea nere gañera itxi ezdedilla, sekulako erremedio gabe galdu ez nadin. Indazu Jauna, S. Pedrori bezala, zure esku bedeikatu ori, libra nadin. Ah! Ta nere desditxa onen guzizkoa dala, orregatik ere kasi sentitzen ezdet, ta kasi sentimentu gabe eskua eskatzen dizut! Itxasoaren erdian ondatzen arkituko baninz: zer antsiakin deadar egingo nuke: Ai! itotzen nago! Ai! Itotzen naiz!

Bada zer? Infernuko itxaso ondogabea ikaragarriago ezta? Ta or betiko ondatzeko zorian nere burua ikusi, ta nola deadarka desegiten eznaiz? Baña zer diot, ondatzeko? Baldin nere pekatuen leizondo izuga-

rri, ta lokaitz itsusian nastu, ta itorik banago? Zer egin al-dezaketa bada? Nere biotzeko indar guziaz deadar egin. Aoa nekatzen bada ere, biotza nekatuko ezta. Biotza urtu, ta desegin artan isilduko eznaiz. Salba nazazu, Jauna, Salba nazazu: nere kulpen lokarda onetatik atera nazazu, deabruak bezala, infernuan onda ez nadin. Libra nazazu, Jauna, ta ez geiago zure ofensarik: munduko gauzakgatik, ez Zu galtzeko peligroan geiago sartu. O Jesus, izan zaite nere Salbadorea: zugar daukat nere esperanza guzia.

BIGARREN KONSIDERAZIOA

Ai Jauna! Ta pekatuari zer gorrotoa diozun! Bada Aingeruak añ ederrak, aberatsak, ta zure doazie beteak zirala, pekatuagatik etziñen barkatu! Zer izango da, bada nizaz, geroenean pekatuan arkitzen banazu? Jakiña, barkatu ezdidazula. Ta kriatura añ altuetan kastigu añ arrigarria ikusirik, nola ni ikaritzen eznaiz, ta are geiago ni kulpaz beterik, ta lur puska billau bat izanik? Aingeruak ala kondenatu; ta badezu zuk Jainkoaren zedularik, zuri barkatuko dizula? Ai kulpas asko dituzu, ta Jaunaren justiziaren ezparta ya zure kontra deskargatzeko dago! O zer golpe izugarria! Demonioak esan bezate, nolakoa dan.

Bada, ai zure tristea! Golpe ori bera, ta aserre guziaz dator zure kontra. Begira: kontuz golpe onetatik iges egizu: bestela, pekatuan bazaude, Jaunaren aserreak arrapatuko zaitu. Pekatua laster utzi, ta orrelako peligro, ta pausuetatik zoaz iges. Bai, nere Jauna, bai, nai det iges egin, ta lenago ill pekatu biurtu baño. Lenekoen barkazioa indazu, ta ez arren, Jauna zure aserrea nere kontra deskargatu. Zure piedadeari, Jauna, ta ez nere kulpai begiratu. Zure Justiziaren aserrea kentzeko, Jesus zure Seme maite, Gurutzearen josiari, begira zaiozu. Neretzat barkazio esker dagokizu. Begira zure Semearen arpegi eder santua, ta nere pekatuakin itsustua. Ispillu au da nere anparoa. Au begien aurrean ifiniko dizut. Zuk nai dezuz, ta eder deritzatzu: eskatzen dizut, Jauna, miseriakordia, ta erremedioa.

IRUGARREN KONSIDERAZIOA

Lapur batek bere lagunak kastigatzen ikustean, ta are geiago, bere lapurreta jakiña dala deritzanean, ta ezin iges egin duela, zer bildurra dauka? Bada Aingeru gaiztoetan Jainkoak egin duen kastigua nik ikusi, ta



nola bildurtzen eznaiz? Ta are geiago, Jainkoak nere barren guzia, ta pekatu sekreto guzien berri dakiela? Ta ezin iges egin? Estura oetan zer egingo det? Ai Jauna, badakust, nere kulpa guziak dakizkitzula, ta egiten nitue-nean Zu begira zeundela! Ai lotsagabeko atrebimentua! Ta ezin inora iges egin! Zer egingo det, ta nora joango naiz, Jauna, ezpada zugana?

Zure oñetan etzin, ta esango dizut: Jauna, nere pekatuak ezin kontatu ala, ta guziz andiak dira; baña zure miseriak andiagoa da. Ez, arren, Aingeruakin bezala, nerekin egin: orobat merezi dedala ikusi, ta ikaratzen naiz. Miseriak niaz, Jauna. Pekatarien eriotza etzezula nai, ezpada konberti, ta bizi dedilla, diozu. Bada artzen dizut zure itza; eta begira, Jauna, egiazko Erregearen itza dezu: lenago mundua galduko da, zure itzean Zuk faltatu baño. Ea bada, ori kunpli ezazu, nere Jainkoa: zure Ontasunagatik, kunpli ezazu, Jauna. Ta, baldin, bear bezala konbertitua ezpanago, arren konberti nazazu, eta erakutsi zadazu, nola ondo ori egin.

Zu zera nere Maisua: nola egin bear det, nola damua iduki, ta esan bear det: Damu dedala, Jauna? Bada, damu det: milla bider esango det: Damu det biotzetik, ta milla bider damu det, zu ofenditua. O sekulan pekatuak egin ezbanu! Zu añ ona zeren zeran, damu det, Jauna, zu ofenditua: ez sekulan pekatuak geiago. Lengoak desegitea, nere eskuan balego, milla bizitzaren kostuan baliz ere: O nola guzia desegingo nukean! O damu, ta deseo au nork leukakean! O nere Jesus, arren zure argia, ta grazia indazu: nere biotzeko indar guziaz, ta al-datekean intenziorik garbienaz damu ori nik idukitzeko!

Zure amorioa, zure penak, ta Zuk, nere kulpakgatik zure Biotzean idukitzen duen dolore, ta sentimentu gorrotoz betea, nere damu ordean izan bitez, Jauna. Ai! Ta onek estura, ta naigabearen pasioaz, zure negarrak, ta odola atera zizkitzun! Ta zer? Zuri negar eragin, ta odola emanerazo, ta niri negar malko bat ere ez? Zu negarrez ikusi, ta negar egingo ezdet? Ner anima arritua, begira Jesus onari orazioan, odolezko negarrak ematen: ta ez bere pekatuakgatik, zeren etzitzen, ezpada zureakgatik. Nola urtutzen etzera? Bada or zaude, arri baten gisa bada ere. Jesusen negarrak ta odola arriak berak beraatzeko poderosoak dira. Baldin ur tantak, arri baten gañean askotan eroriaz, zulatzen, ta desegiten badute; odol tanta preziosoak askotan eroriaz, zure biotza bigunduko dute. Bai: ta ala ni askotan Jesusen oñetara etorriko naiz, ta desegin artean, presto au utzi-ko ezdet.

LAUGARREN KONSIDERAZIOA

O Zer kaltea anima batean soberbiak egiten duen, bada deabruen gisa zerutik infernura botatzen du! Pekatu au nigan ote da? Ai zeñ bildur naizan, soberbiak galdu nizan! Ditxa, ta doairik asko zuten Aingeruak, baña orregatik ere humildadeak falta egin zien. Bada zer izango da niaz, baldin birtute au falta bazat? Beste doai, ta graziak banitu ere, nik dakidana, da, estimazio, ta onra zale naizala, ta Zuzaz, Jauna, ta zure doiaz aztutzen naiz, nereak, ta neregandik banitu bezala. Libra nazazu, arren, Jauna, gaitz, ta bizio itsusi onetatik, eta zure grazia indazu beti humill izateko; bada egiz ezdakik humill, ala soberbioa naizan: ta arrazoirik asko det, soberbioa naizala, pensatzeko. Ezer gauza onik nigan bada, egiaz, Jauna, zurea da: nik ezdet, ta ez naiz ni pekatua baizen. Ezagutzeko au ondo indazu beti zure argia: ta gauza on guzien gloria, zurea bezala, beti zuri eman dizadudan. Amen.



GURE GURASOEN, EDO ADAN GUZIEN AITAREN PEKATUA, TA ONEN KALTEAK

LENENGO KONSIDERAZIOA

O Gizon itsua nora zoaz? Adan zer egiten dezu? Sagar bategatik nai dezu Jainkoa galdu? O bokadu garestia! O sagar baten gusto beltza! Orren gutxian daukazu Jainkoa? Seme batek plazaren erdian esango balu, sagar bat bategatik bestek Aitari bofetada bat ematen utziko balu: edo berak guzien aurrean emango balio: zer esango genduke? O gaiztoenaren seme lotsagabea! Zer egin dek? Zer merezi dek? Puskatzea merezi dek, traidorea! baña ai! Nor akusatzen det? Noren kontra suak artzen banaute? Seme ori bera ni banaiz?

Nik Aingeruen aurrean bofetada nere Jainko, ta Aita onari eman diot: Ontasun, ta Jaun andiari, zeñen aurrean Aingeruak ikara dauden. O traidore lotsagabea! Nik, eta Jainkoari? Nik, eta sagar bategatik? Nik, eta zeruaren, ta lurrearen aurrean? Milla zati egitea, ondo merezi det. Betiko su-garrak gutxi dira neretzat. Zer esango det, Jauna, zer arpegiaz zure begietan jarriko naiz? Ai ene! Ai ene zori gaiztokoa! Ai ene ditxagabea! Zer egin det? Onelako traizioa? onelako zorakeria? Nik ori egin det? Ail ezdakit zer esan, ta ez zer pensatu.

Baña nere Jaun maitea, negarrezko iturri bi nere begiak izan bite. Ail Nere bizi guztiko miña, ta negar gaia badet. Ta onelako falsia egin didan gorputz oni nola gusto emango diot? Ah nere etsairik mortalena! Nik emango dizut zure merezia. Losaren pasioz, Jauna, zer esan, ta zer egin ezdakit. Alere ni negarrez zure oñetan urtuko naiz: orrela nere biotzeko damua erakutsiko det. Egiña, Jauna, egiña. Ai ta zein desegin! Penitentzia, bada, Jauna, misericordia, ta erremedioa: bizi berria.

BIGARREN KONSIDERAZIOA

Adan Paraisutik deserritua izan zan, ta ni zerutik. O erri, ta leku bentsuoa! Ta nola deseri onetan kontentu, ta gustorik billa dezaket? Zenbatak esaten dit, orañ bizi naizan artean atsegiñ ar dezadala. Baña nola

kontentu artuko det, deseri onetan nagoela? Negarretako lekua, ta penitentiako denbora da au. Ez arren, Jauna, permiti, ni erakeriai ematea. Eznaz aspertuko adiaz, ta suspirioz, nere burua onelako desdixan ikusirik. Nere begiai atsedetik ezdied emango, nere errian sartu artean. O zerua, zerua! O erria, ta nere erria! O egiazko bizia dutenen erria! O korte soberanoa! Or dago nere ondasun guzia, or dago nere Jabe, Errege, ta anima garbien Esposa. O Jaun, ta Esposo guziz gozo, ta maitea! Zu gabe, ni nola nagoke? Or dezu nere biotza, or dezu. Eraman didazu, ta or bizi naiz, ta emen Zu gabe iltzen naiz. O zure amoriz azkenik desegin banendi.

Baña ai! Orrela izan bear zan, ta orrela egin ezdet. Ai uso baten egoak banitu egaka igo, ta or atsedeteko! O zer negarrak Adanek egingo zituen, sagar bategatik Paraisutik deserritu ta ikusi zanean! Ta askotan, ta gutxiago gatik, nik zeruko ateak itxi, ta negar egingo ezdet? Misericordia nizaz, Jauna, Eznekien zer egiten nuen: piedadea deserritu pobre onezaz, zeren negarretako ibar onetan nekez beterik ta pekatuen lokaitzean ondaturik nagoen. Nere Aita misericordiazkoa, ta konsuelo guztien nere Jaungoikoa! Piedadea, arren, Jauna, nere suerte desdixadu oentan. Ta bada, Aingeruak bezala, kastigatu eznazu, ezpada Adani bezala etxeden: deseio irazaki bat indazu, lurreko gauzak azturik, bakarrik nere zerua billa dezadan. Nere kulpen egiazko penitentzia egiteko grazia betor: ta bada, nik egin al guzia da gutxi, edolarik deseio txitezko andia izan bedi. Indazu azkenik grazia, emendik aurrera egiazko deserritua bezala lurreko gauzenzat bizitea, ta zerurako bidezkoak bezala, Zu billatu, serbitu, ta betiko amatzea. Amen.

IRUGARREN KONSIDERAZIOA

O Nola suge gezurtiak bere engañu, ta promes falsoaz Adan zorezazi zuen, Jainkoa bezala izango zala, esanaz! O ta zenbat aldiz onela ni ere engañatu nauen! Emengo onra, interes, ta gusto, pekatu eragin didatenak zer dira? Kea bezala guziak desegin ziran. Ta eriotzako orduan orobat izango ezta? Zergatik, bada, nere etsai engañatu nauen, ta orañ engañatzen nauenean fiatu nai det? Ta infernura botatzeagatik zer egin ezdakienaren konsejua zergatik artzen det? Demonioak zer agintzen dit,



berari jartzeagatik: Zeruko gloria? Ez egieki; ezpada infernuko tormentuak. Ta orañ engañatzeo eskeñtzen dizkidan ezerezkeria, edo ondasun usien bazka, edo zebo agatik, betiko eriotzaren amuari elduko diot? Arraitxo batek ere, ori ikusi ta jakiñik egingo ezluke.

Ai bada, anima nerea, ai! Begira ondo: gozoa iritziagatik aurean ipintzen dizuten bodadua: or dago, or dago barrenen eriotza betikoaren amua: infernuko pozoia, ta benenoa or dago. Niri sinisten ezpadidazu, sinistra zaiozu Jaunari, zeñak dion: pekatu egiten duenaren anima illko da. Begira Adanek jan zuen sagarren gustoa, zeñ laster igaro zan, ta ondorea ainbeste, urtean zeñ samiña izan zan. Begira, deabruak gozotan eman zien bokadu beltza, infernuan zeñ garratza kondenatuai biurtu zaien: ta ez orañ bakarrik, ezpada sekula gazietao samiña.

Besteren buruan kalte au ikusi, ta nola begiak argitzen ezdituzu? Zeren begira zaude? Zure gañean kaltea ikusi artean? ta erremediorik ezdezula? Ta obeto, Jainkoak egiten dizun mesede, ta ematen dizun denboraz baliatuko etzera? Baldin Zirau batek eldu balizu, edo benenoz betetrikako sagar bat jan bazendu: Ah zeñ gogotik erremediorik dan samiñena ere artuko zendukean! Edozeñ diru gastatuko zenduke. Bada infernuko sugeak pekatuaz eldu dizula, ta pozoiez beterik zaudela ikusi, ta nola zaude orrela? Ah betiko iltzen duen pozoia da! Ea jaiki zaite lo pisu orretatik, zeñean sorturik zauden. Bizia akabatzen da.

O nere Jaungoiko! Infernuko benenoz nere etsaiak onela nere anima bete du! Ai nere triste galdua! Gaitz onentzat zer erremedio egingo det? O baldin baliz, mundu guziaren kostuan ere; zeñ pozik billatuko nukean! Ea bada, nere anima, berri onak: erremedioa badezu, ta doarik. Zer erremedio da, ta nork emango dit? Erremedioa da Jesu Kristoren odola, ta doarik emango dizu, Gurutzean, zugatik ill arteraño, ta zu infernuko gaitz orretatik libratzeagatik, isuri zuenak. O Aita nerea, o zeruko Aita; nola nik miserikordia andi au alaba dezaket? Ori guzia ni gatik egin dezu? O nere Jauna, ta nere Amorio guztia! Zure odol guzia ni salbatzeko eman dezu? Orrelako amorioa, ta orrelako erremedioa? Ta ori doarik prest daukazula?

Ah Jauna ondo garesti kosta zitzatzun, bada zuri! Baña zure Ontasunak au egiten du. O alabatua izan dedilla Ontasun ori, ta eternidade guzian iduki dezazula! Izan zaite fingabe poderoso, jakinsu, ona, ta justua: ala zera, ta beti izango zera, eta txit atsegin det: biz ordu oean, ta betiko. Zer nai dezu, Jauna, nigandik? O! Badakit, Zuk zer nai-zun! Ni zure odolaz aprobeztatu, ta nik Zu amatzea. O zer ditxa ori, zor dizudana pagatzeko! O zeñ doarik ematen zadan! Añ gutxi eskatzen zadana, ta

añ justua, ta gustozkoa; ta neretzat añ baliosoa, non ta obeagorik eztan. Ama zaitzadan, bada nere Jainkoa, ta biotz guztitik: indazu grazia, amorio au, bizi naizan artean, egunoro, taandiago izan dedin, ta zeruan beti ama zaitzadan.



BAKOITZAK BERE, TA NIK NERE PEKATUEN GAÑEAN

LENENGO KONSIDERAZIOA

Aingeru gaiztoak, ta Adanek egin zuena añ gaizki baderitzat, nik egin dedanaz, zer iritziko diot? O egun illun tristea, zeñean lenengo pekatua egin nuen, ta pena guziz andi pisu, ta kabugabeetara suertatu nintzan! Kolera batean gizon bat ill banu, ta gero urkatzeko zorian nere burua ikusi, zer sentituko nuen? Bada, nere anima tristea, egun artan egin zenduen zorakeria gatik, zure etsaien atzaparretara, ta betiko infernura sentenziatu zaude. Nork, sentenzia onekin, bokadurik gustoz, ta deskansurik ar dezake? badirudi, ezagutzen, ta sentitzen ezdezula, ta ametsa baliz bezala artzen dezula. Bada kontu egizu, orañ bertan Jainkoaren ministro, edo justiziako juraduak gaiztakeria andi batean arrapatu, ta beraren tribunalean presentatu, ta eriotzako sentenzia ematen dizula: ta demoniak eraso, ta infernuan sartzen zaituztela.

Zer esan, zer egingo zenduke, erremedio gabe, ta betiko leizondo artan, ta tormentuz erretzen ikusiko baziña? O erregalo garestia! O gusto samiña! O pekatu garratza! bada orrela, ta betiko tormentuen azpian egongo zera. Biurt-zaite, zugana, anima tristea. Begira ondo, egiaz, ta fedez, sentenzia zure kontra emana dago: ta asko, ta al-egin guziak egin badituzu ere, desegin dan ezdakizu. Ta ondo iritziko diozu, jan edanean erregaloak billatzea, ta etxean dan onena zuri ematea, ta onra, ta puestorik andienak, ta guziak zu alabatzea? Ezta burlen, farren, jolasen, atsegiñen, ta banidadeen denbora au; ezpada negarren, lantuen, adia, ta deadarrena: penitenziaz biotza desegin, ta trukatzeko: ta ez nola nai, ez onrak, ta ez atsegiñak billatzeko; baizik guzien oñ pean zere burua ikusi nai izateko; ta zure gustoaren kontra dan guzia gogotik, ta biotz guztiaz billatzeko.

Ta ogei, edo ogei ta amar urtean penitenzia egin badezu ere, ez nekatu, ez aspertu, ez utzi, zeren barkatua zauden ezdakizun. Ta mundu guziak esana gatik, santu bat zerala, penitenzia ez utzi, zeren barkatua zauden ezdakizun. Badakizu Jainkoa dala Jueza, ta aren juizioak emengotatik besterik dirala. Ta orazio aldi luzeak iduki arren, ta zeruko kon-suelo asko, ta milloi asko anima konbertitu arren, milagroak egin, ta mudu

guzia zure ondoren ibilli arren, ez zure puestoa utzi, ez penitenziaz aspertu, zeren zure sentenzia desegin dan ezdakizun; ta au ezpadezu, gizonen alabanzak, onrak, ta gustoak zer serbituko dizute? O Jauna, zeñ egia andiadan, ta zeñ inportantea au! Josi ezazu ondo nere biotzean, beti humill nabillen. Zure Ontasunagatik, nere kontrako sentenzia desegin ezazu, zeren pensatzeak, Zuk, Jainko poderoso, zeñen kontra iñork keme-nik eztuen, kondenatu nazula, ikara andia ematen dit.

BIGARREN KONSIDERAZIOA

Penatik kulpa ateratzen, edo ezagutzen bada: infernuko penakin kastigu ta ere, bear bezala, edo diña kastigatzen ezdan kulpa, zer izango da? Pena ta al-diran ikaragarrienak pensa itzatzu, ta guziak batean: dolozko, suz, ta garrezko larridiki, ta ezurak puskatzerano, ta beste milla tormentu elkarrekin, ta eternidade guztian: ori guzia gutxi da, infernuan pekatu mortal bategatik ematen danaren aldean: ta ori Jainkoaren Majestadearen kontra zeren dan. Gorputzean senti al ditezkean tormentu guziak baño andiago da, Jaungoikoren arpegia ez ikustea, ta ez ikusi bearra.

Ta begira orañ, zuk milla pekatu mortal zeñ erraz egin dituzun. Zer? Papiro baten bildur zera, ta kastigu onen ez? Zer zorakeria da au? Anima nere, zure amoriorik badezu? Ondo begiratzen badezu, zure gorrotoa dezu. Batek iñor aborrezitzen duenean, ari bizia kenduaz, kontentatzen da, baña zu ainbesteraño aborrezitu zera, non orrezaz kontentatu etzera, ta gañera eriotza animakoa, ta betiko tormentuak ematen diozkatzu. Ai nere itsua! Zer egin dezu? Zuk zere burua ezpatan sartu dezu: zure eskuz eriotza artu dezu. Fin, edo kabu gabeko pena, badakizu, zer dan? Urtea urtearen gañean beñ, ta askotan kontatuagatik ezer ezta: ta penak geiogo dira: kaburik ezdute.

Jakizu, bada, zure al-egin guziaz andiago, ta andiago pekatua zuk pensatu, ta ezagutuagatik, millataik bat ezdezula, berez danerako, ezagutu. Nola eziñ iñor, Jainkoa zeñ andia, ta ona dan, ezagutuko duen: ala aren ofensa, edo pekatua zer dan, iñork ezin, dan bezala ezagutuko du. Ta zure bizi guztian pekatuen artean egon, ta zer egiten dezu? Ai nere galdu bearra! Ai! Ai egun, milla bider zori gaiztokoa, zeñean pekatuak egiten asi nintzan! Nere Jainko guziz ona! Ezdedilla, arren orrelakorik geiogo gertatu! Miserikordia niaz, zeren txit bearra, ta desdixadua nagoen. Baña zure



ontasuna andiago da nere miseriak baño: ez obi begiratu, ezpada zure piedecari. Zugan dago nere esperanza guzia, ta ala eznaiz galdua izango.

IRUGARREN KONSIDERAZIOA

Nere kulpak gatik, nerezi nuen, Jauna, infernuko su, ta garretan erretzen beti, erremedio, ta esperanza gabe egotea. Baña Zu, añ ona neretzat izan zera, non ara bota eznazun. O nere Jauna, nere Aita, ta nere Jainkoa: nere amorio, ta On guzia! Ni nere naizan baño, nereago zerade Zu. Ontasun au nola pagatuko dizut? O! Ta mingañ bat, ta biotz bat dedan bezala, milla, ta milloi asko biotz, ta anima banitu, guziakin Zu alabatzeko, ta amatzeko! Zer egin dezaket, Jauna, bada sekulako infernutik libratu nazu? O zerbait, eta asko zugatik egin al baneza! O zure amorioz urtutzen banintz! Zer nai-zu, Jauna? Nik Zu serbitzea? Ona, bada, non nagoen zure betiko serbitzari, edo esklabo.

Ta nola esklaboak berenak ezdiran, ezpada beren Jabeenak: ala nik ezdet nai nereza izan, ezpada betiko zurea: ta ez aiek bezala bildurrez, baik amorioz guzia zurea izan nai det. Zure amorioan irazakirik bizi nai det. Betor zure Jainkozko sua, ta erre nazala. Dizekadan niri, ta geiago, ta biziroago zure amorioan erre nadin. Bedeika, ta alaba zaitzadan, Jauna, ta naizan, ta dedan guziaz ama zaitzadan. Nor Zu bezalakorik? Guziaz dago-kizu, Jauna, ta txit ederki. Ea Aingeru, ta Santuak, nere Jauna alabatzen lagun zadazute. Ta zeren, Zuk merezi dezunerako, Jaun andia, au guzia ezer-ez dan, zure Ontasun, jakintasun, ta miseriak paregabekoak betiko, ta bear bezala, alaba zaitzala. Nik Zu amatzea, nai-zu? Bada, nik nerau baño geiago amatzen zaitut, zeren añ ona zeran, ta zeren zuri, zer du zer ikusi? Zuri, neroni baño geiago zor dizudan. Betor, Jauna zure amorio egiazkoa, biotz guzitik egunoro, ta beti geiago, ta obeto ama zaitzadan.

Ah! Infernua merezi nuela, nai dezu, nik Zu amatzea! Satanasen esklabo billau izatea merezi, ta Aingeruen ofizioa nik egitea, nai-zu? O nere Jainko maitea! Sekula guzietan alabatua, ta glorifikatua izan zaiteala! Nola, Jauna, zure amorioan erreko naiz? Nola atsegin, ta gusto emango dizut? Zer egin ezdakit. Zure gusto, ta borondatea egiten eerausdazu. Orra ni zer nazan: orrenbeste zuri zor, ta amatzen etzaitut! Baña ai! Onezaz oroit, ta lutoz biotza betetzen zat! Bada Zu amatu bearrean, egunoro pekatu geiago egiten det. O esker gaiztoko traidore itsusi lotsagabea! Ala izan naiz, ezdet ukatzen. Baña, Jauna, Zu zera nere erremedioa: Zu ni

billatzera, ta salbatzera etorri ziñan. Ori egizu, ta barkatu, ta salba nazazu, zu beti alabatzeko.

LAUGARREN KONSIDERAZIOA

Ni baño pekatu gutxiagorekin infernuan zenbat daude? Ta ni bizi naz, ta zeruaren esperanzan. O miseriak andia! Zer dijoa zerutik infernura? Zer ikusi zenduen, Jauna, nigan, mesede au niri egiteko? Zer? Nere bizi guzian, Zu ofenditzera baizik, zer egin det? Zuk deitu, ta nik ez eranzun. Zu golpeka nere biotzeko ateetan, ta ni beste aldera! Ta orregatik sufritu, ta berriz deitu didazu: ta batzuetan amorez, ta erregaloz; besteetan ikaraz, ta bildurrez. Ta ni itsua, ta gorra, ta pekatu geiago egiten! Beste askori etxeden ez, ta niri etxeden, ta denbora geiago eman didazu! O bedekatua izan dedilla betiko zure Ontasuna.

Esan oi da, gauza ona, galdu arte, ezagutzen ezdala. Kontu egin nai det, bada, besteak bezala galdu naizala, eta aiek bezala, kastigatu nazala. Ai, Jauna! Nizaz zer izango zan? Zerua galdu sekulako, ta zer sentituko nuen? Zer, nere burua, konsuelo, ta esperanza gabe ikusirik? Zer su, ta lama infernukoetan erretzen ikusirik? Zer, demonioz alde guzitik bete ikusirik? Ai! Pensatzeak ere ikara ematen du: zer litzake igarotzea? Ta orañ orietatik libre nagoela, ta zeruaren esperanzarekin? Al egiñaz, ta postaka infernura ninjoala, Zuk gelditu nazu, Jauna! Ondatzera, ta deabruen atzaparretara, ta Zuk eskua eman didazula? alabatuko zaitut, Jauna, beti, zeren zure esku bedekatua eman, ta libratu nazun. Jaungoikoari eskerrak: graziak, ta eskerrak Jaunari milla bider.

O nere Jauna, ta zenbat zor dizudan. Añ obligatua nago, non zer esan, ta zer egin ezdakidan. Kontentuz, ta penaz desegin nai nuke: kontentuz, zeren ainbeste gaitzetik libre nagoen: ta penaz, zeren añ esker gaiztoa naizan. O nere Aita guziz amorosoa! Bada Zu ala zera, ta Aitak bezala amatu nazu, indazu, ni zure ume ona izatea. Damu det, Jauna, ta biotz guzitik damu det, Zu ofendituaz, zeren añ ona zeran, añ Aita ongi-llle amoriozkoa, ta Esposo guztiz gozoa. Damu det orregatik zure Ontasuna ofendituaz, propositu firmearekin, ez geiago pekatu egiteko. Ni zure graziarekin, Jauna obeto biziko naz.



BOSTGARREN KONSIDERAZIOA

O nere Jaungoikoa! Zu niri begira zeundela, nik ofenditu zaitut! Ta ez begira, nola nai, ezpada niri faboreak egiten: ta ni lotsarik gabe Zu ofenditzen: ta Zu orregatik ere, on geiago, ta geiago niri egiten! Zu añ aundi, ta poderoso; ta ni añ billau ezereza; ta orregatik ere sufritu nazul Beste askori, bizia kendu, ta infernura erortzen utzi diezu; ta ni ez nazu utzi: ta ez bakarrik sufritu egun batean, baizik ainbeste urtetan, ta ez pekatu batean, baizik ainbeste millatan. Nik nere pekatuak beti aurrera, ta Zuk orduan benefizio geiago! Zenbat, eta ni gogorrago, ta etsaiaren obrak egiten, anbat Zu beraago deitzen, palakatzen, ta Aitarik amorosoenaren obrak nerekin egiten! O zeñ itsu, gogor, ta portitza zuretzat izan nazan! Ta Zu, Jauna, zeñ gozoa, ta amorezkoa niri etxedeten.

Lasterka ni infernura ninjoan, ta Zu otsez nri. Ni beti gorra, ta zure deiai egun, aste, ta urte askoan eranzun gabe! Ai Jauna! Egia esatera, badi-rudi, infernuratzegeatik, eziñ geiago ala nik egiten nuela: ta Zuk eragozten, ta gelditzen ninduzun! Beste asko, zure justiziaren aserrea deskargatu, ta kondenatu dituzu: ta ni ez! Azkenik zure amorio guztiaz ots egin, ta lo pisu artatik atera nazu, ta nere begiak argitu dituzu, nere desdixta ikusi, ta zu gana biurtzeko. O nere Jesus guziz gozoa! Miserikordia onezaz zer esango det? Ni salbatzean, zer zijoakizun, Jauna? Bazenduen nere bearririk? Ez egieki. Baña Ontasun fiñik eztuena, infinito Zu zerez izan. O! Izan zaite: ordu onean! O! zer gloria dezun, Jauna, On guztizkoa izatean! Izan bedi, izan bedi ordu onean: atsegin det, Jauna: izan bedi eternidade guzian.

Ontasun onetan, zure graziaz daukat zerurako nere esperanza guzia. Beste, ni bezala, bizi ziran asko infernuko zuloetan ondatu, ta nik, zure glorian Zu ikusteko, ta gozatzeko esperanza andia daukat. Ta au izan ditek? Enemigoen atzaparretatik libre nagoela! Betiko bizia uste dedala! Denbora orretako eman zadala! Ta zeruan Zu ikusi uste zaitudala, nere Jaun guziz ona, ta guziz ederra! O zeñ miserikordia paregabea nerekin egin dezun! Ea, anima nerea, alaba, ta glorifika ezazu Ontasun au. Zure biotz, ta deseoa zeruraño jaso, ta bedeika, ta alab- ezazu Ontasun infinito au. Denbora onetako idukitzean, zer ditza dezun, ondo ezagutu, ta alik ere ondoena orrezaz balia zaite. Bai, Jauna, ona nere biotza: zurea da, ta ez nerea: sekulako ematen dizut, zu beti serbitzeko. Zure borondatea beti egiteko, zure grazia indazu.

PEKATUEN GAÑEAN IRU KOLOKIO, EDO ORAZIO, IRU GAUZATARAKO. BATA AMA BIRJIÑARI, BESTEA JESU KRISTORI, TA AITA ETERNOARI BESTEA

Iru gauzak, edo graziak dira: lenena, gure pekatuak ondo ezagutu, ta orien egiazko damua alkantzatzea. Bigarrena, lengo bizimodu zorra, ta eragabekoa ikusi, ta bizi berria, ta Jaunaren borondate beti egiteko grazia. Irugarrena, munduko bide galduak kondenatu, ta utzi, ta banidade guzietatik iges dagigun.

AMA BIRJIÑARI ORAZIOA

Jaungoikoaren Ama, ta nere Ama Andre maitea. Nere pekatuak konsideratu, ta ikara andiak artzen nau. Ikusi, ta pensatu det, Jainkoak nerekin zer, ta zenbat egin duen, ta arriturik nago. Egia da, ta ikusten det, nere pensamentu, itz, obra, ta guaza guzietan txit eragabe, txit gaizki ibilli izan naizala. Bizimodu berria artzeko, ta mundu galdua utzi, ta nere Jainkoari jarraitzeko deseoa daukat. Nere deseoa ona da, baña ner argaltasuna andia. O Birjiña Ama, ta paregabea! Zu zera pekatari tristen anparo, ta konsueloa! Onen, ta zure txit premia andia daukat. Miserikordiazko Ama zera: izan zaite nere Ama: ta zure Seme maiteagandik nere deseoa, ta nik egin ditudan pekatu guzieren damu andi bat alkanza zadazu.

Ezdet, Andrea, mesede au nik merezi. Ala da. Baña ez niri begiratu, ezpada pekatarien Ama piadosa zerala. Begira zaiozu, arren nere miseria guziz andiari. Pobre, ta miserableak zer egingo du, ezpada aberatsen atetara allegatu, bere lllagak agertu, ta bere premiaz eskatu? Ea, bada, guzieren Ama Andrea: limosna bat eskeko pobre miserable onentzat. Pobreen gisan deadarrez ixilduko eznaiz. Tixt aberatsa zera, ta guziaren Jabea: ni berriz txit pobrea. Ea zeruko Erregiña, limosna bat, Andrea. Pobre bear oni begi onez begira zaiozu. Pekataria naiz: zer miseria andiagorik! Baña pekatarien Ama zu zera, ta izan zaite.



Akorda zaite, zure Semeak nere premia estua ikusi, ta limosna andi bat eman zidala, ta zan zuri esatea: ANDREA, ORRA ZURE SEMEA. Pekataria ni izanagatik, zure semetzat ni artzea, zure Semeak nai du. Ea bada, nik ez merezi arren, zure Semeari diozun amorioagatik, ar nazazu ni. Zure Semeagatik eskatu ezkeru, zer egingo ezdezu Zuk? Bada zure Semeak ni artzea, nai du: egizu au, ta zure Semearen amarez, ta aren ize-nean egizu. O! Ta zeñ pozik, ark agintzen, edo nai zuen guzia egin oi zeneduen! Bada berak enkomendatu zizun, Semetzat ni idukitzea. Egia da; añ gaiztoa izan naiz, non Zuk utzitzea merezi dedan. Baña, nola zure Semea gugatik iltzan, ez arren ni utzi. Begira, Andrea, pekatari galduakgatik ark bere odola eman, ta Gurutzearen oñean Zu egotea nai izan zuen, Zuk aren odola ikusi, ta pekatariak, oiei laguntzeko, enkargatu zizkitzun.

Ea, Amarik onena, begira zure Semeari, ta gugatik esaiozu lengo zure itza: ARDORIK EZDUTE: ta zuk esaten badiozu, nere kontu, laster, ta seguru, nere biotzeko epeltasunaren ura ardo guziz gozo, ta indar-su biurtuko duela, eta zure erreguz, nere bizi galduaren amoriozko damu andi bat, ta biziera berri santu bat, zure amparoan, ta Zuk nai-zun bezala egiteko, grazia emango didala. ala izan dedilla. Amen.

JESU KRISTO GURE JAUNARI ORAZIOA

Jesus, nere Salbadore, ta Amorio guzia! Nik ez merezi arren, fabore bat egin bear didazu: eta da zure merezimentu, zure penak, zure odola, llagak, ta Biotzeko amorioa nigatik Aita Eternoari presentatzea. Badakit nere Jesus ona, Zuk ori egiten badezu, nik deseaten dedana, alkanzatu-ko dedala. Zu zera, Jauna, Seme guztiz amatua, zeñean Aitak bere atsegin guzia zeukan, ta beti daukan, eta txit pozik beti aditzen zaituena. Zer konstatzen zatzu, bada, Jesus nere guztia? Zu Gurutzea nigatik eskeñ, ta sakrifikatu ziñan: ta sakrifizio, ta ofrenda bat ixillik deadar andiak eman zituena zeruraño, ta Aitak, Zuk nai zenduen guzia, egiteraño.

O ofrenda guziz preziatua! Lengo Abel justuaren odolak baño, deadar obeto zureak egiten zuen! Zure amorio guziaz ni aberatsago utzitze-ko, ta orañ zure Aitari presentatzeko zure llağa idikiak zerura eramane ziñtuen. Ea, bada, gure Pakegille maitea; itz bat atera zazu, taegiña dago guzia. Zure Aitak esana dauka: Eska zaiozula, ta gure animak zure Erenziatzat emango dizkitzula. O zer ditxa, ta zer gure gloria! Aitak nai du Zuk eskatzea, ta Zuri ematea. Ea, erregu zaiozu arren nigatik, ta ni seguru

zurea niaz. Zerura Zu igo, ta badakit, lurrean baño zeruan amorio gutxia-go ezdezula, ezpada orobat. Ta bada lurrean ni pekatari onegatik Aitari erregutu ziñon: O nere Erredentore ona! Zergatik zeruan orañ egingo ezdezu?

Emen zure odola, ta bizitza nigatik eman zenduen, ta orañ or itz bat aterako ezdezu? Emen odolezko izerdiak, ta dolorezko negarrak nigatik eman ziñtuen: ta pensa diteke, orañ or itz baten mesede au egingo ezdidazula? Ez, Jauna: ez niri orrelakorik gogoratu. Ta pekatariarik galduena ni izanagatik, beragatik zure billa nator: ta Zugan daukat nere konfianza guzia. Ea, bada, nere Jesus, ta Jabe maitea, zurea nik izan bear det. Ez niri begiratu, ezpada, ni erosteko eman zenduen Odolari: onegatik nere pekatuen barkazioa eska zaiozu zure Aitari, ta orañdañoko nere bizitza galdu eragabearen damu, ta gorroto egiazkoa eman dizadala, ta zure aorioan biziera berri santu bata ta zure Biotzean eriotza on bat egiteko grazia. Amen.

AITA ETERNOARI KOLOKIO, EDO ORAZIOA

O Aita Eterno, nere Jaungoiko guziz poderoso! Emen nator, Jauna: emen nator ni pekatariarik andiena, ta zure Majestade andienaren aurrean presentatzera atrebitzen naiz. Badakit, Jauna, zure Ontasuna, Zu bezala, kabugabe, edo infinitoa dala. Onezaz baliatu nai det. Egizu, arren, ez nik merezi dedan bezala, ezpada Zu zerori zeran bezala. Ai Jaun justua! Arri-garriak, itsusiak, ta txitez asko dira nere kulpak, ta zure kontra nik egin ditudan ofensak. Ala ezdet merezi zuk niri begiratzea; baño Zure Seme maiteak merezi du. Oni begiratu, ta onek nigatik egin zuenari, eman zidan itzari, ta erakutsi zidan amorioari, atrebitzen naiz, Jaun andia, zure begietara agertzera, ta humill humill zure Majestade andiaren aurrean jarri, ta eskatzera.

Jesus zure Seme guziz Santu, guziz bedeikatuaren izenean, bada, ta aren amarez, nere kulpak guzien barkazio osoa eskatzen dizut. Indazu, arren, Jaun guziz ona, Jesu Kristoren amorioagatik, zure argi bizi eragille bat, nere igaroko biziera galduaren eragabeak ondo ezagutu, ta bear dedan biotzeko damu, ta propositua, ta Zuk nai dezun diñako penitentzia egiazkoa egiteko grazia. Onekin batean, beraren Ontasunagatik, indazu emendik aurrera nik beti guzian, ta guziro zure borondate guziz santua egitea. Onelako ditxarrik nik nerez ezdet merezi, Jauna; baño zure Seme



arantzaz, ta iltzez josirik Gurutzean dagoenari begira zaitozu. Ari begira, ta ez niri: ta nere pekatuak andiak badira ere, are andiagoak dira, aren merezimentuak. Ari begiratu, ta zure justiziaren aserrea bigundu, ta akaba begi, ta betor nere gañera zure miserikordia, ta amorioa.

O Jauna! Zure Semeak eman zidan itza, edozeñere gauza, aren ize-nean eskatzen nizuna, Zuk emango ziñidala. Badakit aren esana Zuk egingo dezula. Orañ bada, nik fabore au aren izen santuan eskatzen dizut: ta bear dan fede, intenzio, gogo, ta alegin guziaz eskatu nai nizuke. Zure Semearen amarez egizu, Jauna. Grazia au niri egitea, zure Semearen onra da. Ta bada Zuk bera nai dezu ainbeste onratu, orretako niri mesede au egidazu. Jesus maiteagan daukat nere esperanza guztia, zeren bera dan zure Semea, Zuk nigatik bialdu, ta emana, nere erremedio, libertade, salbazio, ta gloria bizia: berari gloria guztia zurekin, ta Espiritu Santuarekin, nere Jaun, ta Jainkoa. Amen.

Kolokio, edo iru Orazio oiek beñ, ta berriaz, ta askotan, ta txit soseguz egin bear dira: ta are geiago ondo konfesatzeko bat prestatzen danean, fedeaz, ta konfianzaz biotzeko amorio, damu, ta propositua egiteko.

ERIOZAREN GAÑEAN

LENDABIZIKO KONSIDERAZIOA

O Nere Jaungoiko: zeñ gauza zierro, ta jakiña dan eriotza! Ta zeñ azturik ni bizi naizan! Zuk, Jauna, esaten didazu, ta ni daust, len, edo gero, azkenik ill bear dedala. Orregatik ere nere biotza emango gauzetan sarturik dago, zeren utzi bear ezbanitu bezala begiratzen diedan. O! Ta zeñ itsua alde onetatik bizi izan nazan! O zeñ zoratua, ill bear ezbanu bezela! Erremedio gabe ill bear det? Bai. Ordua etorriko da, zeñean eguna asiko det, ta gaurik ikusiko ezdet: edo gaua asi, ta egunik ikusiko ezdet? Ordua etorriko da, zeñean anima au arrankatua izango da gorputz oentatik, ta au ill otza, desfiguratu, ta itsusia utziko duen? Bai. O tranze arrigarria! Zer ikara eman bear dezun! Ai ta nik ezin au kendu, eskusatu, ta ez iges egin.

Zertako, bada, nere biotza josi nai det gaur, biar utzi bear ditudan gauzetan? Zertako, orren laster utzi bear ditudan ondasun, ta interesagatik galdu nai det? Emengo onra, ta estimazioak gatik niri zer zat? Naiz ondo, naiz gaizki nigatik diotela: zer zat? Bada ill bear det, ta gizonen esariak erio tristerik libratuko eznaute. Zertako oriei ondo iristeagatik nekatu, bada orien itzak eeriotzan ezer baliatuko etzaizkit. O dana dan bezala, nork lekuskean! O pisu justuan guztia pisatzen bagendu! O gauza guziak, bear bezala, nork estima litzakean! Zerukoak zerukoak bezala, ta lurekoak lurekoak bezala! Gezurrezkoak gezurrak bezala, ta egiazkoak egiak bezala. Ah! Orañ puntu onetan erioak anima ateratzen balit, zer esango nuke munduko onra, ta ondasun, nere biotza lotu ta iduki, edo arrastatu zutenagatik.

O zeñ burlatua arkituko nintzakean! O nola nere erokeria kondentatu nukean! Noiz artean, bada, noiz artean banidadea billatuko det? Noiz juizioan sartuko naiz? Noiz oñ azpian onra, ta gezurrezko esanak utziko dizut? Zer? Ta onra puska bano bategatik eternidade guzirako nere anima galdu bear det? Kea puska bategatik ni orrela galdu? Ta nerekiko aizezko, ta aizeak daraman esamesa batek geiago pisatuko du, nere salbazioak baño? O zenbat dauden infernuan orrelako: Zer esango dute bategatik, ta gizonen estimazio txar bat ez galtzeagatik! Niri orobat gertatuko ote zat? Ikusten, ta ezagutzen det, guztia banidade, ta zorakeria dala, ori pensatzen, ta esaten det askotan; ta akabatzen ezdet, ta ori bear bezela



utzitzen asi ere eznaiz: badirudi, onra, ta estimazio ero ori nerekin bat egin, ezurretaraño, ta biotzaren erdiraño sarturik dagoela.

BIGARREN KONSIDERAZIOA

O Nere Jaun soberanoa! Zer da au? Ill bear ezbanu bezala bizi naiz. Noiz artean lo pisu onek iraungo du? O desdixta, ta ai nere desdixtadua! Munduaren esamesen Jainko gezurti au noiz lurrera, ta oñpera botako det? Noiz milla puska egingo det? Ai Jauna, nik ezer balio ezdet? txit argal, ta nagia naiz! Zugana nere begiak jasotzen ditut: lagun zadazu, galdu eznaidin. Nere Jesus ona, zure piedadezko begi oriek biurritzatzu nigana, ta Zu zeranagatik, ez arren permiti, aizezko onra orrek bere ondoren ni eramatea. Bada Zuk zure Aita Eternoaren gustoa bakarrik billatu zenduen, eta jendeen esanak ezertan iduki etzinduen: ta orregatik desonran lapur biren erdian Gurutzean illzera etorri ziñan: arren, onraren banidade beltz orañdaño arrastatu nauen au, nik egiaz arrastatzeko indazu indar, ta bear dedan grazia.

Ai Jauna, poderoso zera, ta zure bear naiz. Armatu fuerte au biotzeko gatzelutik ateratzeko zure beso fuerteagoaren indarra bear da. Ea lagun zadazu, Jauna, ta zurekin batean etsai onen kontra eriotzaraño nik peliatuko det. Aize utsa, ta banidadea da onra, ta estimazio guzia. Nere eriotzako tranzeaz akordatuko naiz beti, ta orrekin kea bezala onra ori desegingo da. Ta baldin azkenik nere gorpuz au ere, lurrak jateko, utzi bear badet, zer zorakeria da, au serbitzen, ta erregalaten, nere bizia igarotzea, ta are geiago nere anima galtzeko peligroan? Aragia serbitzen bizi bazerate, illko zerate, dio S. Pablok: baña espirituko indarrak aragiaren obra, ta erresabioak sujetatzen badituzute, biziko zerate. Edo aragaia serbitu, ta betiko ill bear det, edo aragia mortifikatu, ta betiko bizi bear det. Bietatik bat seguru izango da.

Aragiaren gustok txit laburrak, ta denbora gutxiko dira. Ta orren denbora gutxiko atsegin itsusi bategatik betiko nik galdu naiko det? Non da juizioa? Ta nere bizian nik zer egin det? Aragia serbitu, ta nere anima galdu. Baña ai ene! Ai! Orañ ere ori serbitzen, ta erregalaten det! Animo, bada, ta fuerza: zeruko erreinoak fuerza nai du, ta fuerza egiten dutenak, daramate. Ea, nere anima, gorputz oni fuerza egiozu, bada laster utzi bear dezu. Begira denbora gutxi dezu: fuerza egiozu. Begira, infernuko zaramazki, fuerza egiozu. Begira zeruko gloria dijoakizu, fuerza egiozu. O

nere Jauna, Zu zeranagatik indarra indazu, orrekin nik emendik aurrera gerra bizia nere aragiari, ta onen griña gaiztoai egingo diet. Ezagutzen det, bai, nere etsaia dala, ta onen adiskidetasuna falsia dala. Baña, Jauna, gauzarik dan errazena, Zu gabe, ezin badet: gaitzik andien onetan zer egingo det? Betor, bada, zure gloria, Zuk nai dezuna, nik beti egiteko. Amen.

IRUGARREN KONSIDERAZIOA

Ill bearra zierto da, ta badakit: Noiz, non, ta nola ezdakit. Konsiderazio au irakurriko dedan ezdakit. Gaztetan, ala zartu ezker, gauaz, ala egunaz eriotzak arrapatuko nauen ezdakit. Nik dakidana da, ergai, edo momentu bat zierto eztedala. Jesu Kristo egia, ta jakintasanak berak esaten dit, begira nagoela, zeren eriotzaren egun, ta ordurik ezdakidan: lapurren gisa, gutxien uste danean, ta bat lotan, edo ardura gabe dagoenean etorri oi dala. Egia au aditu, ta nor ikaritzen ezta? Ta nor ajola gabe egon diteke? Ai! Ta nola nago ni prestatu gabe? Nola, nere eriotzako ordua banieki, ta zerua eskuetan baneuka bezala?

Gauza izugarria! Onela eriotzak orañ baño len artu banindu, asko gazteago artu dituen bezala, nizaz zer izango zan? Ta nere pekatuen artean artzen banau, nizaz zer izango da? Zenbat bider jolasean, ta farraz, pekatuz beterik egon naz? Eta lo egiten det soseguz, alakorik ezbaliz bezala? Jainko nere kontra aserraturik, ta ni farraz, ta ni lotan? Jainkoa bere espata magitik aterarik, ya niri golpea emateko, ta ni añ ajolakabe? Ya infernuan ondartzeko zorian ni, ta demonioak niri blzaka, ta ni orren ajolakabe? Jauna, zure golpea deskargatu bazendu, zer izango zan? O nola infernuetan sekulako erretzen egongo nintzan!

Ta miserikordia onegatik zer zor dizut? Zer dostatzen zitzatzun, golpea eman, ta ni, zure etsai au, kastigatzea? Baña ai! Ez kastigatu, baizikan deitu, abisatu, ta Zuk erregalatu nazu! O bedeikatua betiko izan zaite ala! Zrue Ontasun andia ezagutzen, ta alegin guziaz, alabatzen det. Txit obligatua nago, ta zer esan ezdakit, Jauna: bada ez beñ, baizik askotan etxeden izan didazu. O miserikordia esan al baño andiango! Ta orañ, Jauna, zer nai-zu nigandik? Jakiña da, ta badakust, bere Jabe maitea. Nere animaz ondo begiratu, ta iltzeko bezala bizi nadilla. O, ta zeñ gauza justua agintzen dezun, ta onetan zenbat dijoakidan zure esana egin ta obeto bizi-tzean!



Bada orrela, Jauna, ta eriotzaren golpea begiz dakusena bezala bizi-ko naz: beti ordu orren zai egongo naz, ta lotan ere bildur ori biotzean idukiko det. Ta, bada, zure piedadeak denbora eman dit, penitencia, ta damuaz baliatu nai det. Biziera zar galduko kontuetan sar gaitean, Jauna, ta bizi berri bat, zurekin batean, asi dezadan. Nere gustoen kontra beti peleatu, ta eriotza on bat billatu, ta etxedengo det. Orañ bereala iltzeko bezela biziko naiz. O au egiten banu! O zer ditxa: ta munduko gauzetatik nere biotza desegiteko nola lagunduko lizakean! O ta gaurko egunean oriek utzi, ta ill bear banu bezala, bizi banintz! Au egin dezadan, Jauna, ta orañ artean bezeñ itsu eznaidin izan. Amen.

LAUGARREN KONSIDERAZIOA

Eriotzako ordua zierto, edo jakiña ez badere, badakit, nere biziaren denbora laburra dala: Laurogei urte geienaz izan diteke. Baña epe luzeagoak ar ditzagun. Demagun, milla urte bizi nadilla: orrenbeste iñor bizi izan ezta. Edo nai badezu, bi milla urte. Dana dala, azkeneko egunean nere burua ikusi nai det. Georenean au etorriko da: ta kontu ori egin, ta orretan pensatzea, txit ondo da. Eriotzako gaitzak ematen dit. Ah! Ta nork daki, batbatean illko nazan? Ai, ta nor onezaz ikaratzen ezda? Beñzat ezdakik, zer gaitz nere atzenekoa izango dan, ta ez noiz, ta nola. Ezdakik, modorra, bereala juizioa kenduko didan bat, izango dan, edo itorik, edo ezpatatz, asko bezala josirik izango dan. Baña ez: guzia, nai bezala, izan bedi.

Izan bedi bi milla urteko bizitza, eta orietan, nai adiña, ta geiagi onra, ta azienda, gusto, ta atsegiñak: itz batean, munduan deseaa al-ditekean guzia kunplitu, ta betea dedala: ta ori guzia alerik pena, ta kezka gabe. Bi milla urteak igaro, ta ill bear, ta atzeneko gaitzak ematen dit, neregan, ta juizio osoan beti nagoela. Denbora nola dijoan, nere eriotzako ordua badator, ta egin kontu, orañtxe dala. O zeñ indar gabe, ta keneik ezdedala arkituko nazan! Begiak ondaturik, ezer ezdakusdala: ya oñak oztu, ta anima falta zaie: oñazeak, ta biotzeko naigabeak estutu, ta eriotzako izerdi otzak ematen dit. Etxekoak badatoz, ta arpegi erori tristean, ta begietako illuntasunean dakuste, bereala ill bear dedala.

Laster, laster, diote: Oleazioa eman bekio. Badator presaka Jainkoaren Ministro Sazerdotea: Olio santuarekin begietan ematen dit, esanaz: UNZIO SANTU ONEGATIK, ETA BERE MISERIKORDIA TXIT

PIADOSOAGATIK, BEGIAZ EGINDAKO PEKATUAK JAINKOAK BARKA DIZAIZKIZULA. Ta onela beste sentiduetan. Amen, diote guziak, eta nik ere al-badet, esango det: AMEN. Iltzekoen Ledania asitzen da, ta guziak diote: *ORA PRO EO: ORATE PRO EO*. Santuak nigatik erregu dezatela: ta al-badet, nik ere esango det. Bularra estutu, ta anditzen zat, ta asnaserik ya ezin artu det. Santo Kristoa, ta kandela eskuetan eman, ta nik eziñ diuki, ta bestek lagundu bear. Oñazeak, ikarak, ito-naiak ematen didate. Medikuak dio, pulsurik ezdauskadala: ta ikusten det nereak egin duela, bereala iltzen naizala.

Tranze estu onetan gogoratezn zat: gaur, ta orañ Jainkoaren Tribunalen agertu bear det, gaur, orañ nere biziaren kontu eman bear det: ta betiko salbazio, edo kondenaizoaren sententzia, erremedio gabe artu bear det. Ai ene, ai Jauna! Nere igaroko bizitzaz zitzaz orduan zer sentituko det? Zer nere gusto, onra, ta banidadeaz? Ikusiko det, oien zale, ta billa ibilli nintzala, ta oiek gerra bizia egiten didatela. Ai, zertan bizitza igaro det? Ta igaro guzitik orañ zer daukat nik? Ezer ez: beñzat gustorik bate-re ez. Penak, ta latzak, eta garratzak: ta gorputzekoak añ andiak dirala, animako oiek askoz ere andiago dira. Bizitzan atera dedan irabazia da, onela errebentatzen iltzea. Ta ez ori nola nai, ezpada ill, ta nere anima eternidade guziko tormentuetara kondenatzea. Ai irabazia! Ai kaltea!

Zer da au? Nere juizioa non zan? Onetako bizitza añ luzea Jainkoak eman zidan! Ta nik au nai, ta billatu izan det? Zenbat bider abisatua izan naz, ta belarriak itxi ditut? Nere biotzean ixil mandatu, edo bere inspirazioak Jainkoak eman, ta nik berariaz oriek aztu, ta kasorik egin ez? Zer? Puntu onetan ikusiko nintzala eznekien? Bai. Ai zer lanzea jokatu dedan! Atsegin laburrak gatik betiko tormentuak: onren kea gatik betiko desonrak! Ta betiko suak nola eramango ditut nik? Nola au begiratu eznuen? Edo nola itsutu nintzan? Erioa bezalako gauza izugarriak, ikara emate etzidan? Su gar betikoak bildurra sartzen etzidaten? Askotan irakurri, enzun, ta aditu, edo pensatu nuen: askotan nere onerako Jainkoak esan zidan. Baña nik farra, ta burla egiten nuen. Bada, orañ nik zer egingo det? Ai nere Jainkoa! Au zer da?

BOSTGARREN KONSIDERAZIOA

Ea: tranze estu onetan alde guzietara begiratu, ta zer erremedio dedan ikusi nai det. Anima nerea: goia, ta bea, alde bata, ta bestea, igaro



dana, ta etorkizuna, orañ danarekin, ondo begira dezagun. Ai, ta zer ispi-llu triste ez ikusteko obeak? Alde guzietatik nekea, ta alde guzietatik nairgabea! Gora begiratzen badet, ikusten det Jainkoaren aserrea, ta onen ezpata magitik aterarik, nere gañean, ta golpea emateko zorian. Jaungoiko guztia nere kontra dagoela ikusten det: ta guziz justua bezela, arrazoi andiarekin, egin diozkadan ofensa itsusiak gatik, aren Ontasun piedade, ta ainbeste benefizio, nola egin dizkidan, nik ezertan iduki gabe.

Bera begiratzen badet, leizaondo, edo zulo andi illun bat, su, ta gar ikaragarritz betea nere begira dagoela, ikusten det, eta an asko deabru aserre, beren atzaparrakin niri eraso, ta nere zorakerien pagua emateko. Ezkerretara begiratzen badet, an beste demonio asko, tranze onetan estutzen, ta ikaritzen nautenak daude, ta diote, gaizki bizi izan zana, ezdala arrazoi, ondo iltzea, ta anima gorputzetik atera orduko, prest daudela berekin infernura eramateko. Eskuietara jiratzen banaz, Aigeru Santu, Jainkoaren mandatariak an daude. Baña Jainkoak oiezaz bialdu zizkidan mandatu, edo inspirazioaz nik kasorik egin ezdet.

Igaroko nere bizitzara begiratzen badet, dana guzia pekatuz, ta Jainkoaren ofensa, ta aserrez betea ikusten det: nere gustoak akabatu, ta tormentu biurtu dirala. Ordu presente oni begiratzen badiot, bereala iltzen nazala, dakust, ta munduan geien nai nituen gauzak, adiskide, ta aziendak ezer baliatzen ezdidatela. Aurrera, edo etorkizunari begiratzen badiot, kontu estua, ta eternidade guztia nere begira daukat, ta dakust, ezin atzea biurtu, ta ezin orrela ere nagokeala. Ai zer estura, ta zer ansiak! Ai zer eriotzaren miñak, ta zer infernuaren bildurrak!

Orañ galde nai dizut: Anima nerea, nola bizi izan naiko zenduke? Zer penitenziak egin izan? Nola Jainkoaren gauzai begiratu izan? Txikitik andira zure pensamentu, itz, ta obretan nolakoa izan? Bada orañ egizu orduan naiko dezuna. Ea bada: bijoaz nigandik, ta ijoaz ordu gaistoan lurreko deseoa, ta betoz zerukoak. Ken ortik onra, ta banidade, ta torpeza itsusien deseoa: ken aziendaren deseoa eragabeak: ta oien lekuan, betoz, nere anima, Jainkoaren deseoa. Munduak nai duena esan beza: naiz santua, naiz Zoroa naizala. Mundua, ta mundukoak neretzat ill bite: ta eriotzako orduan naiko dedan guzia egiten asi nadin. O ta erioaren ispi-llu triste oetan ondo begiratzea, zeñ gauza andia dan! Ta azkenik onetan ikusiko eznaiz? Nere egitekoa au ezta? Bada zer egiten det? O nere Jauna! Indazu arren onetako zure grazia, ez itz bat, ez pensamentu, ta ez gauza txiki, ta andirik egiteko nik, ezpada orduan naiko dedana, ta orduan naiko dedan intenzio, ta zuk nai dezun borondateaz. Amen.

SEIGARREN KONSIDERAZIOA

Estura onetan, bi milla urten kabuan, ta alde guzitik antsiar betarik nere burua iltzeko zorian ikusi, ta begirada berri bat obeto eman nai det tranze onen gañean. Ai! Pensatzeak ikara ematen du: pasazeak zer egingo du? Orduan, bada, nik zer sentituko det? Orañ añ erraz galtzen ditudan ordu oietatik bategatik zer emango nuke orduan? Baña, Jainkoak denbora eman didan ezker, ondo da, erioarekin burruka berriko nere burua iksutea. Onetan kordea galtzen det. Kredo, Kredoa, sinisten det, diote guziak. Esaten asitzen dira; baña nik ezin esan. Biotza lutoz betetzen zat, ta sentitzen det, anima gorputzetik desegin, ta badijoala.

Anima ortzetan daukat, ta al-eginaz, nere biziaren atzeneko gauza bezala, neke andi artan Kredoa esatera animatzen, ta saiatzen naz. Ai anima tristea, zuzaz zer izango da? Batetik Aingeruak, bestetik deabruak daude. Ai zeñena izango ote zera? Ta onetan ikusi bear naz? Ah nere Jaun padosoa. Dedan denbora ontan, uztazu negar dagidan. O nork biotzeko deadarrik andienak, igaroko bizitaren negarretan eman litzakean! Ta bada puntu artan lekurik izango ezdet, orañ au soseguz artu bear det. KREDOA asi, ta akabatu eziñik, atzeneko iru asnaseetatik bat estu estu eman det. Ai pekatari tristea, ta galdua, Jainkoari ainbeste falsia egin, ta aren etsai zerana!

Are estuago bigarren asnasea artzen det, ta eegin kontu, puntu artan bertan, arrazoiaren uso ezker bizi guzian egin izan dedan ona, ta gaitza begietan jartzen zadala. Ai zeñ kontu, ta arrazoi gabe bizi izan nazan, ta zeñ estua artu bear zadan! Azkeneko asnasea ematen asitzen naz. O puntu, o instante, o momentua! O denboraren ergaia, merezi, edo desmereziaren akaballa! O! Onetan anima ateratzen zat! O momentua, zinzi-llik eternidadea daukana! O momentu, eternidade guztia ondoren daka-rrena! Ai! Ai! Jesus milla bider. Justua ozta salbatzen bada: pekatari onezaz zer izango da?

Au ikusiagatik ere badirudi, kalloak egin, ta nagoela, onelako konsiderazio dan suerteenak ere niri mellarik ez egiteko. Nor, au ikusi, ta ondo bizitzera, erretiratzen ezta? Nor ondo iltzeko prestatzen beti egon, ta ariko ezta? Nori onek fuerza egingo ezdio? Bada niri nola egiten ezdit? Nola illa bezala bertatik bizi eznaiz? Ea, bada, beñ, edo beñ nere erokeriak akaba bitez: nere trazak, nere andinai, jakin nai, estimazio, gusto, ta erregaloen deseoa; beste banidadeakin beude betiko. Nere Jaungoikoa,



ta onen borondate santua nai det, ta ez besterik. Ill bedi beste guzia, ta ni beste guziarenzat ill nadin. Jainkoa bakarrik nere biotzean beti bizi dedin. Amen.

AMA BIRJIÑARI KOLOKIOA

Andre guzien artean bedekatua, ta Gure Jainkoaren Birjiña Ama maitea. Nere anima, ta gorputzarekin aurrera pasatu baño len, nere atzeneko tranze au zuri enkomendatu nai dizut. Munduko itsaso nastu onetan, Zu Ar izar ederra, zera: nere ekaiz, ta peligrorik andien onetan, arren zuzendu nazazu. Esperanza, ta konsolazio guziaren Ama, ordu estu onetan penaz, ta antsiar itotzen dagoen oni atsedean, ta konsueloa emaiozu. Nere etsaiak, denbora akabatzen zaiela ikusi, ta persegitu, juizioa galera-zo, ta berakin ondatu naiko naute: arren ordu artan Zuk lagundu, ta libra nazazu.

Ama guziz santa, ta piadosa: izan zaite orrela neretzat. Bertatik ordurako, nere anima ematen, ta biotz guziaz, fede, ta esperanza osoaz enkomendatzen dizut. Zuk zure anparoan artzen banazu, seguru nago. Ea, bada, ni pekataria, zure mantupean ar nazazu. Nere pekatu andiaz azturik, eriotza on bat segura zadazu. Ditzarik andien au, Jesus zure Seme, S. Jose zure Esposo, ta S. Joatxin, ta Sta. Ana zure Guraso maiteak gatik eskatzen dizut, graziakin zu alabatzeko glorian. Amen.

DENBORAREN GAÑEAN KONSIDERAZIOA

Ill, ta gorputz, eta animari begiratu baño len, denboraren laburtasuna, ta merezitzeko denbora nola akabatzen dan ikusi nai det. O ta zeñ laburra dan! Atzeneko asnasea eman, ta ya denborarik ezta. Ah! Lentxeago bazan! Ta onetan zinzillik eternidade guzia dagoela! Ta denbora ori nola nik aprobeztatu bear nukean? O zenbat denbora galdu izan, ta galtzen dedan! Zeñ gutxi estimatzen dedan! Eskua emango balitzat, denbora puska batean, nai dedan adiña urte artzeko: Ah nola punturik galdu gabe, denboraz baliatuko nintzakean: ta are geiago, laburra izan, ta ezbaneki noiz akabatuko zan! Ta zer? Denborak gutxiago balio du urreak, ta ondasunak baño? Badakizu zer balio duen?

Zure animari galde, eriotzako ordu estuan ikusten danean, munduko ondasun guziak baño, ordu laurden bat, geiago estimatuko lukean? Gutxiagoan irabazi, edo galdu diteke zerua. O zer antsiakin denbora prezioso onen puntutxo bat ere ez galtzeko, nik ibilli bear nukean! Eguargia degun artean, Jesu Kristok dion bezala, gabiltzan, geroko au illunak argitzan baño lenago. Denbora momentu bakar bat galtzen badet, eternidade guzirako ori galdua det. Egia da, denbora galduaz, edo nere kulpaz damu izan dezaket; baño beñik beñ, denbora galdua, galdua betiko geratzen da: orrez ezin balia diteke. Igaroko denbora igaro zan: etorkizuna eztago nere eskuan. Oraño instante au det nere. O nere Jaun andia, zer egingo det? Nere igaroko desditxa, ta kulpa barka zadazu: ta oraño denboraz zure eternidadeko gloria irabazten lagun zadazu.



GORPUTZ ILLAREN GAÑEAN

LENENGO KONSIDERAZIOA

Egia da, animak gorputzetik irten, ta bereala Jainkoari kontu emate-ra joan bear duela. Alere soseguz au artu nai det, eta nere modura begiratu. Kontu dagidan, bada, ill ta bereala gorputzarekin zer pasazen dan, ta ori enterratu arteraño, anima begira paratzen dala. Ikusten du nolakoa, zeñ etxura gabe, itsusi, ori, illun, ta ill otza gerazen dan. An daudenak, begiak itxi, besoak konpondu, ta ill janzia ekartzen didate. Batzuek, eta besteak ni ikustera sartu, ta laster dijoaz nigandik igesi, zeren ni ikusiak ikara gogorra ematen dien: ta prisa andia prestatzeko, ta len bait len enterratzeko ematen dute.

Onetan ill Kanpaiak asitzen dira. Batak, ta besteak galdetzen du. Nor ill da? Urlia. Jainkoak kontu on ar diozala: ta bereala aztu, ta beren egitekoetara dijoaz. Ill janzia artu, ta ni ez ikusteagatik begiak beste alde-ra biurtzen dituzte. Beso bata batera, bestea bestera, ta burua bere aldera erorten zat. Geroenean ill janzia sartzen naute. Ah tristea, munduko ondasunetatik zeñ gutxi daramazun obira! Etxean dan erroparik zatarrena; ta onena baliz ere laster zurekin ustelduko da. O zeñ gutxi baliatuko zaizkitzun aide, ta adiskideen negarrak!

Gorputz ori noren eskuetan ibilliko dan, ta nork Eleizara eramango duen ez dakizu. An zulo andi prestatu egongo da, ta Meza esan, ta bereala an sartuko zaituzte, ta zure gañean lenagokoen ezurrak, ta lur ustelak botako ditzuzte: nola nai kalkatu, ta zapatuko zaitzute: ta losa gañean bota, ta alakorik ezbaliz bezala, guziak dijoaz jatera, edatera, ta galanki farra egitera. O, Ta zu zeñ bakarrik, ondatu, ta betiko azturik geratzen zeran!

BIGARREN KONSIDERAZIOA

Emen, nere anima, estazio bat dagigun: begira zure gorputza lurpean, ta nolakoa gelditzen dan. O gorputz galdua! Zu zera nik ainbeste erregalatu, janzi, ta apañtzen zindudana! Zugatik nere Jainkoaz, ta animaren salbazioaz azturik bizi nintzan? O nola zeunden, ta nola zauden!

Lengo janari gozo, ta erregaloak non dira? Soñekoak, eta galak non dira? Joiak, ondasunak, ta gorputza serbitzeko biribillaturikako beste gauzak non dira? Guziak egiten zizuten erreberenzia, zure onra, puntu, ta orien deseño banoak non dira? O aize utsal!

O nere Jauna: erokeria oriek oñpean utzi, ta arren indazu grazia, zuri bakarrik laztan estu estu bat emateko! Ai! Ta gauza orren txar ezerezak Zugandik ni aparta nazatela! Gorputz abereakin bat, ta oriek baño loiago dan onegatik Jaungoikoa nik utzi dezadala! Zer gauza altuago, ta obeagorik, Jainkoa baño? O zer zorakeria nere! Ez arren, Jauna, orrelakorik permiti geiago. Ai zer ofensa egin dizudan! Orren gauza atsa, ta itsusia zu baño geiago estimatu det? Nere gorputza zer da? Auts puska bat. Bada autsa bezala tratatu bear det. Ta nola ill ezker, kalkatuaz kejatzen ezdan, ala nik ere, illa bezala, kejavu bear ezdet. Oñ pean guziak iduki nazatela: ori dagokio gorputz oni.

Betor, Jauna, zure argia, ondo ikusteko, ogei, edo berrogei urte igaro, ta nere gorputz au nolakoa egongo dan. Emen buru ezurra, an beste ezur utsak. Ai zeñ aztua! Birreun urte igaro ta zer izango da? Ta orañ onragatik, zer dioten, nigatik zer senti duten begiratzen det. Ai nere desdita! Ai zeñ itsua ibilli nazan! Oñ azpian emendik aurrera gorputz au, ta banidade guzia idukiko det. Gorputz illari, auts ustelari bezala begiratu diot. Lagun zadazu, Jauna, zuretzat bakarrik bizi nai det.



BAKOITZAREN JUIZIO, EDO PARTIKULAREN GAÑEAN

LENDABIZIKO KONSIDERAZIOA

Ill ezkeror, zure gorputz ori arrak jateak, ezer esan nai eztu. Animan dago kontua. Gorputza usteltzen utzi, ta orañ soseguz, gure erara, animari jarrai diozagun. Goazen, bada, nere anima, Jainkoari kontu ematera: baña Jainko bati, zeñaren justizia ondo gabea dan: Jainko guziaren berri dakien bati. Ah ta zeñ urrutu dauden gizonen juizioak Jaunaren juizioetatik! Ah! Ez kanpotik dirudienaz, ez bada barrendik egiaz danaz ark juzgatzen du. Ai, Jauna: nola kontu au emango det? Nola irtengo ote naiz? Eternidade guzia dijoa onetan, ta sekula guzietako zerua, edo infernua. O! O! zer izual!

Orañ, zer izango dezun, jakin bear dezu. Ta kontuetan alkanzatzun banaute, nizaz zer izango da? Zer kontu det: ta Jainkoaren juizio onetan gauzak nola dijoaz? Ai ta ori nork esango dit? Juizio onen tela ikusi duten batzuekin kontu egin nai det, an zer igarotzen dan nik ikusteko. Kontu dagidan, bada, argitasun eder bat ikusten dedala, ta Aingeru txit eder asko: oien erdian anima bat, emen munduan txit aztu, ta gizonen artean txit utzirikako pobretxo batena: onek koroa guziz eder bat daramala, ta musika txitezko suabearekin Aingeruak kantatzen diotela modu onetan: Negu triste euriz, ta nekeza bete zuretzat igaro zan, ta udaberri gozo betikoa etorriko da. Ea anima fiel zori-onekoa, alegera zaite, ta zure Jaunaren atsegiñetan sar zaite.

O zeñ berri onak! O zeñ suerte ditxosoa! O neke ondo eramanak! Suerte orregatik zer egingo eznuke nik? Orren trukean, munduko neke, ta penak zer dira? Relijio batean kozinari, ontzi garbitzalle humillena izatea, penitziarik arrigarrienak, ta arrastakako bizitza bat egitea, Koroa ori irabazteagatik zer da? Ezer ez. O! Aita, ta Ama, aide, ta adiskideak, onra, ta aziendak utzi, ta nere buru, edo borondatea autsi, ta ukatzea, ditxa ori alkanzatzegatik zer da? Ezer ez.

Aurrerago noala, ikusten det ke izugarritzko odei illun bat, ta adia dolozko deadar trsite batzuek aditzen ditut: onetan demonio ikaragarri batzuek beren erdian dakarte itsatsirik gizon estimatu, aberats, jakinsu bat, deadarrez diotela: Ea, bitoria, bitoria: gereaz irten gera: betor, betor,

infernura betor. O! desdixaduak zer esango du? Ai ene! Ai ene galdual! Infernuko kateakin erremedio gabe nago! O zer ikara nik artu bear det, orrenbeste gertatuko ote zadan! Ta igaroko bere bizitzaz zer esango du orduan? O zer gorrotoa onra, ta gustoan kontra artuko duen! O zer aserre bizi infernukoak artu, ta eziñ asperturik arrabiaz madarikatzen asiko dan!

Madarikatua, esango du, madarikatua izan dedilla nik jan nuen ogia, ta edan nuen ura; Madarikatua ni sortu ninduen Aita, ta erdi nunduen Ama; Madarikatuak nere gustoak, nere onra, azienda, ta jakintasuna; Madarikatua izan nadilla ni beti, ta betiko. Madarikatua izan dedilla Jaungoikoa, ta arekin dauden guziak. Galdua naz, kondenatua naz. Onetan ikusten det, nola deabruak suz ta garrezko atzaparrakin infernuaren ondarrera daramaten. Ah! Puntu onetan mundura biurtzen uzten balidate! Zer egingo nuke? Baña zer egingo eznuke? Orañ ezta denbora. Kontu ematera goazen. O denbora denbora! O denbora gaizki estimatua, ta gaizkiago igaroa. O denbora munduko ondasun guziak baño preziosoago!

BIGARREN KONSIDERAZIOA

Nere modura kontu dgidan, bada, Jainkoaren Tribunalean sartzen naizala, ta Jarleku guziz eder batean Jesu Kristo eseririk ikusten dedala, ta aren aldean Ama Birjiña txit, santa, ta Aingeru asko. Beste aldetik txit demonio asko, nere bizitzako Librua dakartenak: ta tixt kontentu, auzia klaroa, ta sententzia berena dutenak bezala. Jaunaren Majestade aundiaren aurrean presentatzen naute: onek nik egin dedan guztia daki, ta nere pausoak, ta pensamentu, itz, ta obra guziak kontuak dauzka. Aingeruak alduen erreberenzia guziarekin auspez aren Majestadea adoratu, ta kantatzen diote: SANTU, SANTU, SANTUA, Ejerzituen Jauna; zure borondate guziz poderosoari erresisti diozakeanik ezta. Ta guzia isildu, ta.

Bereala gure Jauna asitzen da, ta esaten dit: Nik bizia eman, ta gorde zaitut. Nik memoria, entendimentu, ta borondate beste doai askorekin eman dizut. Nik pekatuaz zu galdu ezin dezen, zugatit Gizon egin, ta negar egin nuen, gose, egarri, pobreza, ta nekeak artu nituen; zugatit azotatua, koronatu, ta lapur biren erdian Gurutzean josia izan ninzan. Nik an nere odola, ta bizia eman nuen. Zer nik zugatit egin al nezakean, ta egin ezte? Ainbeste ere urtean etxeden, ta sufritu zaitut, miserikordia miserikordiaren gañean egin, ta zeruarekin konbidatuaz. Orañ, bada, zuk



esazu, ta nik eman dizudanaz kontu emazu; zugatik eman nuen odolaz kontu indazu. Nere amorioari, ainbeste benefizio espiritual, eta denboral, nik egin dizkitzudanak, nola pagatu dituzun, ta nola erantzun didazun orañ ikusi dezagun.

Ai! Ai, Jauna! Nere konzienziak zer sentituko du? Ai, ta zeñ alkanzaturia kontuetan arkituko nazan! Zer egingo det? Onetandemonioak eskua artu, ta esaten didate: Gurea da, gurea da ta argatik, Juez justua, entrega zaguzu. Libruak idiki: ta itz alpertxo bateraño, egin dedan guzia kontatzen dute; Onelako egunetan, Jauna, ta onelako lekutan alako pekatu egin-tzuen; onelako egun, ta onelako bazterrean alako pekatu; orren Jainkoa sabela zan: orren idoloa onra zan. Gauza onen bat egiten bazuen gizonen esanagatik, edo ondo iristeagatik zan. Zertan dudatu eztago. Zure benefizioai ofensakin eranzun die: bere pekatuakin onek Gurutzean josi zinduen. Askotan Zu onen biotzeko ateetan deiez, ta idiki bearrean, atez arpegian eman zizun. Zure abiso, ta inspirazioai kasorik ez, ta askotan ondo zekusela, pekatuaz zerua galdu, ta gure esklabo billau geratzen zala, orregatik ere sekulako galdu nai zuen. Bada berak nai zuen, berak paga dezala: bere merezi duen pagua ar beza.

Juez justua nigana biurtzen da, ta deskargua eman dezadala agintzen dit. Nere Aingeruagana biurtzen naz, ta ikara andiaz, nere biziaren prozesoa irakurri dezala eskatzen diot. Aingeru Santuak nere obra guziak, txarro bat ur pobretxo bati emaneraño, ezer utzi gabe, diranak kontatzen ditu: penitenziak, ta beste birtuteak ere bai. Baña demonioak burla egiten dute, eta oriek Jainkoaren izenean, bear zan intenzio, ta bitz onaz etzirala munduagatik baizen. O zenbat obra munduarekiko onak, an utsak arkituko diran! Lotsatu, arritu, ta zer esan ezdakidala geratzen naz, zeren Jainkoagatik ezer egin eztedan. Emen Juezak nere sententzia artzeko, begira nagoela agintzen dit, edo ala kontu egingo det.

IRUGARREN KONSIDERAZIOA

Ai! Zer izango da zuzaz, Juez aren Tribunaleko ateetan sententzia etxedeten zaudenean? Ai ta sententzia erremedio gabe betikoa! O zer beltzuriak, zer izerdilikak, zer bildur, ta naigabeak sentituko dituzun! Salbatuko ote zeran, edo ez. Emen nik galde nai dizut: zer egin izan naiko zenuen? Zer bizimodu artu izan naiko zenuen? Bizitza nagiaz, edo gutxi egiñaz, ala gauza guzietan al zan ondoena egiñaz kontentuago izango

ziñan? Ta estura onetan zaudela, mundura biurtzeko lekua emango bali-zute, zer egingo zenduke? Zer artu, ta zer utziko zenduke? Zure pensamentu, itz, ta obrak nola ordenatuko zinduke? Nola esaminatuko zinduke? Lengoen penitentzia nola egingo zenduke. Ah! Zeñ biotzetik Jainkoari esango ziñokean!

Jauna, penitentzia egiteko lekua indazu: pozik, ta nere alegin guziaz, bizitza ikusgarri, ta ikusi eztan bezalako bat nik egingo det. Orañ, bada, kontuetara. Zuk infernua merezi zenduela, Jainkoak denbora au eman dizu: bada orduan esan, ta egingo zendukeana, zergatik orañ bereala egingo ezdezu? Orduan juzgatu, ta gogotik artuko zendukeana, oraño zure obra, gogo, ta intenzioen erregla zergatik izango ezta? O zeñ gogotik onena guzian orduan artuko zendukean! Zergatik, bada, orañ egingo ezdezu? O nola zure salbazioarako egokien zan estadu, ta bidea artuko zendukean! Zergatik, bada, gaurtik biarrera, ta galtzeko, atzeraka ibilli gabe, orañ ori artzen ezdezu? O nola, zure anima salbatzeagatik, onra,azienda, ta aideak utzi, ta zere burua ukatuko zenuen!

Zergatik, bada, orañ egiten ezdezu? Ea: txit gogotik artu bear det, orduan naiko nukean guzia, orañ bereala asi, ta egitea. Nai duena kosta bedi, nere gusto, ta deseo guzien kontra badere. Guziak baño nere salbazioak geiago balio du. O nere Jauna, zure bear naiz: zure indarra betor. Zu gabe, nik ezer balio ezdet. Ea zure argia betor nik ezagutzeko zure borondatea, ta konbeni zadan bizimodua bere-bereala artzeko. Nere Aingeru santua: nola egingo nuke? Nere bizia nola zuzenduko nuke? Birjiña Ama guziz maitea: zuk ere lagun zadazu, ta Jaunari eska zaiozu, zer nik egitea naiena duen, erakatsi dizadan.

O Jauna balia dakidala! Ni beste bat banintz Aingeruak zer eranzungo lukeala deritzat? Zer Ama Birjiñak? Zer akonsejatuko luke Jesu Kristok berak? Ea dakuskun, nola bizitea aginduko lioketen? Orra, bada, enre bidea: orrelaxe nere pensamentu, itz, ta obrak izan bear dute; ta aurrera, onela egin dedan, ala ez, gau oro kontuz esaminatuko det. Aita Eterno, ta nere Jaungoikoa: Jesu Kristo zure Semearen amorez, ta izenean, arren onetarako bear dedan grazia indazu. Bada denbora eman didazu: ori nik galtzea, ez arren, Jauna permiti.



LAUGARREN KONSIDERAZIOA

Ai nere anima! Kontu au garbitu, edo eman artean, nola atsedean dezakezu? Batez ere txit santuak berak onen bildurra, ta andia zeukatela ikusirik. Bada nola ni ikaratuko eznaiz, pekatari añ andia bizi guzian izan nazala. Sobra pekatu egin ditut: barkatuak dauden, ezdakit. Guzien kontu estua eman bear dedala, badakit; ta Jainkoaren juizioa egia bera dala. Egin bear zadan karguaz oroitzea, bat arritzeko asko da. O nere Jauna! Bildur au beti bitzean josirik baneuka! O nere biziko pauso guziak, eman bear dedan kontu au begien aurrean daukadala, ematen banitu!

Bada, anima nerea, juizio estu, aurrean daukazun au zure bizimodurako freno izan bedi. Ta geroenean ere sententzia bata, edo bestea eman bear bazat, eta salbazioa nik ainbeste deseaten badet, ta orañdaño kondenzioa askotan merezi izan badet; arrazoi izango da, sententzia bata ta bestea ematen zadala, nik kontu egitea. Orrela ikusiko det, zer sentituko nukean, ta salbazioarena gogotikago artuko det, kondenzioatik iges egiteko. Obeto onela, merezi nituen penak ikusi, ta Jainkoari, egiten didan faborea, biziera santu batez pagatuko diot.

BOSTGARREN KONSIDERAZIOA

Lenengo, nere buruari, pekatari galdu bati bezala bada, ala naiz, begiratu nai diot nere modura gauza oiek artu, ta aditu, ta soseguz kontu egin nai det; Tribunaleko atetan egon ezker, sententzia emateko, barrena deitzen, ta agintzen didatela. An Jueza nerekin aserre dagoela ikusten det. Ai nere Jesus ona! Zu aserre, ta bere kontra ikustea, norik sufri dezake? Beste infernu, edo penarik ezbaliz ere, onegatik bakarrik, munduko gauza gaziakgatik etzinduket ofenditu nai. Ta au nere bizian nik bildu, au nik irabazi det? O nere desdixadua! Zure ao gozotik kondenzioa itzak enzun bearra, pensatuak berak ikaratzen nau. Jaun guziz poderoso, ta nere kontra aserraturik?

Ai enel! Zer dolore izan diteke onen parerik? Obe litzake mendiak azpian ni betiko ondaztea. Kastigu mota guziak betoz, Jauna, nigana, nik Zu aserre ikustea baño lenago. Eritasun, ta gaitz-modu mundu guzian izan diranak, ta munduaren kaburaño izango diranak betoz nere gañera, ta nik Zu aserre ikusi etzaitzadala. Demonioak asma al ditzakean tormentu, ta pena guziak betoz, Zu nere kontra aserre ez egoteagatik. Ai

nere Jainkoa, ta nere pekatuakin aserrera zaitudala! o sekulan egin ezbanitu! O mundu gizaren aurrean negarrez, ta deadarrez desegin banedi! O pekatuan lotan zauten Kristabak: jaiki laster, jaiki zaitezte. Noiz artean biotz orren pisu, itsu, gogorra izango dezute?

O norik mundu guzia arritzeko diña dan deadarr bat, norik eman lezakean, eta San Juanen gisa esan: laster, gizonak, Jainkoaren aserretik iges laster. Nola iges etzoazte? Gizon aserratu bategandik igeska zoazte: ta Jaungoiko aserratuagandik ez? Orduan, bada, bere aserre guztiaz Juez justuak Aingeruai esango die. Nik seme au azi nuen, ta gora jaso nuen, ta onek gaizki pagatu, ta despreziatu nau. O Jauna! Zeñ arrazoi andia daukazun: edolarik uztazu negarrez urtutzen.

Aurrerago banoa, ta aren begiak su gar izugarriz beteak, ta aren itzak ezpata zorrotz alde guzietara erdiratzen dutenak dirudite. Oa, madarikatu ori, dio, Satanas, ta bere lagunakin: oa nigandik betiko infernura. Ai! Demonio, an diran guziak bereala erasotzen didate iskanbilla andiaz, suz ta garrezko katekin lotu, ta alde guzietatik nastutzen naute, ta beren erdian naramate. O zer biozteko estura! Ai! Ai! Ote da bide, edo erremerdiorik, ni etsai oietatik libratzeko!

Al dedan bezala belauniko jarri, ta Aingeru, ta Santuetara biurtzen naiz: ta negarrez urtutzen, nere Aigneru Guardakoari, ta nere debozioko Santuak deitzen diet; Ea nere Aingeru, ta Santuak lagun zadazute: laster bitarteko irten zaitezte, bestela demonioak banaramate; nigana laster, Jainkoagatik. Baña: orañ ezda denbora, diote: ta nere Aingeruak esaten dit: ondo merezia daukazu kastigu au, bada nere esanik egin nai etzenduen. Zure lagun, zurekin beti nenbillen; juizio, ta kontu estu au aurrean nik zuri ifiñi, ta zuk niri kasorik ez. Nik Jaunaren pakera konbidatu, ta zuk nai etzenduen; orra bada, sekulan izango ezdezu: alper da eskatzea; pekatarien deseok ezdira kunplituko. O errespuestaren garratza!

SEIGARREN KONSIDERAZIOA

Estura onetan zer egin al dezaket? Ea Ama Birjiña gana biurtu nai det. Jainkoaren Ama, Birjiña, Andrea: Misericordiazko Ama, ta txitez piadosa, ta Ama guziz gozoa. Bada zera pekatarien Ama: ona ni pekatari triste desdixadua; izan zaite nere Ama; zure misericordiaz usa ezazu nizaz, ta etsai oietatik libra nazazu. Baña ai! Orra non aditzen dedan, misericordiarik ezdala nerretzat, eta Amaren ofiziorik egingo ezduela. O



nere zori gaiztokoa! O nolako Ama sekulako galdu dedan! Pekatuak egi-tean, beste gaitzik ezbaliz ere, onelako Ama galtzea baizik, au ezta asko pekatutik iges egiteko? Ta Ama nereak uzten, ta desanparatzen banau, nor nizaz oroitu, ta lastimatuko da?

Ai nere Jaungoikoa! Ta nik au merezi det, zeren aren amorioa Ama guziena baño andiago izanik, denboraz ni aprobetxatu eznazan! O emen desbentura onen gañean nork negar legikean. Ea, nere biotzeko barren barrendik Jesu Kristo gure Jaunari deitu nai diot: Nere Erredentore, ta Jauna, miseriakordia nizaz. Akorda zaitte, ni etsai oietatik libratzen-arren zure odola, ta bizia eman zenduela: orregatik, bada, Jauna, ta zure Aitari diozun amoreagatik piadeda nizaz. Baña esaten dit: orregatik bera gatik, zeren ori guzia, ta denbora nik eman, ta baliatu nai etzenduen. Ken ortik, etzaitut ezatutzen. Nola, bada, Jauna: otsegiten eznizun; Jauna, ta nere Jainkoa? Konfesatzen, ta komulgatzen ez nintzan? Bai, baña aoz ori esate: Jauna, Jauna, asko ezta. Itz ederraz ni pagatzen eznaiz, ezpada biotzetikako obraz, ta nere Aitaren borondatea eragiten dutenak. Konfesio, ta komunioaz bear bezala baliatu baziña, erremedioa zenduen.

Ai Jauna, arren miseriakordia nizaz. Esaten dit: Miseriakordiaren atea zuretzat itxi zan. Orduan Deabruak itsatsi, ta berena bezala naramate. Damu gorri gaiztoan joango naz, ta itz samiñ aietan pensatuko det; Ai! Erremedioaren atea itxia dago neretzat: ta ori betiko! Ta au Jesu Kristok, egiak berak diola! Ah! Zeruak, ta lurrak lenago faltatuko dute Jaun onen itzak baño! O itxiera betikoa! O eternidadeko desditxa! Jesu Kristo len besoak zabalik ni artzeko zegoen, barkazioa niri agindu zidan, ta bere odolaren kostuan zeruko atea idiki zidan. Ta ya sekula guzietako neretzat itxia dagoela! Ta au iduri pena ezdala, ezpada egia bera! Itzik, ta modurik ezta, onezaz anima batek idukiko duen sentimentua adierazotzeko. Aurrena igaro baño len, bada, zuri deadar egin nai dizut.

Begira, nere anima, begira ondo desbentura onen andia. Milla bider ta geiago sententzia au merezi izan dezu. Ea denboraz balia zaitte. Begira desditxa orretan aurrera erori etzaitezen. Obrak dira amore, ez itz onen kalore. Obretara, bada, denborak dirauen artean: noiz artean datekean eztakigu; estimatu, ta aprobetxa gaitean. Gaurtik biarko egiteko andi au uztea, ondo izango da? Bear bada batean, benturaz denbora izango det, batean uztea, ondo izango da? Orrelako gauza orrela artu? Ez orixe. Eternidade guzia orrela? Ez orixe. Bereala, esan, ta egin. Bertatik asi gaitean:

ken enbarazo guziak; dana dala, ken: ta biziera berria, denboraz baliatu, nere borondate galdua ukatu, ta desegin, ta nere Jainkoarena guzian egin nai det. O Jauna, ala zuri nai dakizula! Betor zjzure grazia, ta erakutsi zazu zure bidea. Amen.



INFERNUKO TORMENTUEN GAÑEAN

LENDABIZIKO KONSIDERAZIOA

Juizioko sententzia aditu, ta erremedio gabe zere burua ikustean, ta lasterka Demonioak biribillan infernura zaramazkitela: ai nere anima, zer pena sentituko dezu? Ta are geiago aiek ikustean, algaraz triunfalarien gisa dijoazela, ta zure burlaz diotela: Ea, ea, onezaz nai deguna egin degu; gureaz irten gera; engañatu degu; Ah zorigaiztokoa! Sekula guzietan gure katibu izango aiz. Ta orrela nere betiko kaltearen billa dabilizan etsaiari sinistu bear diet nik? Ni galdu, ta farra, ta algara egin nai dutenai orrela sinistu bear nik? Oriezaz fiatu bear det? Bada, oprra zer pagua emango didaten. Ai nere Jaungoikoa! Zeñ lo pisuan egon nazan, ta nagoen, one-lako, ta onenbeste etsairen artean!

Kontu dagidan, bada, lasterka infernura naramatela: ta ara allegatu baño len, begiak zerura joastzen ditudala. Ai ene: zer galdu dedan, ta zer gatik! Ai anima, ta zezñ erraz zerua alkanzatu, ta Aingeruen lagin, ta Jainkoaren alaba maite izan zindezkean! Ta orañ begira, nola, ta nora zoazen! Onetan ibar batera allegatzen zera: andik infernuko leizondoa ikusten da. Be artan begiratuko det, suz, ta garrezko ibai andi ke guziz izugarri illun bat botatzen duena; an demoniodi, berariazko erramienta arrigarriz, ni tormentatzeko prestatua. Baita kontu egingo det, Purgatorioko suak ere, eta an anima santa asko, tormentu ikaragarrietan ikusten nagoela. Ai ta nork luke an zuen suerte ori! Libru, ta paper guzietan letra diran baño urte milloi askoz geiago or egon bear banuke ere!

Emen erreparatu nai det, askoz ere gutxiago dala, Jainkoak eskatzen didana. Zergatik, bada, bide ori artuko ezdet, eta penitentzia egingo, gorputza mortifikatuaz, janean, edanean, itzegitean, begiratzean, ta orrelako gauzetan? Demonioak geiago largatzen ezdidate an; ez bada, infernua dala nere betiko tokia esanaz, botatzen naute an bera; ta errota arri bat zerutik itxasora indar guziaz botako baliz bezala, infernura tiratzen naute, diotela: Jausi da, jausi da Babilonia andia; nere onra, soberbia, erakeria, andinaia, estimazio, erregalo, ta gustoak bururik sekulan ezdute jasoko. Oiek dira aizezko torre nik nereko egin, edo jaso nituenak? Oiek nere trazak? Onetara dira nere anditasun, ta erregaloak? Ta au ikusi, ta beti era batera biziko naz? Biziera ohea artuko ezdet? Zer egiten, edo zeren begira nago?

Au ikusi ezkerro, zer gaitz Jaunaren bidean izan diteke? Zerzaz keja naiteke? O nere Jainkoa! Zeñ ezereza nazan; bada, au ikusi, ta desegiten ez naz. Lagun zadazu, Jauna.

BIGARREN KONSIDERAZIOA

Golpe batean, bada, deabruak su aietan ondatuko naute. An konsideratuko det, nere gañean eun lantza gori duadela, ta bean, ta alde guzietan beste ainbeste, ta ni guzien erdian. Suak berun, ta metallu urtu guzietan baño geiago erretzen du; ta emengo suak pintatuak dira aren aldean; ta ala nere burua, begiak, aoa, musuak, onak, eskuak, ta gorputz guzia begiratuko det, sutegitik goritu, ta ateratzen dedan burnia bezala. Zer dolore, zer tormentua izango da? Ai ta nork sufrituko du? Eskuan erorten zadan geldo, edo txingar bat eziñ sufritu det: su gat betikoa nola eramango det? Su alea, suzko botoi, edo lanzetada bat eman bear bazat, orren bildurrak berak loa kentzen dit. Bada tormentu aiek nola arritzen eznaute?

Egia esatera, tormentu ori, ABE MARIA esan arte, sufritu bear baliz, ez geiago; alere munduko ondasun guziatik ezlitzake inor izango tormentu orretan jarriko litzakeanik. Nola ni orretara obligatu izan naz, ta betiko? Ta ez Erreino akgatik, ez bada aurkeriakgatik, ta doarik, ta eternidade guztirako? Ai ta au jakin, ta nola ikaratzen ez naz? Ebanjelioko egia au, sinisten dedan bezala, sinistu, ta gaitz orren andiak nola izutzen ez nau? Jakin ori guzia merezi izan dedala, ta barkatu zadan jakin ez, ta onen seguru, ta etorriko ez dala, zierro banengo bezala? Ai ta orañdaño-ko kulpak barkatuak baneuzka ere, aurrera etorriko naizan ez jakin! Ai bildurraren trista!

Onekin batean pisa dezagun, illuntasun andi beti demonioak begiz, ta alde guzietatik ikusi bear gogorra. O illuntasun betikoa! Baña ondo perezia, zeren begi oriek pekatuako ilun bea, Jainkoaren argia baño naiago zuten. Zer? Buru gabeko lau desonesto, edo ero utsai, Ebanjelioari baño lenago jarraitu bear diet nik? Nere pasio, edo griña gaistoak onela itsutu naute? Nola itsu buru gabeai jarraitu diet? Demonioen bistak zer tormentu ikaraz bete emango du? Batetik añ itsusiak berez diralako, ta bestetik eriozko gure etsai animak tormentatzen dituztenak diralako.

Ango deadar, ta garraxi triste adiaz beteak belarriari zer tormentua emango diote? Ango usai ustel kiratsezko illgarriak: ango gusto samian garratzak; ta ango oñaze, ta gortuz guztiko tormentu ezin esan-alak? O



nola guzia erre, egosi, prejitu, ta dolerez errebertatzen egongo nazan! Begira, bada, ondo, su, ta tormentu orietan nola egongo zinan: ta keja, ta garraxi samiñakin esango zenduen: Ai ene bada! Erretzen, illtzen, ler egiten det! Ai! ezin eraman det! Momentu bakoitza milloi bat urte egiten zat! Eternidade guzian nola eramango det au? Noiz akabatuko da au? Iñoiz ez. Noiz alibiatuko da? Iñoiz ez. Noiz emendik irtengo naz? Iñoiz ez.

Ai! Nork emendik aterako nau? Iñork ez. Erremediorik eztago? Ez. Nork konsolatuko nau? Iñork ez. Nor nizaz lastimatuko da? Iñor ez. Konsuelorik ezdala: erremedio, ta esperantzarik ezdala? Ez. Ta emendik eun milla urtera? Ez, eta sekula guzietan ere. Zer egingo det, bada? Erre, ta txiskaldu, arrabiatu, ta ill nai, ta ezin ill. Zer da au? Norgana biurtuko naz? Eztago norgana. Ez zeruan, ta ez infernuan ondo nai dizunik, ondo ikusi nai zaituenik eztago, ta sekulan ezda izango. O pena, ta pena guzien azkarria!

Ta igaroko onen, edo gero uste diranen memoriak alibioa ematen badu, infernuan orrek ere lekuri eztu. Aurrera oberik ez izango, ta ez usteko da: ta lengo onaz akordatzek tormentua geitu, ta andituko du; ta orrela memoriak bere pena izango du, zeren atsegin eman dezakean gauzarik gogoratuko etzaion. Borondatea beti desegingo da, zeren gustoko gauzarik beñere egingo ezduen, ta beñere nai ezduena beti izango duen. Entendimentuak bere pena du, beti bere desdixta onetan pensatzen egon bearra, beti orren gañean, ta orren azpian egon bearra; kanpotik, eta barrendik beti tormentuz itorik. Onez guziaz gañera konzienziaren ar goset biotzeko ura.

O! ta au guzia ikusi ta nola kondenatuak jai o ziran eguna, jan zuten ogia, ta egin zuten guzia madarikatuko duten! Zer arrabia beren kontra idukiko duten! Eriotza deseatu dute, baña etzaie emango. Guziak gorroto bizian egongo dira elkarrekin, ta bakoitza bere buruarekin, ta al balute, elkar ito, ta bokaduka jango lukee, ta ori ditxa anditzat artuko lukee. Ai, Jauna, au zer da? Gaitzik andienzat emen daukaguna, zeña dan eriotza, ta ikaritzen duen ill bearra, infernuan deseaten da, ta gauza anditzat artuko litzake! Ta pekatu bategatik Kristaba orretara obligatzen da? Ta orregatik ere txarro bat ur edatea baño errazago pekatzen du? Ai, Jauna, itza falta zat, burua falta zat desdixta au, bear bezala, pisatzeko!

IRUGARREN KONSIDERAZIOA

Zer uste dezu, nere anima? Infernuko tormentu betikoak zer diran sobra ikusi, ta pisatu dituzula deritzatzu? Bada jakizu, esan dan guzia aien aldean, ezerez dala. Ta ala, tgmentu oriek zer diran, egiaz, ta barrendik zuk ezin ezagutu arren, zerbait obeto ezagutzeko, lengo leku illun artara, biur zaite, ta an zere buruari begira zaiozu pena ikaragarri aietan, batere konsuelo, erremedio gabe, ta eternidade guzirako. Ta kontu egizu, nola bereala, eternidadea zer dan, pensatzen asiko zeran; ta esango dezu: Ai! ta tormentu oiek, ezin geaigo ala, onen pisuak dirala, beti iraun bear dute, ta beñere akabatu bear ezdute? Ezta iñoiz ere. Itsasoan ur tanta diran adiña urte igaro, ta ere emen egon bear det? Bai. Ainbeste milla urte noiz igaroko dira? Bada urte oriek guziok igaro, ta nere tormentuak, orduantxe asitzen balira bezala, izango dira, ta esperanza gabe, ta betiko. Bai.

Ta eun milloi urtetik urtera itxasotik ur tanta bat aterako baliz, ta dana, itxaso guzia orrela aortu bear baliz; ta ori ez beñ bakarrik, ezpada askotan, ta ainbeste bider, nola aire guzian lauso, edo atomo diran; alere milloi oriek akabatuko dira. Ta infernua akabatuko da? Ez. Orduantxe asitzen baliz bezala izango da. Milla bider, ta milloi asko bider kontu ori egin bedi, eta orobat izango da? Bai. Ta orregatik ere infernuko tormentuak, ta eternidadea bere asieran, bere artan egongo da? Bai. Ta esan, ta pensa al ditekean denbora ori guzia, ta are geaigo bear baliz, itxasotik ur tanta bat ateratzeko, ta ur guzia orrela aortu bear baliz, ta au berau askotan, orobat litzake? Orobat. Kontu egin al guziak eginta ere? Bai.

Zer egingo det, bada? Ezer ez: zer egingo eztago. Erremedio, ta esperanzarik eztago? Infernu onetan beti? Tormentu oietan beti? Eternidade guzian? Fin gabe, fin gabe, fin gabe? Beti emen erretzen, ta ill gabe beti iltzen? Akabatu gabe, beti akabatzen? Eternidade guzian? O! O zeñ laburra zan bizia, ta eternidadea zeñ luzea! Jai o, ta ill guzia bat esan zitekean. O munduko gauzak nola aize piska bat, ta banidadea ziran! Ta ni añ eroa, non ta jakiñik infernuko tormentu oietara anima zerkartela, orregatik munduko atsegin laburren ondoren txoratuta nenbillen? Ta orregatik, nondik onra, ta azienda geaigo biribillatuko nuen? Ango soberbiak, jakiñ naiak, ondasunak, ta atsegin loiak zer serbitu didate? Leku desdixtazko onetan sartzeko, ez bestetako. Aragiaren frutuak oiek dira. Munduaren sariak oiek: ta deabruaren pagua eroenzat au da.

Ai! Erregalo, ta gustoai batek ematea au da! Ai! ta zeñ laburra kontentua, ta zeñ luzea tormentua! Au ikusi ta nor beregan sartzen, edo biur-



tzen tzta? Nork, emengo gusto laburrak gatik, betiko galdu naiko du? Ta zer egin bear eztu batek, eternidadeko pena oietatik iges egitea gatik? Are geiago dakiela, milla bider bere ainbeste pekatugatik ori merezi zuela. Argatik Santuen penitenziak, nekeak, alegiñak añ andiak zirala, ikaratu bear eznaute; zeren oriek etziran ezer infernuaren aldean, ta gutxi guzia, gaitz onetatik eskapatzearren. Jainkoak argia eman zien, eternidadea zer dan ikusteko. O nere Jauna! Ori ikusi, ta ondo ezagutzeko indazu grazia, ta seguru nere biziera ohea izango da.

LAUGARREN KONSIDERAZIOA

Obeto egia au aditzeko, kontu egin nai det, esan diran urte oriek igaro dirala. Ai ta tormentuz, ta penaz zeñ ase, edo aspertua egongo nazan! Berriro begiratu nai det igaro dana, ta etorkizuna, ta zeñ erremedio, ta esperanza gabe nagoen. Onetatik zeñ erraz libra nindekean, ta nola nai eznuen badakust. Ai au guzia nere kulpaz daramat nik? Esan zidaten, ta kasorik egin eznuen! Ai zenbat konseeju on, ta ejemplo obe, zenbat Jainkoaren mandatu, inspirazio, ta bildur santu bata bestearen gañean niri etorri, ta guzia largatzen nuen! Ai ta zergatik? Aurkeria, ta ezerez bategatik. Ta egia da au? Nik dedala kulpala! Ondo nekusela, pena oietara sujetatu nazala? Jainkoak deitu, ta ni gortu! O nere itsua, ta zoroa!

Jainkoaren deia iñoiz enzuten banuen, larga geroko? Ai ori egin det! Ori nik egin det nere Jainkoarekin? Ai orañ arrak jaten, ta penaz desegiten nola egon bear dedan! Ta ar bat beñere illko eztana; ta ai bat beñere ixilduko eztana! Ai ene ditxa gabea! Nola arrazoi izango da Jainkoaren inspirazioai erantzutea? Orañdaño bezala gortu, ta sortutzea ondo izango da? Biar, ta geroko beti utziaz? Ai nere Jaun amorosoa! Ez arren, Jauna: orrelakorik egin ezdezadala! Bereala, orañ, puntu onetan asi nai det. Ea, Jauna, itz egizu, enzungo zaitut. Zuk agindu, zuk zuzendu, ta nikk jarraitu. Zuk esan, ta nik egin. Eternidadeko desbentura onetatik libratzeagatik, pozik, Jauna, joango naz, Zuk nai-zun bidetik.

BOSTGARREN KONSIDERAZIOA

Egia esatera, nere anima, kontatu ditugun pena oiek andiak dira. Jakizu, bada, orañdik, guziak baño andiago bat, ta guzien azkarria falta

dala, ta ori da kalterik andiena. Pena au da, Jainkoa betiko galtzea, ta aren arpegirik beñere sekulan ez ikusi bearra. Ai nola zu añ urruti zauden, Jaungoikoa zer gauza dan jakitetik, ala añ urruti zaude, ori galtzea, zer pena dan jakitetik! Baña jakizu, guzien artean andiena dala. Jaungoikoa galtzea, zuretzat on guzia galtzea da. O zeñ On andia galdu dezun ta betiko, ta onra, ta atsegin ezerez bazuekgatik! Baña nola añ ezjakiña, ta itsua zauden, pena au berez zer dan jakiteko, larga dezagun, itz batean esanaz beste tormentuak infernuan añ andiak badira, au guzien gañean, ta guziak baño geiago, ta andiago dala.

SEIGARREN KONSIDERAZIOA

Orañ begira ondo, ainbeste infernuan padezitzen daudela, ta ainbeste urte igaro, ta batere atsedean, edo alibio gabe: penak beti batean, beti bere artan, ta eternidade guzian orrela egon bear dutela, jakin, ta orregatik ere, an daudenen animoak setaz gogorturik, ta beren gaitzean arriturik egongo dira, ortik atera nai gabe. Onelako desdixarik izan diteke? Bada ala da; ta ala izango da, ta onerako borondaterik ezdute sekulan izango. O Jaun guzita ona! Zuri eskerrak fin gabe, zeren nere onerako au nik ondo pensatzeko lekua ematen didazun!

Demagun, bada, infernuko kartzela illun artan, miserikordia, edo bar-kazioko pregoi andi bat egiten dala, non esaten zaien guziaz: Ea zer egingo dezute, ta libratuko zerate? Ea zer bizimodu artuko dezute? Bada, mundura batzuek biurtu bear dute; ta penitentzia egiteko, berrogei urte emango zaitze. Jesus milla bider! Zer esan, ta zer egingo lukee? Ta zuk zer esan, ta zer egingo zenduke? O Jaun piadosoa! Ni, Jauna, ni orietatik bat izan nadilla! Ni emendik irten nadilla. Nik, Jauna, seguru ta arrastaka bear baliz ere, serbituko zaitut. Nere ditxa, ta Zu serbitzea, guziaz andia. Orduan, Jauna, betoz, nai badute, nere gañera, diran neke, ta gaitz mota guziak: betoz desonrak, pobreza, ta pensa al ditezkean beste desdixta guziak.

Orrez gañera, nik pozik egingo det, agindu al ditekean penitentziarik gogorrena: ta izango naz munduko humillena, ta guzien azpikoa. Orañ bada, anima, esazu; Eternidadeko desdixta ori, ta askotan, merezi izan ezdezu? Bai. Jainkoak etxeden, libratu, ta denbora au eman dizu. Atoz ona, bada: ta orduan seguru egingo zendukean egiazko penitentzia, ta biziera berria, zergatik orañ egingo ezdezu? Orduan gogotik artu, ta balia-



tuko ziñakean bezala, zergatik orañ gogotik artu, ta baliatzen ez zera? Orduan zure bizitza konzertatu, ta zure pensamentu, itz, eta obrak ondo begiraturiko zindukean bezala, zergatik orañ konzertatzen, ta begiratzen ezdezu? Orduan guzien azpian egotera, ta neke, dolore, gaitz, ta desonrak eramatera animaturiko ziñan bezala, zergatik guztira orañ animatzen etzera? Ea bada, anima triste! Zugana biur zaite, begiak argitu, ta gogotik egizu. Asi bereala, bertatik asi. Ai nere Jainko maitea! Onelako mesedea Zuk niri egin, ta esker beltzekoa beti izango naz? Asitzeko gogotik, nereztat erremediorik ez dala, ta ori ezagutu, ta Jainkoari eskerrak obrakin eman bearrean, pekatua pekatuaren gañean egin, ofenditu, ta geaigo ase-rrerazotzen dedala! Zeren begira zaude, anima itsua? Erremedio gabeko sententzia zure kontra eman artean zaude? Orañ gutxi bat padezitzea, gero betiko baño obe ezta? Nola zera orren gogorra? Onelako golpeak, ta onelako benefizioak biguntzen etzaituzte? Jauna, bitartean Zu sartzen ez bazera, konsiderazio guziakin ere nik ezer balio ezdet. Burnizko biotz au kendu, ta arren aragizko bat indazu. Illa daogena, Zuk piztutzen ez badezu, nola jaikiko da? Ea, Jauna: Lazarori bezala deadar andi bat egindazu; Ea anima, zure pekatuen eriotzatik irten zaite. Illen artetik atera nazazu, desditxa oietatik atera nazazu. Ah, Jauna, sortua nago, ta illa bezala: piztu, ta biziera berria alda nazazu; zure eskuan dago nere bizi, ta on guzia.

ZAZPIGARREN KONSIDERAZIOA

Eternidade desditzazko ori ikusi, ta orretan ez erorteagatik zer egin bear det nik? Gaitz añ andia da, non gizon batek bakarrik kondenatu bear balu ere, bildurrez ikara egotea arrazoi litzake, ta miseria orretan ez erorteagatik azkeneko alegiña egitea. Zer izango da bada, ez bat bakarrik, ezpada ainbeste milladi kondenatzen dirala? Kondenatzen diranak, salbatzen diranak baño geiago dirala? Jesu Kristok esan zuen: Bizitzara, edo zerura daraman bidea estua, ta ango atea txit ertsia dala, eta gutxi arkitzen dutela. O itz ikaragarria! Sententzia onek nor ikaritzen eztu? Esan zuen Kristok berriz: Eriotzara, edo infernura daraman bidea zabala, ta ango atea andia zala, era asko bide onetatik dijoazela, ta ate onetatik sartzen dirala.

Kontuetara orañ: Nondik nabil ni: bide estu, edo lasaetik: ate zabal, edo estutik? Egia esatera, lasai, ta zabaletik. Zer izango da, bada, nizaz? O! Infernuko tormentuetan ez erortearren, estutzea, ta bide estutik ibil-

itzea, zenbat obeto dagokit! Ea, ez, asko, edo geienak bezala, ez bada gutxiak, eta kontatuak bezala, bizi bear det. Salbatu nai det? Bada erremedio gabe, ta gogotik au artu bear det. Ai! Millatetik bat, ta ez geiago kondenatu bear baliz ere, nork ikara andia idukiko ezluke? Ai ni ote naiz ori? Orren suerte tristekoa? Nik ezdet nai esan, salbatzen diranak baño, kondenatzen diranak zenbatez geiago diran. Baña ai! Señale, ta ejemplo tristeak dira!

S. Bernardoren bizitzan kontatzen da, Santua iltzan denboran beste ogei ta amar mirilla iltzirala, ta bost anima salbatu zirala. San Franziskuren Historian kontatzen da, Jainkoaren Misionero Bertoldo bizio baten kontra predikatzen zegoela, emakume bizio arzaz galdurik zegoen bat, bertan illik geratu zala: guziak aren animagatik orazioa egin zuten; ta piztu ta beregan biurtu, ta esan zuen: irurogei milla arekin batean iltzirala, ta lau, edo bost anima salbatu zirala; ta esan oi da, iru Purgatoriora, ta bat joan zala Zerura. Espiritu Santuak dionak, jakinez: edo nezioen numeroa infinitoa dala, niri ikara ematen dit; ta orobat Kristoren esanak, salbazioko bidea gutxi arkitzen dutela. Ta emendik zer atera bear det? Zer? Bizimodu, edo estadia artu ez badet, bereala Jaunaren graziarekin, nere salbaziorako bearren dedan bidea ziñez artu. Ta estadia arturik banago, nere orri jarraitu, ta bestera ibilli gabe, lan oni gogotik ekin, egunoro obeto bizitzeko.

ZORTZIGARREN KONSIDERAZIOA

Estazio bat, nere anima, emen dagigun. Infernuko animen leku, egoera ta estazioa ikusi dezu. Zuk ori bera erremedio ta esperanza gabe merezi izan dezu. Baña Jesus maiteak ainbeste nai izan dizu, non, zu libratzeagatik, bere odola, ta bizia Gurutzean eman zuen. O Jesus, nere Jaungoiko, guzia ontasunez bete! Misericordia paregabe au zor dizut? Bai. Ta nola pagatu dizut nik? Ai nere itsu, esker beltzaren jabea! Zure kontra biurtu, ta zure ofensak baizik egin ezdet! Orrez guztiaz ere ainbeste urtean etxeden, ta besoak zabalik deitzen dit. Ikusi, ta sufritu nau. Ta orregatik ere ni betikoa: ta Jaun au nere billa! Au zer da? Onela beti izango naz, Jauna? Ez, ez, nere Jainko laztana: ez geiago pekatu-rik, ez zure ofensarik. O! ta nork, zure justu guziak bezala, zu amatu zinzakean!

Ea, anima, soseguz estazio onetan gauden, ta igo zaite zure gañera. Zure alegin guzien gañera, ta are gorago ogi zaite, ta obrak ezin dezuna,



edolarik borondateaz egizu. Ea deseo bizi eragille bat, neurri gabe zure Jaungoikoa amatzeko, arr ezazu. Ah zer itsutasuna, Jauna, zu ez amatzea! Ea anima nerea, geiago, ta geiago ama ezazu: ez gutxiaz kontentatu, ez nekatu, ez aspertu. Ea zure biotz ori zabaldu, ta amatu: geiago ere lasaitu, ta Jainkoa ama ezazu. Ai, nere Jauna! Gutxi da, ezer ezda nere alegin guzia. Santu, ta Aingeru guziak atozte nere faltak betetzera. Birjiña, nere Amandre, Jainkoaren Ama maitea: Zuk bai dakizula bera amaten. Ama ezazu ondo onean. Zu zerorrek, Jauna, nere desoea ondoena kunplitzen dezu. Ama zaite, bada, ta goza zaite: ta ni zure amorio orretan gozaten naz.

BEDERATZIGARREN KONSIDERAZIOA

Biurtu nai det berriz, nere pekatuakin irabazi nuen estadura. Infernu ori nik ondo merezitu nuen. Beste neke, gaitz, desonra, pena, ta miseriaz nola keja naiteke? Labe gori batean egotea merezi banu, ta zilizio bat ekartzean, tormentu ori trukatuko balidate, fabore andia ezlitzake izango? Bada munduan izan al ditezkean gaitz, desonra, tormentu, ta nekeak, nik infernuan merezi ta neukan leku, ta estaduaren aldean, zer dira? Egiaz ezerez. Orrela, Jainkoak oi batean ni egotea nai badu ezdet zer kejatu. Pobrezaz, dolorez, lepraz betea ikusten banaz ere, ezdet zer kejatu. Guziak banatu, zatitu, ta oñ pean banarabilte ere, ezdet zer kejatu; bada nik merezi baño mesede andiago egiten didate. O zeñ esker andiak fabore onegatik Jainkoari zor diozkadan! Zer nik infernuan merezi nuen?

Au ikusi, ondo pisatu, ta nor erregaloen faltaz, edo janari gaizki gisatuaz: nor pobre, ta bearras izanaz, nor desonra, ta beste onelakoaz keja diteke? Ez, Jauna, ez: ona prest nago: prest guzirako ner biotza. Nekeak, doloreak, desonrak, ta afrentak betoz, ta zure ofensa gabe betoz. Baña, Zu gabe, Jauna, ni ezer eznaz: lagun zadazu. Nik esan bai, ta egin ez: itzetan bat: ta obretan bestea naiz. Milla, ta geiago esker ematen dizkizut, Jauna, zeren infernura bota eznazun. Benefizio soberano, edo guzien gañeko au beti nere biotzean josirik idukiko det: ta nere bizi guztia, Zuk laguntzen didazula, Zu alabaten, amaten, ta serbitzen izango da.

AMARGARREN KONSIDERAZIOA

Lurraren gañean bizi dan edozeñ pekatari ainbeste, nere Jaungoikoa zor badizu, zer zorko dizu, infernua merezi zuela, Zuk zure etxera ekarri, ta zure adiskideen artean artu dezun pekatari batek? Nik betiko tristeza infernuan merezi nuen, ta Zuk onenbeste alegria eman didazu! Erremedio, ta esperanza gabe an egotea merezi nuen, ta Zuk zeruaren ainbeste esperanza, ta prenda eman dizkidatu? Nik tormentuetan erretzen egotea merezi nuen, ta Zuk ainbeste konsuelo biotzean ematen didazu? Nik deabruen esklabo betiko izatea merezi nuen, ta Zuk zure umeen artean artzen nazu? Nik demonioen janari samiñak merezi nituen, ta Zuk zure Maiean artu, ta Ainberuen ogia ematen didazu? O! zeruko biziaren ogia, ta Zu zeran guztia, ematen didazu, nere Jaun andia! O! nik merezi ez bezala Zuk egin dezu! Bere burua, bere Majestade dan guzia ematen didanak, zer emango ezdit?

O nere Jauna! Ta miseriak onen andiagatik zer emango dizut nik? O zeñ braa, ta zeñ gozoa zeran! O zeñ gauza andiak nerekin egin dituzun! Milla esker, Jauna, ta milla milloi bider esker andiak zuri. O Jaun poderoso, ta Aita guztiz ona! O nola nere traizio, ta desleialtasunaz aztu zeran? Ni seme galdua, ta Aita ona besoak zabaldu, ta niri laztan ematera: soñeko berri ederraz janzi, ta semetzat artzera! O Arzai ona! zure ardi galdu au infernuko otsoak bazeramaten, ta Zu ondoren, ta billa joan, ta zure dei, edo txistu gozoak otsoen artetik atera, ta zure sorbaldan artutzen duen! Ah Jauna! Egiaz zure kostura, infernutik libratzeko, zure soñean salto au nik eman nuen! Ta ardi txatar au zure gañean artu, ta zure larre gozoetara ekarri, ta betiko zeruetara eramateko naukazu! O Aitari, ta Arzairik onena! Ainberuak sekula guzietan alaba zaitzatela.



AZKEN JUIZIOAREN GAÑEAN

LENENGO KONSIDERAZIOA

Arako mundua akabatzeko zorian dagoen artean, zer igaroko dan, ta zer gauzak ikusiko diran, nor esango du? Ai nere Jaungoikoa! Zu bakarrik dakizu, bestek ez, noiz, ta nola ori izango dan! Mundu galdu bearrari begira diozagun alde guzitik, gose, ta izurriakin, gerra, ta eriotzakin, lurrikara, ta ujolakin estuan, ta etsirik. Baña akaballako doloreen asierak dira oiek. Geroenean, begira aize buunbada izugarrien artean Jainkoaren aserrezko su bizi illun batek diran gizon, abere, ta beste gauza guziak erre, ta auts beltz biurtzen ditu.

Kontu egizu orañ, Munduaren aldarte tirste onetan zu bakarrik gelditu zerala bizirik: ta estadu lastimoso orretan ikusi, ta esaten diozula. O Mundu ditzagabea! Zu zera Adanen semeak zorerazi, ta engañatu ziñituena? Zugatik ainbeste ezpaita, auzi, ta aserre; Zugatik ainbeste ejerzitu gerra bizietan altxatu, ta ainbeste eriotza izan ziran? Bai, zu zera. Baña ai nola zeunden, ta nola zauden! Esadazu: Non dira orañ, zer egin ziran Errege andi ainbeste neke, ta peligrarekin zure gañean agindu zutenak? Non dira aberats, ta poderoso zure ondasunak iduki zituztenak? No dira, kodiziak bildu zituen zillar, urre, ta arri preziosoak? Non zure Torre andi, Jauregiak, Loretoki, ta Jardinak? No zure atsegin, ta erregalo illkor eroak, beti bizi bear bazuten bezala anbeste antsiaz nai, ta biribillatzen zituztenak?

Ai nola guzia auts biurtu, ta kea bezala desegin, ta ondatu dan! Beste Errege zoroak, bere ejerzitu andi guzia urte gutxiren buruan desegin ta akabatuko zala pensatu, ta negarrari eman bazion; Munduko ejerzitu, gizon, ta gauza estimagarri guzien atzeneko kastigu paregabe onek, nor lantuz, ta lutoz beteko eztu? Baña nere biotzeko luto, ta negarrak nere kulpen gañean izan bear dute! Munduaren azken au jakin, ta onela ikusi ezker, lurreko gloria, ta ondasun guziak nere eskuan baneuzka ere, diranak oñ pera bota bear zituke. Ezerez bat nik dedan guzia izanik: zer desditxa da au, ori utzitzeko ere animorik ezdet; ta ezerez orregatik, anbeste kulpa, ta ofensa Jainkoaren kontra egin det?

Ur tanta bat itxaso guztiaren, edo pits bat lur guziaren aldean zer da? Nik dedan, eta bizi guzian izan dezakedan onra, estimazio, ta ondasun

guziak, Errege guzien poderio, onra, ta ondasunakin zer du zer ikusi? Bada mundu au bere gauzakin, dakusunez auts puska bat baizen ez bada, ta estimazio ori merezi badu, nola nere biotza kasi ezer ezdanari eransitzen zaio? Nola ori nai, ta ainbeste ansiaz billatzen det? Nola nere alegiñak ezerekeria onen billa, ta askotan, nere anima galtzeko perillean, egiten ditut? O zorakeriaren itsua!

Ea nere anima: auts pilla andi orretan ainbeste neke kostarikako azienda bill ezazu; Zuri lenagokoak utzi zizuten Etxea, edo zuk ondorengoizat jasozen duena; zure gusto, edo atsegiñen lekua; zuk naien zenduena; ea naspilla eragabe orretan arki dezakezun. Guziak nastu, ta desegin ziran. Eskuetan auts puska bat arr ezazu: bearbada len ori Koroa bat zan; non da aren edertasuna? Bearbada bastoi bat zan; non da aren balentia? Bearbada edertasun andi bat zan; non da orañ ori, ta orren galak? Ai guzia banidadea, aizea, utsa, ta autsa! Ta izan diteke Kristaurik añ jakiñez, edo neziarik, Jainkoaren Ontasun, ta edertasuna ezerekeria oiekgatik galdu nai duenik? Ta oietatik bat izan eznaz ni, gusto billau batzuen trukean Jainkoaren Legea urratuaz? Ai Jauna! Zeñ itsua izan nazan! Au ondo ezagutzeko, arren argia indazu: orrela, zugandik, nere on guzia, sekulan aparta eznadin. Amen.

BIGARREN KONSIDERAZIOA

Nere belarrietan deritzat dagoela tornpeta izugarri guziori Jainkoaren Juiziora deitzen diguna: Arako tronpeta San Jeronimo bati biotzeko ikara ematen ziona: au eremu batean, berau, penitentzia, orazio, ta negarrez desegina zegoela. Ai ene bada! Nola bildurtzen eznaz ni añbeste kulpa, penitentiari egin gabe, daukadala? Eleizako Pillarerik sendoenak tronpeta onen deia aditu, ta dardar ikara dabilta, ta ni, bildurtzeko añ beste kausa ditudala, nago sorturik! O biotz, edozeñ tentazioren aizeaz galtzen zerana, nola tormoi ikaragarri au: Piztu, ta jaiki zaitezte illak, ta atozte Juiziora, aditu, ta ill otza geratzen etzera? Jaun guziz poderosoaren pregoi onek zer ikara orduan emango dit? Nola obedituko diot? Ta nondik jai-kiko ote naz?

Ai! nere pekatuai begiratzen badiet, infernuan egongo naz, ta andik etorriko naz; bada ara nere burua añ beste bider bota det. Andik anima etorriko da, ara gorputzarekin biurtzeko, bien tormentuetara. Lurretik jai-kiko naz, mundu guziaren aurrean akusatua, juzgatua, ta kondenatua iza-



teko gizonik infame-billauenakin. Jaikiko naiz, erremedio gabeko, ta eternidadeko kondenazioaren sententzia aditzeko. Au guzia kulpa mortal bakoitzagatik merezi nuen, ta estadu orretan ill banitz, guzia egingo zan. Nola, bada añ beste urtean orrela bizi izan naz? Nola añ erraz pekatuetara biurtu naz? Nola biotzeko damu, ta egiazko ta negarrezko penitentzia egiñaz, oriek borrratu ezditut?

O nere anima! Juizioko tronpetaren soñuak orduan zu ikaratzea nai ezpadezu, orañ aren otsa aditzen, ta ari obeditzen asi zait. Illak jaiki, dio, ta Juiziora atozte. Kulpa pisuaz illa bazaude, eriotza orretatik piztutzea agintzen dizu. Illak bezela Jainkoaren deiak aditzen ezbadituzu, lotarki pisu orretatik esnatzea agintzen dizu. Añ beste denbora bada, zure bizi-modu ori zuzentzeko, esaten dizula: zure biotzean golpeka otsez badago, pekatuaren peligro, ta bide orietatik iges dagizula; desengañoakin deadarka badagokizu zure barrenean; zure lagunaren desgraizan, ta ustegabeko beste adiskide, edo ezagunaren eriotzan, ori begiz ikusi, ta orregatik ere sortua bezela, lo pisu orretan sarturik bazaude: Ea jaiki, dio, ta zure juizioan zurekin gogotik sartzaite.

Ai nere Jainkoa! Ta zenbat zuk, ni piztu, ta jaikierazotzeagatik egin dezun, ta ni lotan zeñ arritu, ta sortua egon nazan! Zenbat bider nere biotzeko bildur, arantza, abiso, Libru, ta Predikadorean deiakin, otsegin didazu; ta ni orregatik zure faboreenzat beti gorra? Ai Jauna, ni ez galtzean, zer interes zenduen Zuk? Ni ez kondenatzean, zer probetxu zenduen Zuk? Ta añ beste, ni baño kulpa gutxiagoz, kondenatzen Zuk utzi, ta ni ez galtzeko, zer ikusi zenduen nigan? Aundia da nizaz Zuk izan dezun miserikordia, ta txit andi lotsagarria nik zure kontra iduki dedan esker gaisto itsusia. Ezagutzen, sentitzen, ta konfesatzen det, Jauna. Orregatik zure eskua indazu jaiki nadin gogotik, ta zure Juizioan idukiko dedan bildur santuan firme betiko egon nadin. Amen.

IRUGARREN KONSIDERAZIOA

Juizioko tronpeta aditu, ta Anima santa bat zerutik jaxkiko da, ta anima kondenatu bat infernutik igoko da: orduko bien gorputzak egongo dira prestaturik. Baña ai! Elkarren antz gabekoak! Anima santak gorputza arkituko du, eta laster biurtuko du eguzkia bera baño argiago, ta ederrago, gloriatzeko dote guziaz janzi, ta apaindua; ta bere Aingeru Guardakoak esango dio: Ea zorioneko anima, gorputz eder onetan sar zait.

au birtuteetan zure lagun ona izan zan: ta orañ zure ditzetan ere izango da. Oiek dira begi lurrera begira zeundenak, peligratzeko edo zillegi etzan gauzarik ez ikusteagatik; oiek ezpañak, inoren gaizki esan, edo ofensaz idikitzen ezziranak: oiek belarri mormurazio, ta beste itz gaistoentzat itxirik zenezkanak; au buru, pensamentu santuak artzen zituena, oñ oiekin Eleizara, ta obra onetara joaten ziñan: oiek zure esku bedekatu pobretxoai limosna ematen zionak: au zuru gorputza denbora batean barau, azote, ta zilizioakin zuk zatitzen zenduena.

Gauza oiek gogorrek ziran orduan, baña, o zeñ gozoak izango diran eternidade guzian! O begi ditzoso, zeruko edertasunak ikusi bear dituzutenak! O belarri ditzoso Aingeruen musikak enzun bear dituztenak! O ezpañ ditzoso, Jainkoaren alabantzak kantatu bear dituztenak! O gorputz txit zori onekoa lurreko gusto labur, billabak utziagatik, zeruko gustoz bete ta egon bear duena. Ea, anima santa, laster egizu zure gorputzari lastan estu estu bat betiko ematera. Bereala anima or sartu, ta argi eder gozoz beteko du, eguzkiak odei bat argitu, ta edertzen duen gisa; ta kristal garbi bat eguzkia or sartzen, edo artzen danean bezala. O zer gloria!

LAUGARREN KONSIDERAZIOA

Baña anima kondenatu batek, ai zeñ itsusi izugarria bere gorputza topatuko duen! Zeñ nazkagarria! Bere pekatu guzien artean itsusia egin zuen lekuan, bear bada topatuko da: ta ikusi, ta arrabiazko adia tristeaz, esango dio: Ai nere zori gaiztokoa! Au da, au gorputz galdua, zeñean, ta zeñagatik, añ ainbeste pekatu egin nituen! Karzela illun ziega illgarri onetan, nere eriotza eternidadekoaren obi ustel onetan sartu bear det! Ah gorputz madarikatu nere desditxa guzien asiera! Ai! Or arturikako atsegin labur, ta gusto loi, ta lotsagarriak zeñ garesti kosta zaizkidan! Ai Ta infernuko tormentuak irabazi, ta betiko kondenatu nazala!

O! Mundura biurtuko baninzt nola beste moduz gorputz au tratatuko nukean! Nik abere bat bezala ezi, ta esklabo billau ori arrazoiari sujetatuko nioke. Pensamentu gaiztoai biderik ez idikitzearren, begi oriek, bear baliz aterako nizekake: pekatuaren peligro, edo okasioko etxera ez biurtzearren, oñak ebakiko niozkake; eremuetako penitente guziak baño gogorkiango illerazi, edo mortifikatuko nuke. Nik nola bizi erakusiko nioke. Baña ai! Nereak egin du, ta erremediorik ez! Gorputz oni, adiskideari bezela nai nion, ta orañ, ta betiko nere etsairik andiena izango da.



Barau egun bat ez sufritezarren, zakur amorratuen infernuko gosea eternidade guzian idukiko det. Kulpaz Meza bat galduagatik, lotsaz arrastaka juez aserrearren Tribunalera joan bear det. O zeñ erraz au erremedia neza-ken! O zeñ ditzazkoa orduko penitentzia!

Onetan demonioak aserre, ta deadar andiakin diote. Zer kontu dira oriek, anima madarikatua? Zeren begira ago? Au, gorputz au dek, ire bizioakin egiñkako ire betiko etxe, ta tokia. Au itsusia badago ere, itsusiago ziran, ik or egiñdako pekatu loiak. Sar adi, ordu gaiztoan iretzat, lengo ire atsegiñetako leku onetan sar adi: au eternidadeko tormentuetan lagun izango det.

Orduan anima gorputzen sartu, ta infernuko su gar izugarriak gorputz guztia barrena, berun urtu, edo burni gorriaren gisa banatuko dira. Suak, eta txingarrak bereala saltatzen asiko dira begietatik, ao, ta belarrietatik, ta kirats ustel baten gisa musuetatik sartuko zaio. Puzoniazko suge aserre, ta dragoi odolgiro batzuen gisa demonioak eldu, ta biribillan artu, ta gorputz, ta anima orrela kateaturik, ya padezitzen duten sententzia aditzera eramango dituzte.

Ai anima galdu, au irakurten, edo enzuten dezuna! Zure desditzaz pekatuan bazaude, nola zerurañoko deadarrakin miserikordia eskatzen ezdezu? Zure peligro ikusi, ta nola arritzen etzera? Ai nere Jainkoa! Gaitz oiek guziak nere gañera etorri ditezke: Bai, ta asko aldiz ondo mereziak nituen; ta erremedio gabe orietan egongo nintzan, baldin zuk, Jauna, libratu ezpaninduzu. Zer da, bada au, au zer da? Nola Jainkoaren Legea pisutzat artuko dezu? Nola zure griña gaiztoak ukatzea, gogor egingo zatzu? Nola erretiroa, orazioa, isillik egotea, ta penitentzia artuko ezdezu? Oiek, pena aien aldean, zer dira? Animo bada, ta gorputz au bertatik ezi, zatitu, ta Jaunaren borondatera ekartzen asi nadin; ta ori pozik, desbentura aietatik libratzearren. Naiko det orduan: egin dezadan orañ.

BOSTGARREN KONSIDERAZIOA

Orañdaño esan diran desditzaz gañera, andiagorik izango da? Ai ta zenbatez andiago, ta arrigarriagoak! Guztien Juez soberanoa, gu salbatzeko artu zituen Llagakin, ta Gurutze santua aurrean duela, agertuko da. O Llagak, o amorio nik añ gutxi estimatuak! O salbazioko Gurutze, nik gaizki ezagutu, ta ez billatua! Zuk izan bear zenduen nere erremedioa, ta orañ izango zera nere kondenazioa. Emen da pauso ikaragarria.

Aingeruai aginduko die Kristok, onak, gaiztoen artetik, aparta ditzatela. Ta bada, gaiztoen artekoa izan naz, apartatzean nola izango dan, konsideratu nai det. Begira ondo, nola kondenatuen jenedi artetik bulla andiarekin, Jesu Kristo akusatu, kondenatu, ta ill zuten Judu, ta Jentillen gabilla andi bat ezker aldera ateratzen duten; eta oriekin batean zu ere lasterka Juezaren aurrera zaramazkiten. Zer da au, deadar egingo dezu, ta kejatuko zera; Jende infame onekin bat egiten nazute? Baña, karguak egiten, zure kejaz lotsatuko zera, ikusirik zure kulpa zenbatez andiago dan.

Judas saltzallearen falsia demonioak akusatuko dute, ta nola Jesus bere Maisua ogei ta amar dirugatik saldu zuen; ta zure kontra dedar gei-ago emango dute, zeren zuk, ez beñ, ez bada askotan, ta merkeago, instante bateko gusto utsiagatik bera sladu zenduen. Juduen jende itsua akusatuko dute, zeren Barrabas gei-ago, Jesus baño estimatu zuten; ta emen zure kontra deadar egingo dute; onek, Jauna, ezertan iduki etzinduen, ta zure, ta bere etsai deabruai jarraitu zien. Jesu Kristoren kontrako burlagilleak akusatuko dituzte, ta bereala zure kontra biurtuko dira; onek ere zure lege, fede, ta Sakramentuaz bere sakrilejioaz burla egin zuen.

Infernuko borrero, Kristo Gurutzean josi zutenak, akusatuko dituzte: ta indar andiagooz zure kontra esango dute; onek bazekien, Jauna, Apostoloaren esana, ta pekatu mortal egitea, berriro Zu kruzifikatzea zala; ta orregatik aisa, ta askotan pekatu andiak egin zituen: eta au ondo jakiñik, Zu ber Jainkoa ziñala, ta Juez estua izango ziñala. Sinisten zuen, onen salbaziogatik, odola, ta bizia eman zenduela; baña ezertan ori iduki etzuen, zakur baten odola baño gieago. Orra onen pagua. Ala onek kastingu andiago merezi du, Judu, ta Jentillak baño; bada zerorrek esan zenduen bezala, oiek etziokiten, zer egiten zuten; baña onek bai: baziendien, Zu bere Jainko, Erredentore, ta Jueza ofenditzen zinduela. Ai! Ai! Ai, zer infernuko lotsa au! Madarikatu aien lagun izanda, betor aiekin infernura.

SEIGARREN KONSIDERAZIOA

Ai nere Jesus ona! Orduan nik zer esango det? Nere desditzaren bar-kazioa eskatuko det? Baña ezta ya ordua. Ama Birjiñaren anparora biur-tuko naz? Baña onen piedadeen denbora akabatu zan. Nere Aingeru Guardakoagana? Baña ori nere bizitzaren testigu, ta salatzalle justua izan-go da. Zer esan, edo zer egingo det bada, guziak nere kontra badira? Oi ene desditzagabea! O pena erremediogabea! Beto, Jauna, nere konrra



munduan diratekean gaitz, ta desditxa guziak, atzeneko desditxa artatik libra nadin.

Ta zer izango da, baldin puntu artan ikusten badet, nik burugabe, ta zorotzat iduki nuen pobretxo bat, Aingeruak eskutik justu guzien, ta Santurik andienen artera daramatela? Ai, ta nola suerteak trukatu ziran! Burla nik ari egin nion, ta orañ berak niri egiten dit. Nik billautzat neukan, ta nere kriadu serbitzarien artean artuko eznuen, begiratu ere ez nion: eta orañ añ ditzaz betea, zeruko Prinzipeen artean onratua da; ta ni munduko kanalla billau guzien artean, suzko kateaz lotua. Ai! Nor, edo zeñ da beste Santu andien artean Eguzki bat bezala añ eder agertzen dana? Urlia nere lagun, aide, edo adiskidea dirudi. Bai, ta berbera da. Au zer da, ta nola? Pauso txarretan nerekin ibilli etzan? Pekatueta nere lagun izan etzan, ta onelako berak eragin etzidan? Bai, egia da. Baña gero guzien penitentzia egin-tzuen. Mundua utzi, ta Erljioan sartu, ta bizitza santu bat egin zuen. Ta koroa eder ark, ta alako Santuen artean ura egoteak ori esan nai du.

Baña ni pekatu loietan begi bietaraño sarturik, ta Jainkoaren deientzat beti gorturik, eragabeko nere deseoen ondoren bildur gabe ibilli nintzan, Juizioko egun au sekulan izango ezbazan bezela. Ai nere galdua! Beraz egiaren bidea utsegin, ta erremedio gabe betiko galdu naz. Akabera au orduan nere tormentua izango da; baña orañ izan diteke nere erremedio guzia. Ea, bada, zer egiten det? Jainkoa serbitzea, nola gogotik artzen ezdet? Ea, berak deitzen didan bidetik noan, munduko gauzak utzi, ta neke, ta arantzetatik badere, Juizioko lotsa artatik libratzearren.

ZAZPIGARREN KONSIDERAZIOA

Azkenean, konzienzien Libru idiki, ta zure pekatu guziak agertuko dira. Juezak badakizki: ta mundu guziak ikusi bear ditu. Askok bearbada Santutzat, ta besteren adiskidetzat iduki zinduzten, zu Jainkoaren etsai, ta gizonen kontra traidore bat ziñala. Ai zoro itsua! Uste zenduen zure gezur, ta engañuak aztuko zirala? Orañ diranak agertuko dira. O zer lotsa, sentimentu, ta pena, Konfesore bati ixil esatera lotsa nintzana, guzien aurrean agertzea! Mendiak azpian artzea gaiztoak naiago lukce, orrelako desditxa ikusi baño. Zergatik bada, egin det orañ, gero anbeste lotsa emango didana?

Guzia jakin bear da: ta ala emendik atera bear det, Jaunaren, ta mundu guziaren aurrean ezin agertuko dan gauzarik ez egitea; ta orañ-dañoakoren egiazko penitentzia, lotsarik an izan ezdezadan. Onetako gau oro esaminatu bear det, Jaunaren Juizioan banengo bezala, ta Aingeru, ta Santuen aurrean nere pensamentu, itz, ta obrak; ta egun artako guzia konstatzen baliz bezala: lotsa emango dizun gauzarik bada, erremediatzeko; eta zurekin batean, Aingeru, ta Santuak, ta Jesu Kristo Juez dirala. O zenbat gauza zure gustoko diranak, Kristoren gustoak izango ezdiran! Ea, bada, kendu, anima, ori guzia kendu, dala gutxi, dala asko, zeren Jainkoak nai ezduen. Deseo andiakoak artu, emendik aurrera Jaunaren borondatea egiñaz, berari beti kontentu emateko.

Pauso azkenekoa betiko sententzia da. Guzien Juez soberanoak guztizko Majestade aundiarekin au emango du, onen fabore, ta gaiztoen kontra. Ai zer izango da nizaz? Nere obrakin orañ nai dedan sententzia, orduan seguru emango zat. Onetarako Juezak duen erregla Misericordiazko obrak izango dira.

Lenengo, eskuetik dauden justu, ta Santuai arpegi amorioz bete batekin, ta bere bendizio guziakin zerurako deitu, ta sententzia gozoa emango diet, zeren Misericordiazko obra on asko, aren Legea gordetzeko egin zituzten. Gero oiek zerura dijoazenean, ezkerretara biurtu, ta gaiztoai bere aserre, ta madarikazio guziakin kondenazioko sententzia emango die, zern aren Legea gordetzeko Misericordiazko obrarik egin etzuten, ta demonio guziakin ondatuko dira betiko. Ai! Ai! Ai! Ta onak joango dira betiko gloriara, ta gaiztoak betiko infernura. Ai, Jauna! Betoz emen tormentuak, betiko aietatik libra nadin! Betor zure argia, betor zure grazia, penitentzia, bizi berria, ta zure borondatea ill arteraño dagidan, betiko zu alabatzeko zeruko glorian. Amen.

Gure Fedeko Ejerzizio santu oien gañean irakurteko gaia, edo Lezio Espiritual puska bat egiteko, Ejenplo, ta Dotrinaren batzuek ematea konbeni dala deritzat. Arrazoi luze, edo andi indarsu askok baño, bearbada Euskaldunen biotzetan Ejenploak errazago sartu, obeto josi, ta probetxu geiago egin, edo aterako dute.



EJERZIZIOEN ZIMENDU, EDO ZURE SALBAZIOAREN GAÑEKO EJENPLOA

Zure azken ditxa, edo ditxa guzieren koroa; eta zuk zure Jaungoikoa eman lurrean serbitu, ta amatu, ta gero zeruan bera arpegiz arpegi ikusi, ta betiko gozatzea, Jaunaren Ontasunak zenbat nai duen, Ejenplo onetan ikusiko dezu.

Atenasko Obispo San Dionisio zorioneko, Ama Birjiña lurrean eza-gutu zuena, ta San Pablaren Dizipulo estimatua da, San Karpo bere adiskideari aditu, ta Ejenplo au eskribitu zuena, ta onen bizitza era onetan kontatzen da; ta Kandiako Obispo zala, dirudienez, gertatu zan. San Karpo, Artzai ona bezala, bere ardien, edo bere kontuko animen zelo andiaz, bere aiek nondik Jesu Kristoren zeruko larre, edo bideetan ondo gobernatu, ta salbatuko zituen, beti zebillen. Baña orra non jentil itsuen festa zoro batzuetan bere fiel, edo Kristau maite bat jentil gaizto batek engañatu, ta bere ondoren eraman zion.

Arako Karpo Santuak desditxa au ikusi zuenean, ta Jesus guziz maitearen grazia, ta amorezko bidetik ardi ori igeska deabruaren ondoren joan zitzaioala, bere biotza lutoz bete, illundu, ta penaren penaz zer egin, edo zer esan etzekien. Karpo bera añ santua, ta Jesusen adiskidea zan, non egunoroko Meza esatera, Jaunaren faboren seinalaturen bat artu gabe beñere joaten etzan. Gau erdian oraziora jaiki oi zan. Baña gau artan pekatari bien kontra txit aserre, ta samindua zegoen; ta zelo geiegi, ta kolera bizian sartu, ta bestelako orazioa egiten jarri zan. Bere uste guziaz zeritzan, Jainkoa ala ofenditu zutenak barkaziorik merezi etzutela ta Jaunari eskatzen zion, ta txit gogotik zeruko azote, edo su aserrezko ezpatarenarekin biai bizia kendu, ta galdu zitzala.

Bere alegiñaz Santua onetan zegoen, ta orra non gau erdian, lur ikara andi bat bere gelan sentitu zuen; bereala etxe gañetik, guzia idikitzen baliz bezala, argi andi bat, ta San Estebani bezala, zeruak erdiz erdi zabaldu, ta Jesu Kristo G J guztiz ederra, Aingeruen erdian, bere gloria, ta edertasun guzian ikusi zuen. Begiak beronz jiratu orduko, ondo gabeko leiza zulo txit beltz izugarri bat ikusi zuen: eta orren borde, edo eskiñan pekatari biak, zeñen kontra Santua aserre zegoen, eta nola an bera erorteko, ta erremedio gabe ondartzeko zorian biak neke, izerdi, ta eriotzako antsietan

ikara gorrian zeuden; zuloaren be artatik suge arrigarrizko asko lasterka zetozela, ta beren agiñ, ta buztanakin, zuren indar guziaz biak tiraka beronz ondatu nai zituztela; ta gizon batzuek ere gañetik bera bota nia zituztenak zuloaren ertzean bazirala.

Arako San Karpo au ikusi zuenean, poz andi bat artzen asi zan, zeren jentil, ta Kristau ernegatu ark merezi zuten, pena artzen zutela, ta Jainkoaren onragatik laster biak erortea nai zukean, ta bere zeloarekin guziari luze zeritzan. Eta Jesu Kristo an ez bazegoen bezala, berak ere Santuak bulzaka, ta golpeka biaz alegiñaz bota, ta galdu nai zitukean. Orduan gora begiak jaso, ta Santuak ikusi zuen, nola Salbadore guzik beraa, pekatari aien galdu bearra ikusi, ta bere Jarlekutik jatxitzen zan, ta bere eskua eman, ta neke, ta peligro artatik libratzen zituen, ta ori bera Aingeruak egin zuten.

Misericordia andi ori egin, ta Jesus gozoa Santuagana biurtu, ta esan zion: Ea, Karpo, ona emen naukazu; eta aurrera nere gañera deskarga ezazu: ona, animak salbatzeagatik berriz ere padezitzeko prest nago; ta iñoren pekatu gabe ori izan albaledi atsegin andi bat artuko nuke, ta pekatuak kentzeagatik egingo nuke. Ea orrenbeste Jainkoaren zelo dezun ezkerro, begirezazu ondo, zuri zer konbeniango zatzun: edo infernuko suge, ta piztia aien artean leizazulo illun ikaragarri artan egotea, edo zure adiskide Aingeru ederren artean Jainkoarekin betiko egotea.

S. Dionisiok dio, au guzia S. Karpo ren aotik, bidez zijoala, bere etxean Santuak iduki zuenean, enzun ziola. Ejenplo au berau Demofilo zeritzan Monje bati eskribitu zion, Jesus guziz beraa, ta maitearen espiritua oni erakusteko, eta bidez Santuak onekin igaro zitzaiona kontatzen du, eta Ejenplo edo gauza miragarria da.

Pekatarri galdu famatu bat, Jainkoak bere misericordiaz begiratu, ta beregana biurtu zan. Eleizara joan, ta bere pekatuen erremedioa billatzeko, an zegoan Sazerdote baten oñetan, lotsa, damu, egiazko propositu, ta negar andiak konfesatzeko, ta absoluzioa artzeko jarri zan. Sazerdoteak, bear bezala, lastima andiaz artu zuen; baña arako Demosilok pekatari ori an ikusi zuenean suak, eta garrak artu zuten, ta Jainkoaren zelo santua, kolera bizi neurri gabera pasatu, ta lasterka biak zeuden Aldarean aldera joan, ta pekatari tristea golpeka, ta ostikoka, gaizki esaka, ta lotsaturik Eleizatik bota zuen, eta Sazerdoteari milla disparate aora zetozkionak esan ziozkan, zeren pekatari galdu ori bere oñetan añ grazia onean artu zuen: ta Aldareko gauza santuak ere pekatari ark loitu zituelako, andik kendu, ta gorde zituen.



Bere zeloaren azaña galant oiek egin, ta ori guzia bere Obispo S. Dionisiok bere espiritu Apostolikoarekin eranzun, ta txit klaro Demosilori aditzera eman zion, onen zela eragabea, juiziogabea, ta lotsagabea izan zala, eta persona bi, edo Sazerdote, ta penitente estimatu, amatu, ta onratu bear zituenak desonratu, ofenditu, ta bere itz, eta obrakin kolera geiegiaz gaizki tratatu zituela.

Ejenplo oietatik atera bear degun 1 Dotrina da, Gure Jaungoiko Onginai, Ongille, Ongiro, edo benignoa zeñ Aita ta zeñ suabe amorosoa dan; eta Jaun andi, gure bearrik ezduena izanik, gure animak zenbat estimatzen dituen. Oiek Jesus onak bere Aita Eternoaren eskutik bere kontura artu zituen ezker, berarekin pakeak egin arteraño, zer amoriozko alegiñak egin etzituen, ta zer dolorezko tormentuak eriotzaraño eraman etzituen? Ta alere zure salbazioa, bere biziaren kostuan bazan ere pozik, ta merke baliz bezala erosi zuen. Zure anima zeñ joia preziatua dan, ta zenbat balio duen, berak ondo ezagutzen du, eta ala ainbesteraño amatzen, ta estimatzen du, non, bear baliz, bere bizia berriz emateko prest dagoen.

O! Ta zeñ itsua izan bear duen, Jainkozko kaudal onen prezio, edo Jesu Kristoren odol, ta bizia bere animagatik, añ pozik, ta añ ugari eman au ikusi, ta ezagutzen ezduenak! Argatik fedeko argi au zuri kentzeko, edo zure anima ezagutu, ta estima ezdezazun, zure etsai deabru txarrak ainbeste alegin egiten du. Emen ikusten, ta tratatzen diran lurreko gauza, edo gezurrakin zure erara erraz engañatzen zaitu; eta egiaren argia, ta konsiderazio zure salbaziorako bearren diranak zuri burutik kentzeko añ listoa dabil alde guzietatik; biotzeko konsiderazio onen faltak zu, ta besteak galtzen zaituztela badaki. Pensamentu au zure biotzean ondo josi ezazu bada, ta askotan esan: Ni salbatzeko Jainkoak zenbat egiten du? Ta ni kondenatzeagatik deabruak zenbat egiten du? Eta biziera berri santu bat bereala zuk artzeko, ori erremedioa izango da.

Iien Dotrina, edo Lezioa da, Zelo zer dan, ta nola bear dan ikustea. Amore santuaren laguna da zela: edo amore bero erazaki eragille bat. Zelo txit bizi beroa danean kolera baliatzen d, eta au bere neurri justuan danean, gauza andietarako, karidade, ta zeloaren sokorru oi da. Baña kolera morroi, edo mirabe atrebituegi baten gisa, etxeoandre, edo karidadeak agintzen duen baño aurrerago geienean sartu, ta nabarbenkiro igarotzen da; ta esku geiegi artu, ta agindutako gauza on bat egiteko gaitz asko egin oi ditu. Eta karidadeak pakeak egitera sor dedilla agindu; eta kolera urduriak askori buruak autsi oi diozka. Gure griña gaizto, pasioak deriztenak arrazoiaren argiari begiratu, ta jarraitu bearrean, atzera ori utzi,

edo okertu, ta aurea artzen diote, ta neurri, edo era gabe berak gaitzera laster, ta erraz igarotzen dira.

Gaitz edo ofensa bat egin badizute, orri begiratu orduko, bertan zure kolera bizia jaikitzen da, ta zure odola erazaki, ta irakiten bezala jarten da. Baldin kolera ori karidadeaz bereala moldatzen ezpadezu, puntuoro arrazoiaren kontra, edo onen eskatzen, ta nai duen baño geiago irazakiko da. Ori bere modura S. Karpori, ta are geiago Demosilo nabarbenari gertatu zitzaion.

Baña amorezko Maisu Jesus onak karidadezko Lege, ta lezio ederra guziori ematen digu, ta gure ira, edo abere ondo ezigabe beti gerengan deguna, nola arrazoiari sujetatu bear dan; gure arteko lagunenekeak nola eraman bear diran; Zutik, edo Jainkoaren grazian dagoenak erorteko bildur izan bear duen, eta erori, ta galdu danari jaiki, ta irabazi dedin, zer lastima ongiroaz eskua eman, ta lagundu bear dion. Eta azkenik Jainkoaren Ministro zelosoak zer amorezko biotz, ta penitentzia luzea pekatari tristeak ondo artzekok, ta salbazioko bidean sartu, ta zuzentzeko bear duten.



PEKATUEN GAÑEKO EJENPLOAK

Oraño, edo gure egunetako lanze, edo ejemplo ikaragarri bi eman irakurri bear dituzu. Urte askotan Erregeren Predikadore famatu, ta Misionero andi A Agustin Kastejon, Madriden, ta leku askotan askok errespeto andiaz enzunak, ta estimazio igoalaz ezagutuak, bere Misioeta-ko lenengo Libruan biak kontatzen ditu onela.

Ia. Erri batera Misio egitera ninjoala, Jaun gazte, txit aberats, ta galai galant bati, lagun egin bear zidala gogoak eman zion, eta ala nerekin joan, ta Misioko Errian egon zan. Bere ustez kaleak gustora paseatu, ta Errian bere bizarría galanta erakusi nai zuen. Onetan Konfesonariora etorri zitzadan anima jaungoikoti, edo birtute andiko bat, era bere konzienzia-ko kontu eman, ta txit umil, ta garbiro esan zidan: Aita, nere erretiroan orazioan nagoela, galai, edo Jaun kanpotar bat nere aurrean ikusi det; aren anima deabru guziak baño beltzago, edodemonio itsusi ikaragarri egiñik dago. Jakin bez, Aita, onelako, ta alako pekatu nakagarri, ta onelako kul-pakin, Jainkoaren desgrazian, infernuko itxura izugarri bat dagoela.

Guzia enzun, ta Jaunaren adiskide mandatari oni ezer esan ezbanion ere, guzia sinistu nion, zeren enzuna sinista niozkean. Jaun ori zegoen etxera Eleizatik igaro ninzan; ta alakorik uste ezpazuen ere, baizik kaleetan bere burua guziaz erakustea; gela batean sartu, ta txit estu artu nuen. Bereala bere animan nor zan, ta nolakoa zegoen esan nion, eta bere pekatuen ispillu arrigarria begien aurrean paratu nion. Galai ori turbatu, ta ikara jarri zan. Guzia egia zala ikusi, ta Jainkoaren amorezko abisoa zala bereala ezagutu zuen. Beregan sartu, edo biurtu, ta biotzeko damuz, ta egiazko proposituaz bere pekatu guzien konfesio andi bat ondo prestaturik Misioan egin zuen, ta bear bezalako biziera berri on bat aurrerako artu zuen.

Iien Ejenploa an bertan Aita Agustinek onela kontatzen du. Urte bete orañdik ezta, lanze ikaragarri au nere begiz ikusi nuela, ta nere orduko izu, edo bildurrak orañ ere badirau. Gizon bi aserre txit andian sartu ziran, eta bata, mundurako, arrazoia zeukala: bada onek kulparik etzuela, besteak testimonio falso andi bat jaso, ta karzelan iduki, ta bere zuenazienda guzia galerazo zion. Triste onek, Jainkoari begiratu gabez, bere pekatuen kastigua zala ezagutzen etzuen; ala gorrotoz itsutu, ta benganzaz bete, ta bestearen kontra biurtu zan, edo obeto esango det Jainkoaren, ta bere buruaren. Aita bada zer? Preso, ta galdurik kulpa gabe ikus-

ten bazan? Ori, edo bakoitzak berea, Jainkoaren legez, justiziaren aurrean eskatzea, ondo da: baño gorrotoz benganza artzeko, Jainkoaren Legeak nori esku eman dio?

San Pedro Martiri gloriosoa testimonio bategatik preso zeogen: beñ orazioan zegoela Santo Kristo bati esan zion: Jauna, karzela onetan egoteko, zer kulpa det nik? Jesus onak eranzun zion: Pedro, ta Gurutze onetan egoteko, nik zer kulpa neukan. O zer errespuesta! Zer ejemplo, ta zer dotrina! Zu pena, ta aserretan Jesu Kristori ori galdetzen baziño, ta besteak ere bai; nere kontu, gutxiago kondenatuko lirakeala; eta Ejenploko gizonak ori galdetu balio, bere gañean laster ikusi zuen desdixta, ikusiko etzuen. Geroenean, ez besteak oni barkaziorik eskatu, ta ez onek besteari barkatu zion. Eriotzako gaitzak gezurtia artu, ta illtzan, ta ikusi zanez, kondenatu zan. Presoak jakin zuenean, esan zuen: Zer? Ta gañera ori ere bai? Ta niri barkaziorik eskatu gabe ill dala? Bada ez: deabruaren figuran infernutik badator ere, barkatu ezdiot.

Arrigarritzko gorrotoa; baño ondo kosta zitzaiona. Gau batean, au bere oiean zegoela, orra non kondenatu ori bere gañera ezarri zitzaion, ta inferuko atzaparrakin ito nai izan zuen. Jesus, Jesus, tristeak esan, eta kondenatuak utzi, ta au bereala ondatu zan, baño erdi illa oiean gelditu zan. Lanik asko erida, ta tratu gaiztoetatik sendatzeko, erremedioakin erabilli zuen. Albeit ere lenena bere ustez konfesatu zan, ta ez bere kontrarioari bakarrik, bai eta aren aide, ta lagun guziaz ere biotzetik barkatu zien. Ah! Jainkoak nai duenean, zeñ erraz, eta zeñ laster onelako goapoak ezitzen, ta biguntzen dakien! Baña, onek onela barkatuta ere, Jaunaren aserrea ikusi zuen.

Beñ batean kondenatu ori, besteak esan zuen bezala, demonio beltz itsusi baten gisa, infernuko suak eta garrak zeriozkala, atzaparrak armaturik, adia illun izugarriak ematen zituela agertu, ta ber oiean zegoen gizon tristeagana zijoan. Amabi urteko onen seme batek ikusi, ta deadarrari eman zion: Aita, Aita: ona demonioa, ona demonioa. Gizonak, lasterka an zituen Erlikiak artu, ta Jesus, Jesus, Maria deadarrez esaten asi zan, eta orrekin libratu zan. Baña seme gaxoai atzaparrada bi eman ziozkan, ta bizkar alde bata erre, edo larruturik, ta bestea nere sotana au baño beltzago utzi zion.

Kondenatu ori etxearen beko zulo batera arin jatxi, edo ondatu, eta alako infernuko lantu, deadar, ta garraxi samiñetan egun artan an egondu zan; eta andrea, gizona, ta seme gutxi ori kaleetan illak bezala zebiltzan. Nerekin irurak egondu ziran: mutiltxoaren bizkar eritua nere begiz ikusi nuen: aien etxera joan ,ta demonioa konjuratu nuen; eta lanze triste, ta



desditxa ikaragarri au zertan geratu dan, nik ezdakit. Bata infernura kondenatu zan, besteak ainbeste munduan ikusi zuen, eta Jainkoak daki zer izango dan. Eta ona aserre, ta gorrotoen pagua.

Emen ikusi bear dezun lezioa da: 1. nola Jainkoaren grazian dagoen Anima Trinitate Santisimoaren Tenplo, ta Zeru bizia dan: ala pekatuan dagoena demonioen ziega, deabruen leizazulo, ta Luziferen infernu bizia dala, 2. nola Anima justu ari lagun, ta korte Aigneruak egiten dioten; ala pekatari ari deabruak alde guztitik, edo azpian artu, ta beti jarraitzen diote. 3. nola Anima garbian Jesu Kristok bere gozo, ta atsegin guziak dituen, eta bere ari Jainkozko naieraz begiratu, ta bere bitzeko Esposa, edo Alaba maitea bezala beti gordetzen duen; ala Anima kulpaz loitu itsusian deaburak bere atsedean gabeko gorroto bizia dauka, eta aren zai, edo ondoren pekatuzko kateakin lotuaz, bere esklaba billau ori gordetzen, ta segurutzen beti dabill.

4. Jaunaren grazian dagoen Anima, nola illko baliz, lurreko nekeetatik zeruetako gloriara igoko litzakean; ala pekatuan dagoena illko baliz, puntu artan munduko ditxetatik infernuko desditxetara jatsiko litzake. O! Ta Jaungoikoak gure begiak argituko balitu, zenbat gizon, ta andre, kanpotik eder, edo galantak, ta ederki janziak; eta barrendik alako demonio beltz itsusi eginik; eta beste zenbat munduko begietan pobretxo arlote, zatarrez janzi, edo estaliak, eta barrendik zerua baño ederrago, ta gozoago diran Animak ikusiko zinduke! Ah mundu gezurtia, ta beti zoro itsua!

Bigarren emen ikusi bear dezun Dotrina da, pekatua zer dan ikustea. Baña ai! Lurraren gañean gauden artean, dan bezala, pekatua zer dan, eza-gutzen ezdegu! Jakizu bada, lurrean izan ditekanean gaitzik andiena dala pekatua. Jainko arekiko, mundu arekiko, ta zurekiko da gaitzik andiena, gaitz bakarra, gaitz utsa, edo nasgabea, gaitz paregabe, gaitz guziaz eragiten diena: gaitz guziaz azkarria: onen aldean guziaz aztutzen dira, ta gaitzaren izenik ere merezi ezdute.

1. Jainko arekiko da gaitzik andiena, ta bakarra, aren begietan itsusiana, ta aren biotzarentzat nazkagarriena; eta nola Jaungoikoa Ontasuna bera dan, guzia ona, ta On guzia: ala pekatua gaitza bera, ta gaitz guzia, ta gaiztotasun guzia da. Nola Jaungoikoa Ontasun neurrigabea dan, ala pekatua gaiztotasun neurrigabea da.

2. Mundu guziarekiko gaitzik andiena pekatua da: bada munduan izandu diran, ta izango diran gaitz guziak kulpa, kulparen pena, ta kalteak dira.

3. Zurekiko, edo kriatura bakoitzarekiko gaitzik andiena da pekatua: pekatu mortal batek Luzbel, ta ainbeste Aingeru zerutik infernura arras-

tatu zituen. Pekatu mortal batek Adan gure Aita, bere ondorengo grazia-kin Paraisutik bota zuen. Pekatu mortalak arrezkero ainbeste anima infernuetan ondatzen ditu betiko.

Iugarren ikasi bear dezun Lezioa da, pekatu beniala zer dan, jakitea. Kulpa beniala añ erraz egiten dana; ariña, ta txikia esan oi da; baña ondo begiratzen bada, gaitz txikia, ta ariña ezta, baizik gaitz andia, ta pisua. 1 zeren Jainkoaren kontrako nolerebait ofensa, ta agrabioa dan. Eta au aditzeak, eta sinisteak, arritu, ta zurtu bear ezgaitu. Gure Jainkoaren fede bizi, ta amore egiazkoa bagendu, ala izango litzake. 2 zeren Jainkoaren grazia, ta amore santua kentzen, edo iltzen ezpadu ere, baña epeltzen, argaltzen, ta iltzeko zori, edo peligroan paratzen du anima. Ai! Nola gaitz txikiak eri bat gaitz andietara, ta ortik eriotzara daramaten: ala kulpa benial edo txikiak andietara, ta anima betiko gaitzeko mortaletara, edo eriotzara daramate!

3. zeren Jainkoaren sokurru, ta faboreai ta bear bada zure salbaziorako bearren diranai bidea itxitzen dien; eta odei illun batzuen gisa, bitartean animari jartzen zaizkan, zeruko argiak biotzean sartu ezditezten. 4 zeren kulpa beniala añ gauza ikaragarria dan, non da munduko gaitz guziak kentze, edo erremediatzeagatik, ta ez mundu giza salbatzeagatik ere kulpa benial bat ezin egin ditekanean. O arrigarrizko gaitz, ta orregatik ere añ erraz, ta ainbeste bider egiten dezuna! 5 zeren izan diran Santu guziaz birtute, grazia, ta merito guziaz, orien penitentzia, orazio, limosna, ta obra on guziaz zure animan bazindu ere, eta orrela pekatu benial batean eriotzak artuko bazindu, ezin orrekin zure anima zeruan sartuko dan. O pekatu benial etsai, erio, ta arerio, infernua baño gaiztoagoa!

Azkenik orrelako kulpa txiki bat gaitz zeñ eskergea dan, Jainkoak emen lurrean orregatik egin dituen kastigu, ta penetan nolerebait ikusten dezu. Lurrean izan ditezkean desditxa guziak munduaren gañera erakarteko, asko, edo sobra da kulpa benial bat. 1. Dabid Erregearen banidade bat aren Pueblo guzia Jainkoak kastigatzeko, ta gaitzeko asko izan zan. 2. Oza Lebita, Testamentuko Arka erortera zijoanean, zeren eskua arrimatu zion, Jaunak kastigatu, ta bertan bizia kendu zion. 3. Errespetu gutxiarekin Arka orri begiratu ziotelako, berrogei ta amar milla Betsamita, edo geiago beñgoan ill oztak gelditu ziran. 4. Eliseoari burla egin ziotelako, berrogei ta bi mutil artzak jan zituzten: eta onela dira fedeko beste kastingu asko, kulpa benialak ekarri dituztenak.

Oriek baño geiago da, guk iksuten ezdeguna, baña Jainkoak berak egiten duena. Orrelako kulpa benial, edo ariñak gaitik, ta askotan bate gaitik, Purgatorioko su, ta gar ikaragarri, tormentu, ta penetan erretzen



anima justu asko Jainkoak ikustea, eta guzia, azkeneko marabidiraño pagatu artean aren Justizia aserreak ez barkatzea. Bai: eta bere anima maite, biotzeko laztanak Jainkoak, Aita amorosoa izanik, ala dauzka: eta Santuak diotenez Purgatorioko su bizi oriek infernukoak bezala, edo berez erdira gutxiago dirauten artean. O aserre, ta gorroto paregabea!

Baña ori guzia ezta Jainkoaren Ontasun, ta Miserikordiaren faltaz ezpada kulpa arin orren gaiztotasun, ta gogortasunaren sopra geiegiaz. Bada zer? kulpa ariñ ori erraz egiten dan falta, txiki bat ezta? Bai: ta orregatik beragatik, ori egin gabe añ erraz zengokeala, ta txit aisa kulpa ori utzi zenezakeala, añ aisa zure borondatea ukatu, ta Jainkoarena egin zenezakeala, orren erraz atsegin piska zurearekin irteteagatik, ezerezkeria batean, Jainkoa nolerebait agrabiatu, ta ofenditzea, da beraren menosprezio ikaragarri bat, ta orregatik ala pagatzen da. «Ni zure Jauna banaz, non da nere bildurra? Ni zure Aita banaz, nere onra non da?».

O eriozko infernuko pekatuaren zazpi burudun suge nazkagarria! Zenbat aginkada animari puntu oro zazpi aldeetatik ematen diozka: dala soberbia, andi nai, ta banidade; dala lurreko interes, edo irabazi naiaz; dala inbidia, edo ezin geideen ona ikusiaz; dala ira, aserre, ta gorrotoaz; dala gorputzeko atsegin loi eragabeaz; dala eragabeko jan, edan, lo geiegian, ta nagitasunean; dala Mandamentuen kontrako beste pensamentu, itz, eta obra askotan. Ta oriek erraz ukatu, edo utzi zinitzakeala, benial, edo arñak diralako, orren aisa zuk egitea, zer fede, zer lege, ta zer amorearen señaleara?

ERIOZAREN GAÑEKO EJEMPLOAK

Gauza jakiñagotik lurraren gañean ezta, Eriotzaren Ejenploak baño. Begiz ikusten diranak dirade. Alere Fedeak, edo Eskritura Sagraduak kontatzen digun bat irakurri, edo enzun bear dezu. S. Lukas Ebanjelistak begizko testigu onak bezala kontatzen du, San Pablaren Sermoi batean ikusi zuena. Troide zeritzan erri batera Apostoloa joan zan, eta bereala jenedi andi bat bera ikustera, ta aditzera etorri zan; eta biaramonean joan bear zuela aditu, ta aren zeruko Dotrina enzuteagatik, gau artan arren predika zezala erregutu zioten. Argi asko irazaki, eta Apostoloa asi zan, ta luzaro egon zan, eta guzien atsegin, ta frutu andiaz gau erdiraño predikatu zien; ta zenbat enzunago anbat zaleago, ta enzun naiago. Baña ona bertan munduko desengaña.

Besteen artean Eutiko zeritzan mutil bat, Sermoi enzuten leio batean zegoela, lo guziz pisuak artu, ta Etxearen irugarren bizitza, edo alturik buruz bera erori, ta bertan illik geratu zan. Uste gabeko lanze triste onek an zeuden guziaz lastima andia eman zien, ta ez txikiena San Pablori, zeña Sermoi utzi, ta isilik gelditu zan. San Krisostomok dio emen, Aspotoa mututu, edo isildu zala, zeren beste Maisu famatu, bera baño gutxiago etzanak, edo Eriotzak itzegin zuen. *Pro Doctore casus fuit.* Munduaren Maisu, edo San Pablaren ordean erakusten Eriotza sartu zan, begiz guziak ikusteko, ta ikasteko, gure bizia nola, ta zer dan; bada giza- seme bere edadearen lorean puntu batez lenago bizirik zegoena, bertan illik begien aurrean zekusten. Ah zer ispillu argia!

Erioren kontra ez urteak, ez indarrak, ez osasun, edo ondasunak ezer balio dute: ark guzia era batera darama; gizona lotara joan, ta gutxien uste duenean, illik beste munduan arkitzen da. Eriok bere tiroa puntu batean egiten du. Munduko aldarte, edo goraberak nola diran, Maisu andiak bezala eriotzak erakusten du. Eutiko gazte illik gelditu zan isillik, baña agitz an zeudenai predikatu zien nola lurreko anditasun, atsegin, ta ondasunak bertan emen ondatzen diran; orien ondoren, orien billa ibiltzea, zer neke, ta banidade utsa, edo zorakeria andia dan: eta bizi modu santu batean, denbora dezun artean, obra onakin biziro presa ematea, zeruko ondasunak irabazteko zeñ conseju ona, ta gauza bearra dan.

San Pablo Predikadore andia zan: onen Dotrina zerukoa zan; onen arrazoi argi ederrak zeruko bidea erakusten zutenak ziran; onen itzak Jainkoaren amorean biotzak irazakitze su gar gozoak ziran; onen man-



datu ta abisoak Espiritu Santuarenak bezala, guzientzat seguruak ziran. Baña alere zeruko Dotore San Pablo, eriotzaren aurre, edo aldean isildu, edo mututu zan, eta an zeudenezat eriotzaren Sermoia asko, edo obeago zala zeritzan. Zuk ere bada, Kristaba onen abisoak artzen badituzu damuko etzatzu, ta zeruko bidea arkituko dezu.

Konseju andi au Eujenio Aita Santu, ta bere dizipulo maiteari ondo bizitzeko San Bernardok eman zion. Zure obra guzietan, zion, konsidera zazu, zuk ere besteak bezala ill bear dezula, ta Agintari andien espiritua kentzen duen Jaunak, zure biotza goberna dezala. Lau Aita Santu zure aurrekoak zure egunetan illik ikusi dituzu; ta gauza ziertoa da, Diñidadean bezala eriotzan ere jarraituko diezula. Aiek lurpetik zer dioten adi zazu munduko gloriak zeñ laburrak diran, eta emengo anditasunak nolako errematea duten. Guziaz zeñ laster dijoan; ta zure azkena nolako izango dan. Pensamentu onek pekatuetatik libratu, ta ondo bizierazoko zaitu. Eriotzaren memoria au beraren kontrapozioa da.

Esan degun gaztearen ejemplo triste, edo eriotza, San Lukases dion bezala izan zan. Baña geroenean, dio, nola San Pablo Jesu Kristoren amorezko espirituz beteak, aren miserikoridazko entraña gozo, ta ongiroko zituen, Sermoia utzi, ta Eutiko illik zegoen lekura jatxi zan, ta aren gorputza bere besoetan artu, eta laztan estu bat eman zion Santuak, ta orrekin batean piztu zuen, ta milagrozkoko bizia eman zion; eta San Lukasek dio, an zeuden guziak konsuelo txit andia artu zutela. Eutiko piztu au gizon egin, luzaro bizi, ta diote, S. Juan Ebanjelistari jarraitu, Santu andi egin, ta gure Españan, Jesu Kristoren fedeagatik Martiri glorioso, S. Eutiko ill zala.

ERIOITZA ONAREN EJEMPLOAK

Txit asko, ta ederrak A Andradek, bere Graduetan dakarzi, ta geienak andik artu ditut. Peru Indietatko Erreinoan, ta Juli deritzan Erri batean Kristau familia bat bere birtuteakgatik zeruko fabore andiak señalatu izan zan. Gurasoak txit debotoak ziran, beren fede, ejemplo, ta obra onakin, itzakín baño ere obeto umeak azi zituzten. Jainkoaren bildur santu, ta dotrina, ta ondo bizitzeko, ta salbatzeko bear zutena txit ederki esanaz bitzetan sartu zien. Berak mundurako pobreak, baña Jainkoarekiko birtuteetan txit aberatsak ziran. Artzai, edo ganadu zai bizi ziranak

bezala, orretan garbiro umeak ere oitu zituzten: oiek iru alaba ziran, ta Franzisko zeritzan seme bat, zerutik emana bezala arako egiña.

Amasei urte zitueneko, Jainkoaren, ta bere Ama Santisimaren sierbo deboto, birtuteetan txit aurreratu, ta amorioz betea zegoen, ta zeruak beretzat nai zuen. Ala eriotzaren gaitz andi batek eman zion, ta ori, Jaunaren borondateaz batean txit pazienza gozoaz zeraman. Iltzen zala ezagutu, ta bere biotz guztiaz Jainkoagana biurtu, ta Sakramentuak artzeko pozik prestatu zan. Gure Konpañiako Aita bere Konfessore zuena deitu, eta konfesio jenerala txit ederki egin zuen; baña ondo erraz, ta laster: bada urte gutxi, ta pekatu gutxiago zituen; eta zeru biderako Biatiko Santu, edo bere Jabea bidezko janarizat artu zuen. Gaitzak kordelak estutu, eta azken Olliazioa ere eman zioten; eta Franzisko gazte ori bere orduaren zai, Jainkoak nai zueneko, txit alegere beraren eskuetan zegoen.

Iru arreba bera baño zarragoak, ta birtuteetan bere antzekoak laguntzen zituen. Illtzeko zorian oiekin zegoela, Konfessore bezalako bat orra non gelan sartu zan; baña zeruko Aingeru zan; bada zierto, Padrea Kolejoan zegoen. Padrea bezalako ori Galai txit eder birekin zetorren: oiek ikusi, ta Franzisko txit alaitu, ta gozatu zan. Ea Jainkoaren semea, anima zaite, esan zion, Aingeru, ta Santuakin zeruan laster ikusiko zera, bada zure obra onen saria emateko zure begira daude. Onetan gasioak, eta bere arrebak zeruko miska zoragarri bat aditu zuten, eta georago, ta gozoago zan. Ateronz begiratu, ta orra non anda guztizko eder batzuetan Ama Birjiña, Serafinen gañean ber debotoa konsolatzera zetorrela ikusi zuten. Ordu bi, nai baño lasterrago igaro ziranak bisita onek iraundera zuen; zeruko Erregiña, Aingeru kantari, ta oien erregaloakin; ta aien begietatarik joan ziran. Eria ta arrebak zeruan bazeuden bezala biotzeko poz andiaz gelditu ziran.

Urrengo egunean, Aingeru bat etorri, ta arreba nagusiarri esan zion: zure anaia laster emendik joango da, ta zerura eramateko Aingeru bi etorriko dira. Ara, begira, nondik eramango duten. Begiak jaso, ta orra non Eskala guztizko argitasun ederrez bete, gelatik zeruraño igotzen zan bat ikusi zuen, eta atsegin andiaz bere anaiari esan zion. Andik egun bira beren ejerjizio santuetan zeudela Birjiña Santisima agertu, ta ama guztiz gozoak bezala, bazirudien, bere seme maite oriekin utzi zuela. Bere begi ederraz begiratu, ta esan zion: Ea, ene semetxoa, gaitz, ta neke oiek laster igaroko dira, ta zure saria glorian artzera etorriko zera. Nere Semearen Kortean, emendik egun bira etxedeten dizut. Egun biak gloria bizian bezala, kolokio gozoetan igaro, eta Ama maitea ikusten zegoena bezala, beraren besoetan anima eman, ta Aingeruak zerura betiko eraman zuten.



ONEN ARREBA BATEN EJENPLOA

Indietako mutiltxo ditzoso au, enzun dezun bezala, zeruetara igo zan. Baña familia debotaarentzat Jaunaren miserikoridak orrekin akabatu etziran, Franziskok bere arrebatxo bat, eskutik bezala, bere ondoren zerura eraman artean. Iru arrebetatik erdikoa, edo bigarrena anaiarekin azi zan: biak elkarrekin ganadua zaitzen, ta are geiago deboziozko ejerzizioetan senide, ta lagun beti oi ziran. Donzella onek, guzia Jainkoarena izateko, ta Ama Birjiñari jarraitzeko bere Birjinidadea guztizko boto andi batekin betiko eskeñi, edo konsagratu zion: eta Indio txit desonesto abereen gisa bizi ziranen artean, arrosa eder garbi au arkitzen zan. Gure Jaungoikoak bere argi, grazia, ta doaiak, aprobetxatu nai duenari, ugari non ere nai ematen diozka.

Donzella au santa bat egiñik onela bizitzan: egunoro geiago, ta obeamgo izateko, askotan konfesatu, ta komulgatu oi zan: festa, danza, ta beste bulletatik iges Eleizetara joan ta Ama Santisimaren eskuetatik aren Semeari an biotz guzia ematen zion; ganadu zai, Jainkoaren, ta bere gurasoen borondatea egiteagatik, kanpoetan zebillenean, santuen zeruko ditzak kontenplätzen, glorian bezala oi zebillen. Arako anai zorionekoa ara igo, ta bere burua, ganaduen ondoren bakarrik ikusi zuenean; bere garbitasuna eziñ erraz gordeko zuelako, ta peligro andien artean zegoelako, bildur, ta kezka estu batek eman zion. Beste aldetik Jainkoaren amore añ beroa biotzean sartu zitzaion, non da bere Jabe onari negar andiak in erregutzen zion, arren bera ofenditzeko peligroetatik atera, ta bera beti seguru amatzeko zerura eraman zezala; bada bere Esposo maitea, kulpa benial batekin ere, ofenditu baño lenago milla bizitza galdu nai zituela.

O gure Jainkoaren amore ontasunez beteal Orazio onetan, anaiia ill, ta bigarren egunean, zegoela, lo gozo batek aitu zuen; eta orra non bere Anai doatsua txitezko eder, gloriaz janzia agertu, ta esan zion: nere arreba maitea, konsola zaite. Ea, Jainkoak zure deseo on, eta orazioak enzun ditu, ta laster zeruko glorian nere lagun izango zera. Berri on oiekin txit pozaldi andia Donzellak artu zuen, eta andik irugarren egunean iltzeko gaitzak eman zion. Gure Padre berea Konfesorea deitu, ta zer igaro zitzaion, kontatu zion. Medikiak deitu, ta gaitza ezagutu etzuten; baña batak esan zuen: Jainkoak au zerura eraman nai du; eta engañatu etzan. Egun artan bertan, Jesus bere Esposoa agertu, eta esan zion: Nere Esposo-

sa maitea; zu eramateko Aingeruak datoz; atoz nerekin. Au aditu orduko lasterka jaiki, ta Jesus bere Jabearen ondoren uste guziaz zijoan; bere aizpa an zeudenak eldu zioten; eta Donzellak bere eskuetatik zerua kendu ziotelako, negarrari eman zion.

Kolejioko Erretore A Pedro Bizente eria ikustera joan, eta guzia kontatu, ta esan zion: Biar eguerdi puntuan illko naiz. Bereala debozio andiaz prestatu, ta Sakramentuak artu ziten; ta bertatik Jesus, Maria, ta Santuakin, zeruan baliz bezala, ta an betiko iraungo duten kolokio gozokak egiten asi zan. Esan zuen ordua allegatu, ta gela artan Aingeruen musika txit suabe bat aditu zan. Kantariak zitoen: Kristoren Esposa atoz, Jaunak zuretzat betiko prestaturik daukan Koroa artzera. An zeudenak zoraturik bezala zeuden: eta Animaren Errekomentazioa gure Padre bi esaten zeudela, zorioneko Donzellak Jaunari bere espiritua eman zion, eta Aingeruak beren lagun maite, ta garbi estimatua bezala zerura eraman zuten.

Ejenplo oietan ikasi bear dezun lezioa da ikustea, nola Jainkoaren grazia, persona, estadu, denbora, ta leku guzietan gure onerako beti prestdagoen; beti guri deiez, biotzeko atea idiki, ta sartzeko leku eman nai badiogu, Franziskok, eta bere arreba gazteak egin zuten bezala. Kristau berriak ziran, eta alere zer fedea, zer Jaungoikoaren amorioa; zeñ laster ikusi, ta zeñ firme gorde zuten Jaunaren borondatea. Zenbat bider Jaun amorosoak, berari jarraitzeko, onelako argi, abiso, ta ejenploaz zure biotzean deitu dizu;

ERIoTZA GAIZTOAREN EJENPLOAK

Esan degun Errian bertan Gizon bat izandu zan, Jaun baten illoba, ta gure Padreak gaztetatik kontu andiaz azi zutena; onerako jaiola bezala zan, eta lagun on, ejenplo, ta lezio onakin birtutean txit aurreratu zan. Onetan osaba iltzan, ta illobaren merituak Padreak ikusi, ta osabaren ifiziorako bera bezalakorik etzala; aren lekuan Kazike egitera logratu zioten. Arako gazte orrek Agintari, ta aberats bere burua ikusi zuenean, piedadezko ejerzizio, ta lengo debozioak utzi, eta infernuko peste, edo lagun gaitzoi arrimatu, ta Kristau onaren azieraz, eta Jainkoaren bildur santuaz aztu zan, eta alperkeria, erregalo, ta bizi modu txar galdu bat artu zuen.

Padreak abiso, ta konseju onik asko eman zioten; baña guzia alperrik: txit prestuez gogor egin, ta ofensa andiak in orien, ta Indio gaxoen kontra lazki biurtu zan, eta bere gaitzakeriak gatik Justiziak ere kastigatu



zuen; baña obeto etzan. Potosira Kapitan zijoala, bere pekatuak gatik gaitz andi batek artu, ta korde gabe ill otza bezala erori zan. Bere lagun, ta Indioen artean lasterka etxera eraman, ta erremedioakin beregan etorri zan. Aietatik bati galdetu zion: zuriz janzerikako aurrean zetorren Galai ura ea nor zan. Jaunak ori agertu zion, beragana lengo biziera santuaz biurtu zedin. Gure Padre bati deitu zioten: konfesa zedilla esan, ta ase-rratu, ta etzuela konfesatu nai, esan zuen.

Andik egun bira, Jainkoak bere piedadeaz ikaragarrizko abiso bat eman zion. Berak adiskide batzuei kontatu zien, Jainkoaren juizioan egon zala, ta bere ezagun asko kontu zorroz, ta tranze estuan ikusi zituela, baña inñori ez esateko agindu ziotela. Gauza oiek enzun, ta bere lengusu batek asko alegin egin zuen, bere pekatu, ta peligroak, Jaunari berak eman bear zion bere bizi galduaren kontu estua adierazo, ta konfesio andi bat eragiteko. Baña añ itsua zegoen non da kasorik egin etzion: orañ ezin, zion, orañ ezin egingo det; tristeza andia daukat, ta nere eskuan eztago.

Aitzakiarik izan etzezan, Jaunak leku eman, ta onera puska bat eman zuen. Baña animaz begiratu, ta Jainkoagana biurtu bearrean bere adiskideak deitu, ardoa, ta musika erakarri, ta alegeratzeko, danzan, ta ordike-rian, angu usora asi ziran; berak aurreneko ontzia artu, ta brindatu nai zien; baña aora eraman baño len ortzaz gora illa bezala eroritzan. Erremedioakin onetatik ere beregan zan. Konfesoera lasterka erakarri, ta animatu zuen asko konfesio on bat egitera. Lau urte zan konfesatu etzala. Era ona zuela: bereala Jaunagana biur zedilla. Baña, ezin det, ezin det, guziari eranzuten zion. Ai ezin det, eta tormentu gogorak artu naute!

Pelea latz onetan iru egunean egondu zan. Lenenean zion: Ai nere desdixta! Ai! Ur otz, edo gela, suak baño geiago tormentatzen duenean nago! Irrugarrenean: Ai! Ai! Azote gogorakin urratzen naute! Nork bada, bere aideak esan zioten? Padreak, esan zuen, ta are geiago Aita Erretoreak; zeren aien esanak ondo artu bearrean, gaizki esaka, ta modu askotan ofenditu dituzun! Orregatik ere oiek txit asko animatzen zuten; baña alperrik. Batek Santo Kristoa begietara eraman zion; bañan istua bota, ta kendu zuen; eta gauza onak ez aditzeagatik belarriak tapatzen zituen. Arekikoa ikusi, ta Padreak Kolejiora biurtu ziran; an orazioan jarri, ta anima galduarenzat Jaunari miserikordia, ta Ama Birjiñari bitarteko izan zedilla eskatu zioten.

Eri tristeak baño miserikordiazko Amak obeto enzun zituen: bada ordu artan Aingeruen Ereña urezko trono argi eder batean gizonari agertu, eta onek esan zuen: Orrako Andre eder ori nor da, ta nori eskatzen dago? Inñor ezer ikusten etzuen, alere ziertotzat esan zioten; Ori Ama

Birjiña bere Semeari zure erremedio, ta salbazioa eskatzen diona da. O biotz arri ta alzairuak baño gogorra! Onelako etorkari, edo Ama gozoarekin nor bigunduko etzan? Bada triste malmetituta etzan; eta Ama Birjiña ezkutatu, ta garrasi tristeakin asi zan; Ai demoniak datoz! Ai banaramate! Deabru oriek ken itzatzute. Ai! Ai! ta onetan illik gelditu zan. Aren betiko desdixta obeto ikusteko, ill janzia ematera zijoazela, infernu-ko bisaje txit itsusi ikaragarriak egiten asi zan; guziak arriturik, nola bizi ala ill, ta kondenatu zala, klaru ikusi zuten.

ANDRE BATEN ERIOTZA DESGRAZIATUA

Asikira deritzan Erri batean guraso Jainkoaren bildur gutxiko batzuek bizi ziran. Alaba bat, ta beren antzekoa zuten. Gurasoak nolakoa umeak alakoak. Txit aisa, ardura gabe, ta bere erara azi zuten. Libertade orrekin galdu, ta bizioetara eman zuen; pekatuetan beñ jaiki, beñ erori zebillen, eta beti peligro andian. Jainkoak dotrina, sermoi, ta besteen ejemplo onakin abiso asko eman zion, ta ez gutxiago Aingeruaren argi bizi, ta barrengo dei, ta konzienzia leialaren kezakakin. Ortik bildur puska bat artu orduko aztutzen zan; alere animako pakerik etzuen ta Jainkoak bere miserikordiaz deitzen zion.

Onela bere pekatuen artean jiraka zebillela, konzienziako arrak beñ batean ainbeste estutu zuen, non kondenazioko bidea zeramala, ta erremediatu bear zuela ezagutu zuen. Nai, ta nai ez, edo nai ta bear, salbatuko bazan, konfesio jeneral on bat egin, ta bizi berria bear zala. Baña deabruak, oitu nola, erraz engañatu zuen. Pekatuen kateak urratu, ta konzienziako aranzak ateratzeko, Konfesoera on batekin, nai zuen bezala, tratatu bearrean, etsaiak ori burutik kendu, eta zer igarotzen zitzaion, ta zer asmo zuen, bere Aitari kontatu zion. Deabruen ofizioak onek egn zituen, ta esan zion: kontu oriek utzi, ta aisago bizi zedilla; konfesio jeneral, eta beste gauzak gero egingo zituela. Pekatuetan bada nasturik zegoela, atzereko gaitzak eman zion, ta txit estuan jarri zan.

Konfesoera bereala erakarri zan. Baña, o gauza arrigarri, ta Jainkoaren kastigu gogor, emen ikusi zana! Osasunan nola ondo konfesatu nai etzuen, ala eriotzan egin zuen. Beste gauza guzietan erraz enzun, ta eranzun, aditu, ta itz egiten zuen; baña konfesa zedilla esan, ta gortu, sortu, mututu, ta itzik batere etzuen. Ikaraturik zeuden guziak, ta are geiago iltzeko zorian, edo eriorarekin burruka zebillela esan zuenean: Infernuko



basakatuen figuran demonioak ikusten zituela, ta ito nai zutela. Orra, ur bedeikatua bota, ta esaten zioten: emen demoniorik eztago. Baña orduko presa egin zuten. Ai! Ai! Infernuko suetan erretzen nago! Ai! Deabruak naramate. Ala iltzan, ta eraman zuten; eta neskatx onen gorputza erre, edo tostataua, ta txit izugarria arkitu zan. Ta orra penitentzia, konfesioa, ta biziera berria geroko utziak zer pagua duen.

ERIoTZA GAIZTOAREN BESTE EJENPLOA

Espoletoko Errian, Roberto Lizioak dionez, dama bat bere erara, Jainkoaren bildur gabe azi, ta bizi zan; Seguru ere alaba bakarra, ta ala gaizki oitua. Txikitatik gala zale, apaiñgura, txoralda utsa, ta bere edertasunaz txit pagatu, edo ezkondua; eta añ itsua non mundu guztia bere ondoren zerraiola uste zuen, edo ala nai zukean. Jainkoaz, ta bere animaz aztu, ta galak, galanteoak, eta libertadeak beste konturik etzuen, eta beti, ta guzian bereaz irten bear zuen. Jainkoak bere argi gozoakin deituaz beregantzeko abiso asko eman ziozkan, bai eta bere konzienziako kezka arantzazkoak ere; baña oriek bere erokeriakin erraz ito, ta aztu oi zituen; bere galaiak baño Jainkoak galdu naiago zuen.

Edadearen lorean, ta pekatuen artean zegoela, uste gabeko gaitz andi batek artu zuen, ta geldika erio bat egiñik, urtu, erkitu, ta desegiñik utzi zuen. Bere kulpa guziak bereala erdian artu zuten, ta bere biotzean esaten zioten: zure lanak, zure obrak gera; zuk egiñak gera; bizian bezala eriotzan zurekin izango gera. O zer berri tristeak! O zer biotzeko illuntasuna! O zer tranzea! Ken, ken ortik: kanpora demonioak; ur bedeikatua betor; Ez, ez, diote deabruak: gu gure etxean, gure torkian, gure infernua gaude; beñtzat leku, edo anima oentan bizitzan bezala eriotzan, ta beti izango gera. Eri tristeak bere atsegiñ loien ardoa erreparo gabe edan zuen, ta eriotzan guzia beazun samiñ, ta infernuko pozoi biurtu zitzaion.

Bere Barrenean deabruen iduripen, ta bisaje añ izugarriak ikusten zituen, non inõlako moduz ezin sosegatu zan; jira batera, jira bestera, ta alde guzitan larria, ta ikara; Ai, ama nerea! Ai! Infernuko doloreak artzen naute; iltzen naz, ta deabruak naramate. Ez, ene Alaba, esan zion: ori erremedioa; ori Santo Kristo au; onegana biur zaite. Begiratzen diot; baña bera billatu, ta amatu bearrean, nola ofenditu dedan, konsolatzen ez nau; aserre dago; ken nere begietatik. Baña ai! Jesus krizifikatuak ordu artan nola konsolatuko zaitu; baldin aren aranzak zure pensamentu zoro loiak

kondenatzen badituzte; eta orobat aren esku, ta oñ iltzez josian zure esku-ka libre, ta pauso gaiztoak; aren biotz idikiak zure aren irak, aserre, ta atsegín itsusiak; aren larru gorrizko soñekogabeak zure galak, ta erakeriak; eta aren gorputz zuk urratua zure aren gustoen Juez izango bada?

Santo Kristoa kendu, ta Amak esan zion: zere konsolatuko zaitu bada? Ama, sosegatu nabaiz, gusto bat eman bear didazu. Zer bada? Nere galarik ederrena betor. Ah zer guraria! Zer ill janzi berezkoa! Bearrik bazuen ama orrek ekarri, ta nola bere buruaz ezin baliatu zan, amak lagundu, ta janzi zuen. Osasunan bezala aleiñaz edertu, ta apaiñdu zan. Orañ nere ispillua betor. An bere arpegi eder, urrezko ille, ta edertasunaren ordean, erio illun tristea ikusi zuen. Ai au nere itxura! Ta onek erremediorik ezduela? Beraz nere atsegiñak joan dira; beraz iltzenaiz, ta nereak egin du? Ez ene alaba, ori ez esan. Jainkoari dei zaiozu. Jainkoarekin zer det nik zer ikusi? Nere adiskideak non zerate? Nere galaiak atozte; ez ni utzi; nere gustoak lagun zadazute; bizian bezala, eriotzan ere zuena izan bear det.

Orduan bere biotzean zeuzkan pekatuak arpegira irten, ta desditxa guzien arrabia amorratu batek artu zuen, ta Jainkoa utzi, ta deabruai ots egiten asi zan; demonioak non zerate; zuena naiz, atozte. Ea demonioa, nere anima betiko ematen, ta agintzen dizut. Eta au esatearekin batean ispillua erori, ta illa geratu zan, ta anima demonioak infernua ondatu zuen. Eta orra zer dan emakume eroa, ta alakoaren azkeneko gogoa.



GORPUTZ ILLAREN EJENPLOAK

Txit gauza jakiña da Alejandro Faiak kontatzen duena. Konde Jaun andi bat besteak bezala iltzan, ta lurpean sartu zuten. Andik denbora puska batera aren obia idiki bear izan zan; eta an arkitu ziranak, arriturik ikusi zuten, Jaun orren arpegian zapo guziz aundi nazkagarri bat, begiak, eta buru guzia jaten, eta beste ar itsusi, eta pistia asko orobat ari zirala, eta an zeudenak nazkatu, ta lasterka iges joan ziran. Aren seme Konde galai gazteak, zer igaro zan aditu, ta bere begiz ikustera joan zan. Ikusgarri triste ori bere aragi ustel, zapo, ta arrakin ondo begiratu, ta Jainkoak aren biotza argitu, eta esan zuen: Ona zeñ itsuak gauden; ona zertan gaeratu bear degun. Pistia itsusi oiek dira gure adiskide alako kostuan, ta ainbeste eregalorekin azi, eta gizentzen ditugunak; oiek gure lagun, gurekin bizi ta gorde, eta oi biguñetan idukitzen ditugunak. O! Zer zorakeria da au?

Ez, ez beñtatzat orañdaño bezala. Obe degu, gorputz au, ta oriek batean, barau, ta penitenziaz orañ illerazo, guri burla gero egin, eta onela jan ez gaitzaten. Jainkoaren abiso, ta desengaño au biotzean artu, bere etxe, ta ondasunak bertan utzi, ta Kristori pobrezan jarritzeko, ezkutatu, ta andik iges egin zuen. Erromara igaro, ta Konfesore santu bat artu, ta Jainkoaren bildur, ta amorez irazaki, ta biziera santu bat asi zuen; eta bere janari pobrea irabazteko, Ikazkin egin zan. Luzaro Jainkoa serbitu, ta egun batean bere ikatza saltzera Errira zijoala, gaitz andi batek artu, ta txit pazienza andiaz eraman zuen; ederki zerurako prestatu bere anima Jainkoari eman zion.

Puntu artan Erromako kanpana guziak berez ill ots tristea banatu zuten. Aita Santua, eta jendeak arriturik, zer ote zan, edo nor ill zan. Orduan ditzosoaren Konfesoreak guzia kontatu zien, ta iltzan Jaun andi nor, ta nolakoa zan. Jainkoak ala nai, ta Kondearen etxeko soldaduaren billa len ibilli ziranak, Erroman arkitzen ziran, eta beren Prinzipe Jabearen Gorputz santu benerazio, ta konsuelo andiaz bere Errira eraman zuten. Ta ora mundua utzitzea munduan ere nola Jaunak gloriáz pagatzen duen.

Gure San Franzisko Borja andiari Enperatriz Doña Isabelen gorputza Granadara eraman, eta entregatzeko kaja idiki zanean eragin zion mudanza, ejemplo jakiña da. Arpegi ura añ trukatua, ta añ ta onen itsusi nazkagarria agertu zan, non Enperatrizarena zala, esatera iñor ere atrebi-

tu etzan. Añ usai, ta kirats gaiztoa bota zuen, ze guziak len baño len andik iges egin zuten. Borja Santua bakarrik geratu zan.

An zekusan gorputza, norena izan zan, ta nolakoa zegoen pensatzen jarri zan, eta zion: Arpegi onen lengo edertasuna non da! Usteldu, ta arrez bete dago. Onen lengo begiratzeko majestade erespetoz guziak betetzen zituena non da? Orañ bere obligatuenak ere utzi, ta iges joan dira. O munduko banidadea! Desengaño onek Borja Jainkoagana erakarri, mundua oñ pean utzi, ta zerua billatzera animatu zuen; eta ilko zitzaion Jaunik aurrera ez serbitzeko propositu firmea artu zuen, ta oretatik santu andi egin zan.

Zori oneko Konde, ta Markes oiek biak begiz, ta obretan ikusi, ta ikasi zuten, San Agustinekin Santuak diotena: pekatuetatik libratzeko, deabruen tentazio, munduaren gezur, ta aragiaren palaguak benzitzeko obi batean, edo gorputz illaren konsiderazioan, fedeaz sartzea baño erremedio oberik ez tala. Soseguz an pensezazu zer, nor, ta nola dagoen. Munduko anditasun, ondasun, onen balentia, ta bizarriak zer egin du? Orren etxeko, soñeko, maieko, oieko erregaloak non dira? Ona zertan paratu diran. Or ez dakutsu, arak, ta ezurrak, lur ustel, ta ubela, autsa, ta utsa, atsa, ta kiratsa baño. Orretan zu ere laster biurtuko zera; ondo pensezazu, ta buruko, edo almoada onen gañean beti lo egizu; ta lurreko atsegin, ta pekatuen ganak edo galeak kenduko zaizkitzu; banidadeak utzi, ta egia billatuko dezu; lurretik desegin, ta zerua betiko izango dezu.



JUIZIOAREN GAÑEKO EJENPLOAK

Bi modutan au zureztat izango da. Bata Jainkoarekin zure artean bakarrik, edo zurekiko Juizio bakar, ta partikularra deritzana. Bestea Jainkoaren, ta mundu guziaren aurrean, zurekin mundu guziarekiko Juizio unibersala deritzana. Bata iltzen zeran puntuan; bestea azken juizioko egunean. A Andradek dakartzien Juizio bien Ejenploak, bata bestearen ondoren ikusiko dituzu.

Kuzko deritzan Indietako Erri jakiñean Gizon aberats, eta obligazio andietako bat izan zan; baña Kristau legerik eztzuena; izena bai, baña obrarik eztuen. Deabruak, ta munduak engañatu, ta pekatuetan begi bietaraño sarturik zegoen. Jaunaren bildurra galdu, ta konfesioko erremedio añ bearra, ta añ erraza utzi, ta ogei ta amar urtean konfesatu gabe bizi zan. Jainkoaren ontasunak, ta bere konzienzia leialak abiso asko emanagatik, enzun bai, baña eranzun ez egiten zuen, ta betiko oiturak, ta etsaiaren tentazioak azpian zeukaten. Garizuma etorri, ta konfesio on batekin animen erremedioa billatzen, ta Eleizaz kunplitzen besteak ikusi, ta berak guziak baño bearrago zuela ezagutzen zuen. Alere ainbeste urteko pekatuen kargak errenditu, ta ikarak konfesatzeko animoa kentzen zion. Ah triste! Zer aranza gogorrakin biziko zan! Atzeneko miseria onetan, Jaunaren miseriakodiak lagundu zion.

Gau batean, lorik pisuenean, gau erdian zetzala, gauza berri, ta izugarri bat igaro zitzaion. Bere adiskide bat Erriko beste jendedi andi batekin, bere begien aurretik kalea barrena, txit lasterka, ta estuan zijoazela ikusi zituen. Adiskideari, nora zoaz, esan zion; Jainkoaren Juiziora goaz, eta zuk galdu, ta Erri au guzia zugatik ondatzea, nai ezpadezu, atoz laster gurekin. Añ gogotik, ta añ biziro au esan zion, non bereala, ta ariñ juiziora besteai jarraitzen asi zan, eta oriekin joan zan.

Erri artan, plaza gure Kolejioaren aurrean dago; eta ara allegatu orduko, Kristo Gure Jauna bere Majestade guziarekin, ta Aingerua alde guzitik, ta Ama Santissima, pekatarien Bitartekoa bere ondoan ikusi zituen. Beko aldetik demonio izugarri asko, ta aserreak, pekatarien kontra kargu andiak egiteko txit prest zeudela. Erriko guziaz Jesu Kristoren odol preziosoaz, edo Sakramentu, dotrina, ta justuen ejenploaz kargu estuak, eta bakoitzari banaka orobat eegiten zitzaiozkan. Arako gure gizona kontuetara deitu zutenean: Ai zer larria! Demonioak bereala, besteak bezala, ta geiago, ta estuago akusatzen, ta kargu andiak egiten asi ziran; ta ogei ta

amar urtean Jaunaren etsai egiñik, konfesatu gabe, ta zeruko abisoai eranzun gabe, onelako, ta alako pekatuetan nola egondu zan, guziak banaka esanaz.

Edozeñek dakus gizon triste galdua, ta egiaz Jaunaren begietan ala akusatu au zer infernuko bildur, ta ansietan arkituko zan. Ta are geiago bere aurretik beste asko pekatu gutxiago, ta txikiagoagatik Tribunal justu, ta estu artan betiko infernura zijoazela ikusirik. Eriozko izerdi, ta naigabe esanal guziak baño, andiagoen artean, bere burua galdutzat, era beste erremedio gabe ikusi, eta lasterka pekatarien Ama Santissima gana begiak biurtu, ta aren oñetan bere burua bota zuen; tranzerik estuenak eskatzen zuen bezala, erregutu zion, arren bere mantu pean art zezala. Eta biotz guzitik itza ematen ziola, bere Seme maitea sekulan geiago ez ofenditzeko, ta beraren amorio, ta debozio andi batekin, egiazko penitentzia, ta bizitza santu bat aurrera egiteko.

Bere miseriakodiak begiaz Ama maiteak begiratu zion, ta penitentzia zion bezala, egiteko lekua bere Semeagandik alkanzatu zion; ta Kolejio artako Operario Apostoliko zelo andiko Aita Martin Kanpos, Ama Birjiñak berak begien aurrean ifiñi, ta señaletu zion, ta arekin konfesa zedilla, ta aren esanak egin zitzala, agindu zion. Gizon au bere bizitza gaiztoan gure Kolejioan gutxi sartu oi zan, ta Ama Santissima añ biziro erakusi zion, non biaramonean, ikusi orduko, bereala ezagutu zuen.

Juizio arrigarri ori onetan akabatu, eta beregan biurtu zan; baña izerditan añ urtu, edo desegiña, ze orañdik ere Tribunal artan zegoela zirudien. Bere etxeakoi lasterka otsegin, ta zeñ igaroa zegoen ikusi zuten, ta guziaz orazio egiten laguntzea eskatu zion, eta gau nekezko artatik ondo irteteko grazia, Ama Birjiñari biotz guzitik eska ziozatala. Ala egin zan; eta egun sentian, damuz urturikako bere biotza Ama Santisimaren eskue-tatik Jesus onari eman, ta ondo ariñ Kolejiora joan zan. Aita Martin bereala ezagutu zuen, ta zeruko mandatu bat arenzat zekarrela esan zion; ori aditu, ta bere konfesio andia asi zuen; baña damuaren damuz itzak baño negar malkoak geiago ziran. Bere kulpak, deabruak Juizioan bezala, ark konfesioan esan zituen.

Aita Martinek txit animatu, ta berak Ama Birjiñari Tribunalean agindu zion biziera santu bat egiteko berotu zuen. Ala kunplitu zuen, ta ejenplo guziaz andiak errian eman zituen; len pekatari galdua, gero Kristau txit jainkozkoa ikusi zan. Bere ejenplo santu ta konsejuakin bere familia añ ederki gobernatu izan zuen, non erri guzia marabillaturik zeukan. Propositu, ta bizitza santuan, ill arteraño, firme iraundu zuen; Jainkoaren juizio aserre, ta ango bere kontu estua ikusi, ta gogoan sekulako sartu zitzaiona



bezala. Zuk ere, Irakurlea, Ama Birjiñaz baliatu, ta ark bezala, bertatik penitentsia eizu, eta Juizioan kontu ona emateko, ark bezalako biziera berria arr ezazu.

BESTE EJENPLOA

Juizioko egunaren memoria fede biziaren argitan ikusi, ta pensatzea, mundu guzia ikara gorrian sartzeko diña da. Ez pekatariak bakarrik, bai eta diran, ta izango diran justuenak ere egun triste, edo egun illunaren memoriak bildur andiaz beteko ditu. Jaunaren begietan santu, ta justua zan Job; alere anziña, ta añ urrutitik juizioko ordu izugarri, ta kontu estua ikusi, ta guzia ikara añ andiak artu zuen, non ta zion: orduko zure aserre, ta nere kontua igaro artean, Jauna, nor infernuan estali, ta gorderik legokean! Baña ez egun artako Juizioa, egiaz bertan izango dan bezala, ezpada pintaturik ikusiak bera, pekatari andiak, ta esan diteke, Erreino oso bat sekulako ikaratu, ta Jainkoaren fede, ta legera ekarri zuen.

Ala ejemplo, ta konbersio au marabilla anditzat arrazoiak Baronio Kardenalak kontatzen digu. Bulgariako Errege Bulgario Jentil, edo Jainkoaren fede gabeko gizona, eta berez txit kruek, aserre, ta gogorra zan. Aren mende, edo eskuetara, Jainkoak ala nai, ta Metodio zeritzan Monje bat etorri zan; eta au Pintore txit famatua zan. Bulgariok ori jakin zueanean, bere Jauregi, edo Palazioa apañtzeko, Pintura, ta Imajiña asko egin zitzala agindu zion; eta Errege ori nola añ braboa, ta ikara emallea zan, pensa al-ditekean gauzarik ikaragarriena, eta guziak arrituko zituen bat pinta zezala esan zion. Era eder Jainkoak emanikako onezaz Metodio txit ondo baliatu zan.

Errege geinean oi zegoen Salarik galantenean Jainkoak lagundu, ta al zuen bizitasunik egokienaz Juizioko egun, edo gau ikaragarria pintatu, ta bere lekuan paratu zuen. An Juiziorako Jesu Kristoren etorrera, biziak, eta illak Ebanjelioan berak dion bezala juzgatzeko, ikusten zan. An Jaunaren Majestade, ta poderiozko Tribunal. An Aingeru eder, ta Santu guziak gloriak jantzirik eskui, edo goi aldera; eta ezker, edo beko aldera suz, ta garrez beterik deabru, ta kondenatu beltz itsusi guziak. Au guzia Josafateko ibar zabalena ikusten zan: eta goien gloria bizia, eta bean inferu gorria.

Arako Bulgariok sekulan ez ikusi, ez aditu, ta gogoratu ere etzitzaion Pintura berri ori begiz ikusi zueanean, beregandik irten, ta korde gabe, edo

mututurik luzaro egondu zan. Beñ, ta berriz begiratu, ta geroago, ta ikara andiago zuen: eta biotz añ gogorduna izanik ere, esan al baño larri, ta bildur gogorragok sekulako Errege ori artu zuen. Puska bat beregandua zanean, Metodio Monjeari galdetu zion: Pinturako tranze arrigarri ura ea zer zan? Orduan ark Erregeari guzia bana-banaka esplikatuaz, gure fedeko Misterioak txit ederki agertu, ta adierazo ziozkan. Jaun andi ura, edo Kristo nor zan: nola gu salbatzeko Jainkoa gizon egin zan, ta beste artikulo, ta pausoak: nola zerura igo zan, ta gero, an ikusten zuen bezala, Juiziora etorriko zan, eta onai, arako goien zekuzan gloria, ta gaistoai beko tormentu ikaragarri aiek emango ziezten.

Gure Lege Santu, ta garbiaren marabillak aditu, ta Jainkoaren graziak biotza argitu, ta Bulgariok ezagutu zuen, abereen gila bizi izandu zala; eta trukaturik guzia Metodoari esan zion: Jainkoagana biurtu, fede santua artu, ta salbatu naizuela. Denbora onetan Sergio Ila, A, Santu, ta Migel Illa. Enperadore ziran. Bereala biai eskribitu, ta erregetu zien, berari, ta bere Erreino guziari gure fede, ta lege santua erakusteko, bear ziran Predikadore, ta Maisuak, arren bialdu zitzatela. Biakin adiskide andi egin zan, eta Bateo Santuan, Enperadore aren debozioz Migel Izena artu zuen: eta fedearekin bizioak utzi, ta bizimodu santu bat asi zuen: eta Errege poderoso gogor batetik Kristoren serbitzari umill pozik egin zan. Bere jende jentil itsu asko bere kontra jaiki zitzaiozkan; baña Jainkoaren fabore andiakin Kristau gutxi baziran ere, jentilen kontra lazki peleatu, ta ziranak sujetatu zituen. Gero Jainkoak pakea eman zion, ta Jesu Kristoren fedea Erreino guzian zabaldu zan. Ona Pintura batetik zer marabillak ikusi ziran.



INFERNUKO PENEN GAÑEKO EJENPLOA

Juzioarekin batean infernuko tormentuak Ejenplo askotan arkitzen dira, ta zuk ere ala ikusiko dituzu. Kaputxinoen Erljio santuko Historian kontatzen da, Fr, Migel de Napoles Predikadore Apostoliko, ta animen zelo andiko Ministro señalatu bat izandu zala: bere birtute, sermoi, ta ejenploakin anima asko zerura bialdu, eta bere sari artzeko, edo iltzeko zorian zegoela, beste munduan zer igarotzen zan ikustera Jainkoak eraman zuen. Erljioak iltzen laguntzen ziotela, illa bezala, edo asnase gabe luzaro geratu zan. Beregana zerbait biurtu zanean, an zeudenak guziz admiratu ziran: bada leku batera begira arritua bezala zekusten, eta noizean beñ bere barren barrenetik suspirio txit izugarriak ateratzen zituen: eta luzaro mutua bezala zegoen. Aita Guardianak, zer ote zan, edo añ luzaro zer ikusi zuen jakiteko, Jainkoaren izenean esan zezala, agindu zion. Izen santu artzaz animatu eta beste mundutik zetorrenak bezala eranzun zion.

Ay, Aita! Zer igaro, ta zer ikusi dedan, nork esan? Jaungoikoak gure onerako eraman, ta sentidu umano, edo emengoak baño gorago, altuago, ta eskutuago dauden gauza andiak ikusi ditut. Nork esan al? Zer pauso, zer lanze, ta tranze miragarriak! Zer eta nolako egiak, baño gure esan al guziaz askoz eragiten dienak! Jaunak agindu, ta izugarritzko jornada, edo infernu, Purgatorio, ta Zerurañoko Erromeria bat egin det. Infernuan anima kondenatuak, ta orien tormentuak ikusi ditut. Neguan elur lumak, ta udako jasarik andienean euri tantak bezala, animak infernura erorten ziran, ta deabruak beren tormentuetan bertan ondatzen zituzten. Ibai beltz andi, suz, ta garrezko, berun, edo metal urtuaz beterikako putzuak ikui ditut, eta anima tristeak negar, ta deadar adiaz, ta inziriaz gora ta bera, negar malko goriak darieztela ta alde guzitik demonioak persegitzen dituztela.

An suge, zirau, zapo, armiarma, dragoi, ta pistia mota guziak, izugarriko itxurak, aginka, ta atzaparka animak puskatzen bezala. An beste aldetik elur zulo txit otz, ta izotzez bete, ta beñere urtzen ez diranak: an putzu, osiñ, edo zingira jelatuetan animak beti-beti arrabiaz, ta garrasiz: an zakur amorratuen gisako gose, ta egarri ito, edo iltzerañokoak, baño beñere akatzen ez diranak: an illuntasun beltz, beti gau erdi, suaz ta keaz, atsez, ta kiratsez betea. An Jainkoa beti ikusi naia, ta iñoiz ere ez ikusi bear

gogorra: eta ortik betiko guzien, ta bakoitzaren madarikazio, eta bataik bestea ezin ikusia, ta beti ikusi bearra, eta beste pena, ta naigabe mota guziak, ta esan al baño andiagoak. Baña guzietan oriek berdin ez dira; bairzik pekatuak zenbat, eta nola tormentuak anbat, eta ala.

Andik Purgatoriora Jainkoak eraman ninduen: eta nik ikusi dedanez, infernuko tormentuak, edo ain antzeko an ere ziraden. An zerura bear duten anima autetsiak su gar bizizko ibai, karobi, edo labe gorietan, besteak elur zulo jelatuetan, eta beste tormentu andietan zebiltzan: besteak Jainkoa ikusteko zale, gogo, ta ansiatzko pena gogorretan erretzen, ta egosten bezala Jainkoaren justiziak agintzen zuen bezala. Baña orien penak, infernukoak bezala betiko ez dira; baizen beren kulpen loiak garbitu, ta pagatu arteraño. Esperanza onek txit arintzen diezte. Emen animak Aingeruak animatzen dituzte; bañoñ kondenatuak demonioak beti persegi, ta tormentatzen dituzte. Ainbeste infernura erorten ikusi artean, Purgatoriora bat, edo bi etorri ziran.

Emendik zerura igo ninduten. Ango Gloria zer dan, ta an zer ikusi nuen, nork esan dezake? Erri andi, zerua bera, arri prezioso, urre argi ederez egiña, emengo gauza itsusien antzik ez duena. An ezin kontatu alako Aingerudi, ta Santudi, guziak beren gloria beezkoak janziak, alegria, pake, kontentu, ta atsegiñez beteak. Ango anditasun, ondasun, ta edertasunak: angu musika, kanta berri, ta Jaunaren betiko alabantzak. nola emengo meritoak, ala angu sariak. An Gure Aita Serafico San Franzisko umilla, Korte, edo Jauregi artako Andien artean goi goien ikusi det, eta berago gure Anai lagun on asko, penitenziako saku onetan emen Jauna serbitu zutenak. Gu biziera umil santu batera animatzeko gauza andiak Jainkoak erakusi dizkit: eta aren mandatu au zuei eman, ta ni ara noa, ta zuen orazioakin lagun zadazute. Au esan, ta Jaunari bere anima eman zion: eta len lasterka bidez ikusi zuen Gloria betiko gozatzeru zerura joan zan.

BESTE EJENPLOA

Oien errematean, guzien koroa bezala, Donzella bati igaro zitzaion lezio andiko Ejenplo bat kontatu bear dizut. Au gazterik emezurtza, edo Aita, ta Ama ill, ta bakarra, noblea, aberatsa, ta Jainkoaren doai, edo prenda andietakoa gelditu zan. Kristau on bat zan, gurasoak igoalak onetan izan ez baziran ere. Aita, Jainkoaren adiskidea, ta ala beraren eskutik gaitz, edo neke, ta egun on bat etzuela, trabajuz bete, ta erregalatu izan zan:



orien artean pazienziarekin beste munduko koroa irabazi, ondo ill, ta zerura joan zan. Ama berriz bitartean bere burua munduari eman, ta Jaunaren bildur gabeko biziera txar batean eriotzak arrapatu zuen.

Etxeko ejemplo oiek Donzellak bere begietan izan zituen: ta bera, nola ezkontzeko askok billatzen zuen, ur biren artean bezala, duda andian arkitzen zan. Amaren bizierak munduronz; Aitaren ejemploak zeruronz, ta Jainkoagana biotza tiratzen zioten. Ama Birjiñaren debozio txitezkoa zuen Donzellak: ta dudarik irteteko, ta bere animaren salbaziorako zer konbeni zitzaion azertatzeko, bere afekto guziarekin eskatu zion, arren bitarteko onak bezala, zeruko argi bizi bat Jainkoagandik alkanza ziozala. Ama Santisimak orazioa aditu zion, ta bere alaba maitea zeruko bidean seguratzeko, berak bezala lagundu zion: eta orretarako aren gurasoen beste munduko suertea, eta nola zeuden argiro ikusi erazo zion.

Beñ batean bada, bere ansia estuenean Ama Birjiñari enkomendatzen zegoela, loak artu zuen, ta marabilla andiak ikustera Jainkoak eraman zuen: Erri, edo Korte andi zabal, ta guztizko eder bat, era ta alde guzietara txit zoragarria erakutsi zion: eta an zeuden guziak koroatu, ta gloriaz milla marabilletara janziak, Aingeruen kanta, ta musika suabeaz, kontentuz, ta atsegiñez beteak. Doatsu oietatik bat bere Aita zan: ikusi orduko ezagutu, ta lasterka laztan gozo bat ematera zijoan: Ez, ene alaba, ez: orañdik merezi ez dezu. Au zeruko gloria da: birtuteen saria da: eta biotz guziaz Jesu Kristori jarraitzen diotenai ematen zaie: gurutze, ta nekeen artean or aren borondatea egiñaz irabazten da. Gloria au gozatzeko agatik, zer egin, edo eraman bear ezta? Aitari begira pozik, ta beti egon nai zukean.

Baña beñgoan Aingeru batek beste leku urruti batera eraman zuen. An bazter illun triste izugarri, ta guziz nazkagarri batean, edo infernuan arkitu zan: kea, sua, garra, negarra, deadarra, ta inziria lastimagarriak baizik an etzan. Beste an zeudenen artean bere Ama zori gaistokoa ikusi zuen. Baña nola? Buruko illeak beste ainbeste demoniozko suge zituela: dragoi, ta zakur amorratuen gisa begiak, belarri mingañ, esku, bular, ta gorputz guztia aginka, ta atzaparka puskatzen ziotela. Arritu ta korde gabe alaba geratu, ta nai, ta nai ez begira zegokion.

Amak orduan esan zion: Ai, ene alaba! Ona nere pekatuen, ta bizi-modu galduaren pagua zer dan! Beste oiek, eta ni orko gure libertade, atsegin loi, ta kulpak onetara gaituzte. O atsegin labur betiko atsakabeak ondoren dituztenak! O gusto zital, ta ainbeste nekeren kostuan or billatutako kontentuak, ta emen betiko gure tormentuak! O lurreko banidade zoro, ta gezur utsak, eta emen egiatzko aranza pena garratzen beteak! Eta onek erremediorik ez duela! Madarikatua izan dedilla jaio nintzan eguna,

or jan nuen ogia: nere galak, adiskideak, atsegiñak, ta guzia madarika dedilla. Onetan demonioak alabaren begietatik infernuko leiza zuloetan sekulako ondatu zuten.

Donzella ikusi zituen gauzakin añ arritua geratu zan, non ta egun asko igaro ta ere, bera igaroa bezala luzaro ezertako etzegoen, ta emengo gauzetan itzik egiten etzuen. Jaunaren graziaz sosegatu zanean, biotza trukaturik, ta Ama Birjiñaren eskuetatik Jainkoari beriala, ta betiko emateko prest arkitu zan. Ikusi, ta ikasi zuen lezioaz, mundu guzia zeruagatik largatzeko, ta Jesus maitea bere Elpolo bakartzat artzeko propositu andi bat egin zuen. Limosna andietan bere ondasunak pobrei eman, ta bera pobre umill Jesus pobre umillarekin Gurutzean josi, ta beti bizitzeko. Konbentu batean sartu zan. Bizitza berri zeruko bat, birtute guzien ejerzizioakin an asi, ta asakatu zuen.

Ama Birjiñaren guztizko debozio, ta amorio gozoa beti bere biotzean josirik zeukan ta berari zenbat zeruko fabore zor ziozkan, esker oneko alaba maiteak bezala, bere amore leialaren señaleari andiak bizi guzian erakutsi zuen. Eta ona Donzella onek, infernutik, libratzeko, ta zerua irabazteko, zer suerte ederra, ta zer parte segurua artu zuen. Zuk ere onela bertatik Kristau biziera berri bat, zure estaduko birtuteen ejerzizioetan, ta Ama SSaren egiatzko debozioa biotzean arritatzu, bera, ta bere Semea emen serbitu, ta amatu, ta beti ikusi, ta gozatzeko zeruko glorian. Amen.

Ejerzizio guzien frutua da Bizitza ona, pakezko eriotza, ta zeruko gloria. Baña nola A, S, Ignazioaren erregla dan, Lenengo Astean Gloriaren Konsideraziorik ez ematea, nik ere ala orañ Gloriako Ejerziziorik eman ezdizut. Jainkoak bere amorezko Ontasun guziaz zu, ta ni betiko ara, beti bera alabatzera, zuzen eraman gaitzala. Amen.